

Goienkaria

2010eko urriaren 15a > Egubakoitza > X. urtea > 438. zenbakia > Doan banatzea

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Euskal turismoaren inoizko urterik onena da aurtengoa eta %13 hazi da"

Isabel Muela
Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendaria > 08



G2a Danbakako lehen kontzertua barikuan > 31

ARRASATE Gaur hasiko da Musakolan Euskadiko squash liga txapelketa > 14

BERGARA Astelehenean abiatuko da San Joxepeko kultura hamabostaldia > 16

ANTZUOLA 15 herritarrek hartu dute AKEko ardura eta lanean dihardute > 25



BERBA LAGUNAK Tere Arexolaleiba eta Gloria Baigorri, Mintzapraktika programako kideak, Maitena Arana (AED) eta Maitane Arizabaleta (Jardun) teknikariak atzean dituztela.

MIRIAN BITERI

EUSKARA > MINTZAPRAKTIKA PROGRAMA

Euskaldun zaharrak behar dituzte berba lagun izateko

ELKARTEAK Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako euskara elkarteek izenematea zabalik dute Mintzapraktika programan

HELBURUA Euskaldun zaharrak eta euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenak batzea da programaren helburu nagusia

LAN HANDIA Herritarrek parte hartzera animatzen dituzte elkarteek, "bailaran oraindik lan handia dago-eta egiteko" > 04

ELIKADURA > HARAGIA

Okelaren %80 dator kanpotik

Euskal Herriko haragiak kontrol zorrotzak pasatzen dituela gogora ekarri dute ekoizleek > 02-03

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Ezkontzak > 36
Telebista > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

POLITIKA > PRESOKAK

Jose Luis Elkoro aske laga dute

Eguerdian utzi zuen Martuteneko espetxea, atzi eguerdian; onik dago eta etxean, Bergaran > 17



Elkoro atzo, atarian sartzen.

M.B.

EKONOMIA > GREBA

Metaleko langileen bilkura atzo

LABek eta ELAk metal arloan deitutako hiru eguneko grebak aurreikuspenak gainditu ditu, sindikatuon esanetan. Adegi elkarteak, berriz, "langileen%85 lanean" ari direla dio. > 04

JENDARTEA > ZERBITZUAK

Jolasleku berria Elgetarako

Patronatuaren eraikin zaharrean jolasleku eta aparkaleku egin nahi ditu Udalak > 11

ELIKADURA > HARAGIA

"Debagoiensean saltzen den okelaren laurdena da hemengoa"

BERTAKOA Okela ekoizle eta saltzaileek gogora ekartzen dute Euskal Herriko haragiak kontrol zorrotzak pasatzen dituela

KANPOKOA Ganaduzale eta harakinek esaten dute kanpoko okela asko sartzen dela eta zaila dela jakitea zelan hazi duten

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoiendarrok asko estimatzen dugu okela, eta ondo baloratzen dugu Euskal Herrian ekoizten dena. Baina, batzuetan, okelaren sektorea albiste txarreatik ere bada hizpide: azken adibidea, Alberto Contador txirrindulariaren klenbuterol substantziaren positiboaren harira izan den albiste, kutsatutako okelaren jatorria Irunen kokatu dute-eta. Besterik ere egon da: bere egunean, *behi zoroen* aferak eta sukar aftosoaren izurriteak alarma piztu zuten.

Albiste horiek gutxienak izaten dira, eta haien eraginak ez du askorik irauten. Debagoiensean Degabel elkarte dago, Debagoienseko Abeltzain Elkarte. Publizitate handirik gabe, dagoeneko 26 urte ditu elkarte horrek, eta Debagoienseko herri guztietako 474 bazkide ditu. Oraingo presidentea Agustin Beretxinagak esaten duenez, "albiste txarrek inondako ez dute abantailarik; denok zaku baten sartzen gaituzte. Baina bere egunean, oilaskoarekin ere hori gertatu zen, txerriarekin... Hasieran bai, jendeak arduraz izaten du, eta normala da, baina gero ahaztu egiten da".

Hemengo ganaduzaleok abeltzaintza ekologikoa edo naturala egiten dute; askok, markekin -Eusko Label, Giokela-, eta beste batzuek, euren kabuz. Beretxinagak hau dio: "Ganadua ez dugu hazten lehengo moduan -belarra, erremolatxa eta horrelakoak bazkatzeko emanaz-, baina erabiltzen ditugun pentsuak guztiz naturalak dira: zerealaz, artoaz, garagarraz... egindakoak. Teknikariak etortzen zaizkit eurek erabakitzen duten momentuan eta ganaduaren ilea, gernua eta pentsu lagin bat eramaten dute, euren

"Ganadua ez dugu hazten lehengo moduan, baina pentsuak guztiz naturalak dira: artoa, zerealak eta garagarra dute"

"Noizbehinka irteten diren albiste txarrak aprobetxatu egin beharko genituzke gureari etekina ateratzeko, gurea bultzatzeko"

formularen ezaugarriak betetzen dituen egiaztatzeko. Kontrolak pasatzen ditugu, eta hemen haragi ona produzitzen da". Alde positibo bat ere ikusten die noizbehinka zabaltzen diren esamesei: "Nik uste dut aprobetxatu beharko genukeela gureari etekina ateratzeko, bultzatzeko".

ESPLOTAZIO TXIKIAK

Kontu horiek baino gehiago, egoera orokorrak kezkatzen ditu ganaduzaleok. Izan ere, zifrek ez dute engainatzen: "Ganaduak joan den urtetik ez dira gutxitu; ekoizle handiek gero eta gehiago edukitzen dute. Jende kopurua da txikitzen doana. 10-15 urtean, 200 bat lagunek baja eman dute gure elkartean, laga egin dio

te esplotazioari. Oso gazte gutxi dago; batez beste, hirurogei eta asko urte izango ditugu bazkideok. Geldituko gara batzuk, baina oso egoera kaskarrean gaude; gainbeheran goaz", onartzen du Degabeleko ordezkariak.

Ganadutik bizi ere, gero eta gutxiago bizi dira: %2, elkartearen esanetan. Gehienek esplotazio txikiak dituzte: Degabeleko presidentearen arabera, "elkartean daude 100 buru dauzkatenak eta lau buru dauzkatenak, baina gehiago dira hamar edo gutxiago dituztenak besteak baino". Gehienek behiak eta ardiak hazten dituzte; batzuek, behorrak ere bai.

%80 KANPOTIK DATOR

Klenbuterolaren kasuak mahai gainean ipini du beste arazo bat: batetik, kanpoko okela asko sartzen dela eta horrek hemengo ganaduzaleoi ekartzen dien lehia gogorra; eta, bestetik, okela hori ona izanda ere, jatorria eta jato-



Eusko Labelak eta Giokelak haragi-dastatzeak antolatzen dituzte.

GOIENKARIA



Behiak Bergarako Erramu Zapatuko ferian.

DATUA

474

ABELTZAIN

Debagoienseko Abeltzain Elkarteak (Degabel) 474 abeltzain batzen ditu, bailarako herri guztietakoak. Gehienek esplotazio txikiak dituzte, hamar buru edo gutxiagokoak.

rriko lekuan osasun kontrolak egin diren edo ez jakitea oso zaila edo ezinezkoa dela.

Lehiaren inguruan, honela dio Beretxinagak: "Esaten da Euskal Herrian kontsumitzen den %20 hemen produzitzen dugula, eta gu %20 hori saldu

DATUA

%20

DA PREZIOAN DAGOEN ALDEA

Ganaduzaleek esaten dutenez, kanpotik datorren haragia askoz merkeagoa da: batez beste, bertako okela baino %20-30 euro merkeago. Gainera, *kartara* eska dezake harakinak.

ezinda gabilta, baina harakin guztiek diote hemengo okela saltzen dutela. Hor zer edo zer ez dator bat". Eta gaineratzen du: "Hortaz, %80 kanpotik dator; jakina, merkeago: %20-30 merkeago bai". Arrazoa da, haren esanetan, behar dena bakarrik ekartzeko aukera ematen duela okela horrek; hau da, okela hori zatituta eta saltzeko prestatuta egoten da. Hemengo ganaduzaleak txahala edo behia berdin-berdin hil behar du, dena salduta izan edo ez.

Kontrolaren inguruan, honako esaten du: "Okela guztiak etiketa dauka; baina, kanpokoan kasuan, ezin da jakin zelan hazita zegoen aberea. Jatorrizko herrialdean beharbada librea izango da zenbait produktu ematea. Abere horren jarraipenik ez da egin". Dena dela, azpimarratzen du "kanpotik ere okela ona etortzen" dela, baina, "tartean, beste okela batzuk ere bai".

KONTROL ZORROTZAK

Harakinek egoera bera marratzen digute. Giokelarekin lan egi-



JULIO CALLEJA

Eusko Labelekoak izan behar dira. Txahalek kontrolak pasatzen dituzte baserrian bertan, eta hiltegiari berriro kontrolatzen dituzte".

Sallegik hemengo okela saltzen du, eta ez daki kanpotik sartzen den okelaren gainean. "Gaur egun, kontrolak eginda etorriko dela pentsatzen dut", esaten du.

"OKELAZALEAK BAGARA, BAI"

Ganaduzaleek harakinokin lan egiteko modua ere aldatzen doala esaten du Agustin Beretxinagak: "Zuzeneko salmenta bukatzen doa. Harakinak zatika erosten du, eta zer saltzen duen, hori erosten digu; denok nahi dugu txuleta edo solomoa, baina txahalak beste zati asko dauzka. Horregatik, gero eta gutxiago saldu behar dugu zuzenean".

Zuzeneko okela-dastatzeek, ordea, sekulako arrakasta dute: "Nik ondo ikusten ditut horiek eta neu ere ibiltzen naiz. Okelak normalean kalte egiten diotak ere egun horretan jaten du, beldur barik. Okelazaleak bagara, bai; hemen asko jaten da", esaten du Degabeleko presidentek.



Zubillagako hiltegiari.

LEIRE KORTABARRIA

"Haragi biltegia modukoa izan daiteke"

Degabeleko presidente Agustin Beretxinagaren iritziz, Zubillagako hiltegiak ganadua hil eta okela zatitu eta komertzializatu egin beharko luke etorkizunean, "biltegi baten moduan". Izan ere, "kanpotik datorren okelarekin zerbitzua hori da: norberak telefonoz eros dezake behar duena, ez txahal osoa. Bestalde, ganaduzalea behartuta dago pieza osoa hiltzera". Haren iritziz, "hiltegiak horrela funtzionatuz gero, seguru asko irteera hobea izango luke bertako okelak". Jose Mari Salegi harakinak hauxe dio: "Harakinoi, ondo etortzen zaigu hiltegia etxetik gertu egotea. Zubillagatik haragia tratamendu onarekin etortzen da, eta gustura gaude".

ESANAK

"Kanpoko okela asko dator, eta bertakook ezin saldu ibiltzen dira"

"Jendeak uste du haragi guztia berdina dela, eta prezioa bakarrik ikusten du"

Iker Agirreurreta > Harakina

ESANAK

"Euskal Herriko kontrolak munduko zorrotzenetarikoak dira"

"Erosleen ardura da okela ona izatea; nongoa den ez dute hainbeste begiratzen"

Joxean Izagirre > Harakina

ESANAK

"Txahalek kontrolak pasatzen dituzte baserrian bertan eta, gero, hiltegiari"

"Albiste txarrak daudenean, bereziki, jendeak apreziatzen du hemengo okela"

Jose Mari Salegi > Harakina

ten duen Iker Agirreurretak hauxe dio: "Kanpoko okela asko dator, eta bertakook ezin saldu ibiltzen dira. Europa ekialdetik, Amerikatik... asko etortzen da. Eta klenbuterola sartzea, adibidez, debekatuta dute, baina dena ezin da kontrolatu. Bestalde, okela horrek ekartzen duen prezioarekin hemengo ezin daiteke lehiatu". Arrasateko harakin horren esanetan, Debagoieneko egoera ez da hain txarra: "Bailara honetan, Azpeitia eta Azkoitia aldean... batik bat bertako ganadua kontsumitzen da". Baina, oro har, "jendeak ez daki zer jaten duen; uste du haragi guztia berdina dela, eta prezioaren alde bakarrik ikusten du", haren iritziz.

Joxean Izagirrek Arrasaten du harategia, eta ez dabil inongo markarekin modu eksklusibean. Euskal Herriko haragia saltzen du; azkenaldian, Nafarroatik, Mendabitik ekartzen du. Euskal Herriko okela saltzen duten harategi guztiak fidagarririk direla gogorarazten du: "Marka batekoak edo besteok ez diren harategiak zalantzarri moduan utzi izana ez zait egokia iruditzen. Euskal Herrian egiten diren kontrolak munduko zorrotzenetarikoak dira; eta gainera, abeltzainari berari interesatzen zaio bere txahala kalitatezkoa izatea". Hala ere, Izagirreraren esanetan, "jendea ez zaio hainbeste ardura bertako okela izatea, nahi duena da ona irten dadila".

Eusko Labelekin lan egiten du Jose Mari Salegi harakinak eta bestelako iritzia dauka: "Jen-

deak apreziatzen du bertako okela. Eta albiste txarrak iritien direnean bereziki, jendeak begiratzen dio ea bertako haragia den, kalitateari, etiketari...". Eusko Labelen okelak "euskal okelaren bermeak" dituela gogorarazten du Salegik: "Baserrietan erosten ditugu txahalak, eta

2. Fasea

1. Fasea BUKATUTA

2. FASEA SALMENTAN

San Lorenzo auzoa

BERGARA

“ 1 eta 2 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuak. 3 logelako duplexak ”

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES

ER ICNet ER

Sustatzailea

Ormak

www.ormak.es

Argibidea eta Salmenta

943 424 430

132.000€-tik
aurrera

EUSKARA > MINTZAPRAKTIKA PROGRAMAREN AURKEZPENA

Euskaldun zaharrak behar dira euskara kalean zabaltzeko

Dagoeneko izena eman daiteke Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako Mintzapraktika programetan; atzo, horren gaineko aurkezpena egin zuten

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Joan den urtean Debagoieneko Mintzapraktika egitasmoek (Berriketan, Zahar-Berri eta Barriketan) izandako emaitza positiboak ikusita, aurten ere programekin aurrera egitea erabaki dute euskara elkarteek. Izenematea zabalik dagoela jakinarazteko eta egitasmoen berri emateko agerraldia egin zuten atzo goizean Arrasateko Kulturaten.

Ohartarazi zuten eskualdean oraindik "lan asko" dagoela egiteko, programa horien berri ez duten debagoiendar asko daudelako. Horren harira, nabarmendu zuten helburu bikoitza dutela egitasmo horiek: batetik, eskualdean behera doan euskararen erabilera bultzatzea eta zabaltzea, lagun euskaldunak eskainiz; eta bestetik, euskara ikasten ari direnei aukera ematea konfiantzazko giroan berba egiteko.

AREXOLALEIBA ETA BAIGORRI

Horren harira, Tere Arexolaleiba euskaldun zaharrak eta Gloria Baigorri euskaldun berriak euren esperientzia kontatu zuten. Arexolaleibak adierazi zuen orain dela hiru urte GOIENKARIAN irakurri zuela egitasmoaren berri, eta, "paper ona" egingo zuela iru-



Tere Arexolaleiba eta Gloria Baigorri alde banatan; erdian, Maitena Arana eta Maitane Arizabaleta teknikariak.

MIRIAN BITERI

ditu zitzaionez, parte hartzera animatu zela. Baigorrik azaldu zuen ordutik hona astean bizpahirutan batzen direla, paseatzera joateko edo kafe bat hartzeko.

Aurkezpenean gogorarazi zuten Mintzapraktika programak

aisialdiko jarduerak direla, eta lauzpabost lagunez osatutako talde txoak berba-kideen zaletasuna, adina, bizitokia eta ordutegia kontuan hartuz sortzen direla.

Esan bezala, izenematea zabalik dago. Aretxabaletan, Udaleko

Euskara Zerbitzuan, Udal Euskaltegian eta Loramendin eman daiteke; Arrasaten, AEDn, Udal Euskaltegian eta AEK euskaltegian; eta Bergaran, Udaleko Euskara Zerbitzuan, Jardunen eta Udal Euskaltegian.

Amaia Arantzabal > Euskaldun zaharra

"Astean behin ordubete atera daiteke, nahi izanez gero"

M.B. > BERGARA

Amaia Arantzabal bergarra aurtan sartu da Mintzapraktika programan.

Zelan sartu zara egitasmoan?

Euskaldun berri den lagun batek beharra zuen eta egitasmoa zelan zihoan galdetu zidan. Horren gaineko informazioa jasotzen hasi nintzanean ikusi nuen beharra zegoela eta ni neu joatea erabaki nuen. Hiru gara taldean: euskaldun berri bi eta hirurok.



Zer daukazu eskaintzeko?

Kontrakoa ematen badu ere, txikitatik euskaraz dakigunok euskaraz hitz egiten laguntzen diegu horiei, euren buruengan konfiantza eta erraztasuna har dezaten. Astean behin batzen gara, kafea hartzeko.

Zer esango zenieke programan sartzeko zalantzan daudenei?

Animatu egingo nituzke. Astean behin ordubete atera daiteke, nahi izanez gero. Ez da esfortzu handia.

TURISMOA > DIPLOMA BANATZEA

Turismoaren alde lan egin dutenak saritu dituzte

Debagoieneko bost erakunde eta enpresak kalitatearekin konpromiso diploma jaso dute; Turismo zuzendari Isabel Muela izan zen ekitaldian

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Sektore turistikoan kalitatearekin konpromisoa duten erakunde eta enpresak saritu zituzten eguaztenean Bergaran. *Konpromisoa kalitate turistikoarekin*

ziurtagiria jaso zuten Isabel Muela Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendariaren eta Agurne Barruso Bergarako alkatearen eskutik. Enpresa pribatuak eta erakundeak saritu zituzten.

Bost izan ziren diploma jaso zutenak: Bergarako Ormazabal hotela; Arrasateko En-Medio Segway; Leintz Gatzagako Gaztainuzketa mendi etxeak; Oñatiko Arantzazuko turismo-dendak; eta Oñatiko Ongi Etorri hotelak.

EGITARAUAREKIN JARRAITU

Gainera, 2008an eta 2009an diploma jaso eta gaur egun egitarauarekin jarraitzen duten beste 22 erakundek hori egiaztatzen duen ziurtagiria ere jaso zuten.

Diplomak jaso zituzten erakunde eta enpresetako ordezkariak pozik zeuden. Eurentzat, orain arte egindakoaren errekonozimendua da; eta, gainera, lanean jarraitzeko indarra ematen du diplomak. Mitarte Garai landetxeko Mariasun Zalloñak, esaterako, 2009an jaso zuen diploma: "Egunerokotasunean lanean segi-

tzeko indarra ematen du horrelako sari batek", azaldu zuen, pozik.

Antzuolako Ibarre landa turismoko Pilar Belastegik, ostera, 2008an jaso zuen ziurtagiria. "Eskaintzen dizkiguten ikastaroetan asko ikasten dugu eta ahalik eta ondoen lan egiten ahalegintzen gara", azaldu zuen Belastegik.

DEBAGOIENKO TURISMOA, ONDO

Mankomunitateak hirugarren urtez jarraian banatu ditu diplomak. Erabat industrialak den ibarrean, "turismoak merezi duen konpromisoa eta bultzada" saritu gura dute modu horretan. Horren harira, Muelak esan zuen Debagoiengan, eta orokorrean Euskadin, turismo kalitate ona dagoela; eta horren alde gogor egiten dela lan.

EKONOMIA

Metaleko langileen bilkura atzo Bergaran

M.B. > BERGARA

LAB eta ELAk deituta, eguaztente gaur arte greba egunak dira metal arloan. Sindikatuek adierazi dutenez, Adegik lan hitzarmen atzerakoa aurkeztu du eta eskatzen dutena da orain arteko hitzarmenari, behintzat, eustea.

Ander Gallego LABeko metal arloko Debagoieneko arduradunaren esanetan, aurreikuspenak gaititu eta lantegi gehienek egin dute bat grebekin: besteak beste, Oñatiko Garayk, Bergarako Arceilor, Candy eta Metagrak, Antzuolako Elayk eta Eskoriaztzako Tesak. Lanuzteez gain manifestazioak ere eginen ari dira; atzo, esaterako, Bergaran egin zuten agerraldia.

%85 LANEAN

Adegik sindikatuen kopuruak gezuratu ditu, eta metal arloko langileen %85 lanean daudela esan. Horrekin batera, negoziatzeko borondatea agertu badu ere, ohartarazi du mobilizazioek irauten duten bitartean ez direla mahaian jarriko.



Bergarako manifestazioa.

M.B.



Diplomak eta ziurtagiriak jaso zituzten enpresa eta

HEZKUNTZA > AURKEZPENA

Iñaki Espartzak UNEDeko zuzendari kargua hartu du

Atzo hartu zuen lekukoa, Juanjo Alvarezen eskutik. "Ardura handiarekin" hartzen duela dio, eta UNEDeko patronatuari konfiantza eskertu dio

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Bergarako UNED zentroko zuzendari berria Iñaki Espartza izango da. Atzo Donostian, prentsaurrekoan, aurkeztu zuten Espartza. Ekitaldian izan ziren Maria Jesus Aranburu, Kultura eta Euskara diputatua; Karlos Ruiz, Kutxako ordezkaria; Juan Jose Alvarez, orain arteko UNED-Bergarako zuzendaria; eta Espartza bera.

Testigua hartzerakoan, Espartzak esan zuen ardura handiarekin hartzen duela Bergarik zuzentzen den eta gero eta gipuzkoar gehiagori zerbitzua emateko bokazioa duen erakundea. "UNED ez balitz existituko, asmatu egin beharko litzateke, zentro honetan ikasten duten pertsonen zailtasun handiz egingo luketelako beste modu baten", azaldu zuen.

PROFESIONAL TALDEA

Espartzak UNED-Bergara patronatuari bere konfiantza eskertu

ziona; eta, bide batez, ikasle bakoitzaren berezitasunak aztertu, lagundu, aholkatu eta ikasleak aurreikuspenak bete ditzen baliabide guztiak jartzten dituzten irakaskuntza alorreko profesional taldea izateaz poztu zen.

Espartzak ikasleen zerbitzura egongo dela gaineratu zuen, eta baliabideetan bikaintasuna sustatzeko lanean jarraituko duela.

Modu horretan, orain arte zentroaren zuzendari izan den Juanjo Alvarezek 14 urteko etapa amaitutzat eman du. Urte hauetan pertsona moduan ikasteko aukera izan duela azaldu zuen Alvarezek.

MATRIKULAZIOA ZABALIK

Eskaintza akademikoa eta unibertsitate eskaintza kontsultatu edo matrikulazioa egiteko interesa dutenek Bergarako zentroan bertan egin dezakete (San Martin plaza 4); baita 943 76 90 33

DATUA

35
URTE

Gipuzkoan historia eta esperientzia gehien duen unibertsitateen artean dago Bergarako UNED. Dagoeneko 35 urte ditu.

ESANAK

"UNED existituko ez balitz asmatu egin beharko litzateke, ikasleek zailtasunak izango lituzkete-eta"

Iñaki Espartza > UNEDeko Zuzendaria

telefonora deituta eta www.unes.es/ca-bergara web orrian. Gradu eta sarbide probetarako izena eman gura dutenek urriaren 22ra arteko epea izango dute horretarako.

LANAK

Errege seminarioko obrak abendurako amaituta izatea espero dute arduradunek

Udan hasi zituzten Errege Seminarioko obrak; eta, aurreikuspenen arabera, abendurako amaituta egongo dira. Kanpoko eta barruko hobekuntzarako 1,575 milioi euro bideratu dira aurtun.

Espazio eta ekipamenduen hobekuntza osoa osatzen dabil azken bi urteotan Patronatua. Hala, igogailu bat jarri eta mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea da helburuetako bat. Baita teilatua eta leihoak konpontzea ere. Adibidez, teilatupea oso egoera txarrean zegoen lanak hasi aurretik, jaustekotan. Irudian ikus daitekeenez konpondu dute hori. Gainera, Foru arduradunek azaldu dute ikasleei ahalik eta kalte txikien eragitearren hasi zituztela obrak uda partean, jende gutxien dabilen garaian.



Teilatupea berrituta. UNED



erakundeetako ordezkariak, Barruso alkatearekin eta Muela Turismo zuzendariarekin.

A.E.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

IRAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA

Bidali KLUBA KAMISETA [bazkidearen zenbakia] 5195 zkra



DANBAKAKO PACKA

Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUA

Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT PACK TXURIA

Ukabi
informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotun sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



zabalik

Diego Martiartu

'Boletus aereus'

Hego-haize osteko egunotan onddorik topatzea mirari bihurtu baita kasik, pagope gozo batean aterpetu naiz orbelezko ohe bigunean gorputza etzateko. Merezitako atsedena, Izki-ko paraje ederrotan perretxiko bila hara-hona erdi-galdurik luza-roan ibili ostein. Apillanizko elizako kanpai hotsek adierazi dida te furgonetara itzultzeko norantza jo.

Lurrak emaniko onddorik bat ere ezta, zerutik etorritako *boletus* erraldoia, alimalekoa, imajinatu dut Izki-ko basosarrietatik haragoko galsoroan. Onddo atomikoa da, nuklearra, eder eta distiratsua, munduan diren harribitxi guztiak batera bezain.

Instantekoa: halakoa izan zen Hiroshimako. Bizitzatik heriotzarakoa: ttak. Eta dena errauts. Han ez zuten jendea bere etxetik banan-banan atera behar izan; ez zen Auschwitzera inoko tren bidaia luzerik egon; ez zituzten arropak, panpinak eta protesiak "Kanadara" erretiratu eta sailkatu behar izan. Gorpuek izugarri pisatzen zuten, batez ere gainezka egindako gurditxo bidean irauli eta hilotzak berriro ere banan-banan jaso eta antolatu beharra zegoenean.

Baziren denetariko gorpuak, eta batzuek denbora bikoitza behar izaten zuten leabean errauts bihurtzeko. Eta hori guztia nekosoa zen, lana zen.

Han egondako batek esan zuenez, gerora ametsetan gehien agertzen zitzaion irudia, jendea gas ganberan sartu ondoren atarian geratzen zen ume-kotxe huts eta isilen ilara luzearena zen.

Hiroshimako ez zen halako kate baten segidan gauzatu, argazki finkoa izan zen: onddo distiratsua eta eder bat, hegazkin bat igaroan.

Ez zaigu Auschwitzeko bezain hunkigarria egiten, eta horixe da, akaso, ikaragarriena. Euri beltza da.

"Instantekoa izan zen Hiroshimako. Bizitzatik heriotzara: ttak"

usteak uste

Edu Mendibil

Antxintxika egiteko egunak

Udako oporren bueltan korrikalari kopurua nabarmen handitzen da (bikini/bainujantziko operazioaren ondoren atzera irabazitakoa erretzeko agian?), zer esanik ez Behobiako probaren aurretiko asteetan. Zapatuan, urtebeteko parentesiaren ondoren, indarberrituta etorri zen Arrasate-Oñati proba eta ibarreko hurrengo hitzorduak ditugu urriaren 22ko Tafyd gaueko krosa Arrasaten eta azaroaren 6ko Soraluze-Bergara krosa. Antxintxikariaren sasoi da udazkena, perretxikoak moduan. Zapatilak, zira eta praka motzak urtaroko marka bilakatu dira.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Egun Garotakoa

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Gaurko egunez urtero-urtero errepikatzen dituzten hispanitatearen ikonografia, alarde eta diskurtso militaristak sufritu beharraren kausaz, Pilarika entzute hutsak atzeraka eragitea ez da harritzeko.

Euskal senari garo usaina deitu zion Txomin Agirrek, eta sen horrek izango du zerikusirik hainbat baserri girotan egun horri Garotako Ama edo Ama Garotakoa deitu izanarekin. Bergarako lexikoak, Pilarika deituraren sinonimotzat jo eta gero, eransten du: "Egun honetan bildu ohi zen baserriko familia guztia, lantegian zebiltzanak-eta jai izaten baitzuten, garotan egiteko".

Garotan ikasi ez dugunontzat, gaurkoa ez da egun txarra zumezko otarra hartu, hondoa garoarekin estali eta perretxikotan saiatzeko. Ama Garotakoak libra gaitzala perretxikoek kalte egitetik. Lehen ere badugula nahiko amabirjina? Egunari kutsu

laikoa emateko garo-usaina galdu gabe, Egun Garotakoa ez litzateke txarra gaurkoa izendatzeko.

Anne Frank, berreskuratua

Joxe Aranzabal

<http://goiena.net/blogak/farao/>

Egun hauetan *Anne Franken egunkaria* irakurtzen ari naiz. Bost urte badira berai irakurtzen hasi nintzela, baina, zergatik ez dakidala, utzi egin nuen alde batera..

Orain berriro hartu dut esku artean, eta gustura nabil aurrera egiten. Irakurri ahala, harritu egiten nau pentsatzeak 13 urteko neskatila batek idatzi zituela lerro horiek, hain dirudi-eta pertsona heldu baten kontakizuna. Bart gauean, adibidez, esaldi honek eman zidan atentzioa:

-Jende normalak ez daki ezkutatuta dagoen batentzat liburu bat zer den. Irakurtzea, ikastea eta irratia entzutea beste zerekin distraiturik ez baitugu izaten guk. (118. or.)

koplak

Eñaut Uriarte

Azkenian irten die

17 egun meatzariez ezer ez genekiela, eta orduan jakin giñuan danak bizirik zerela.

Nik ez dakit zer ote / izan dan barruan gertautakua, baiña kanpokua argi dago bihurtu dala zirkua.

Eurek barruan jasan dutena hotzian pentsatu daigun, ongi garenok ez baitakigu ze suerte haundixa dogun.

Berri ona da eurak barrutik honik atera direna, hala be ez dakixe kanpuan oin tokauko jakuena.

Kapsula baten meatzarixak kanpora irten eta bela esan daiteke guzti-guztiak argixa ikusi dabela.

Guztiak eguzkitakoekin ari ziren ateratzen, ia kanpuan diru / hotsak denak ez dittuen bada itsutzen.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Euzko
JaurilaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Eskerrik asko, ospitaleko kideei

Arantxa Zabala
Aretxabaleta

Eskerrak eman gura dizkiet Debagoieneko ospitaleko langile guztiei, eta bereziki Gerardo medikuari eta haren lantaldeari egindako lan bikainagatik. Era berean, eskerrak eman gura dizkiet senide, lagun eta herritar guztiei momentu latz hauetan erakutsitako babesagatik.

Arkuperi buruz esan ez direnak

Inaxio Garro
(Aretxabaletako Udaleko Kultura batzordeburua)
Aretxabaleta

Arkupe kultura-etxearen kudeaketaren inguruan informazio partziala eta interesatua eman dute, eta askotan gertatzen den moduan, errealitatea desitxuratu egin dute. Izan ere, hamaika bilera egin dugu Ba! Plataformakoe-

kin, lehenago eta oraintsu. Informazio gutzia dute eskura, beste inork baino gehiago, baina hala ere jarrera okerra erakutsi dute.

Aralarren eta baita nire helburua ere, Kultura batzordeburu naizen aldetik, agintaldi hasieratik herriko kultura-jarduerari astindu bat ematea zen eta da, Aretxabaletak potentzialitate handia baitauka alor honetan. Horretara etorri zen joan den urtean Elhuyarrek batera bultzatu eta dinamizatu genuen herritarren parte-hartze prozesua, non 55 atxabaltarrek hartu zuten parte Aretxabaletako kultura-diagnosia egin eta, hortik abiatuta, guztion artean kultura-estrategia adostu eta diseinatzen zuten.

Eta parte-hartze prozesu horretan herriko talde eta elkarte eragile guztiek hartu zuten parte, eta taldeka hainbat lan-saio egin ostean, 4 helburu estrategiko adostu ziren. Horieta bat, lehentasunetan lehena ez zena, Arkupe herritik kudeatzea zen. Hala ere, horren aurrean bazegoen beste helburu estrategiko bat: Udalaren eta herriko kultura-eragileen arteko komunikazioa sortu eta

sendotu, koordinazio eta elkarlanerako batzorde bat sortuz, batzorde ireki bezain anitza, gizarte-mugimendu osoaren presentzia bermatuz.

Eta hauek ziren batzordeak izan beharko lituzkeen helburu eta funtzio esanguratsuenak:

- Jai-programak landu eta jai-ereduak definitu: Sanmiguelak, Karnabalak, Andramai-xak...

- Ekimenak sortu, proposatu, koordinatu; hau da, akuilu lana egin.

- Herrian sortzen diren ekimen edo aukeren inguruan parte hartu eta iritzia eman.

- Beste herriekin harremanak izan eta esperientziak trukatu eta bailarako herriekin koordinatu.

- Arkupeko ildoak definitu, eta programak elkarlanean lantzeko, neurri zuzentzaileak proposatu.

Batzorde hori osatzeko egin diren bilera bakar batera ere ez dira etorri Ba! Plataformako kideak. Ez etorri, ez planteamendurik bidali, ez ekarpenik egin. Ezer ez.

Etxea behetik, lehenengo solairutik eraikitzen hasi beharrean, teilatutik hasi nahi izan dute, atxabaltarrok

adostasunez erabakitakoa baztertu. Beraz, gai honen bueltan demagogia asko eta konpromiso eta inplikazio gutxi erakutsi dute.

Bestetik, aipatu beharra daukat Udala prest dagoela elkarlanerako, baina Ba! Plataformako kideek erabil dezatela energia modu eraikitzailean, hankak lurrean jarriz eta baztertu duten batzorde herrikoia indartzen. Hortik aurrera etorri beharrekoak etorriko dira. Egiten dutena Udalarekin batera egin dezatela, ez Udalaren kontra, ez beste erakunde paralelo bat sortuz.

Bukatzen, argitu nahi nuke Udaletik Ba! bezalako taldeen sorrera eta ahalegina txalotu dugula hasieratik, eta ahalegin berezia egin dela herriko kultura-dinamikan txertatzeko, ez bakarrik Arkupe kultura-etxean, baita bestelako kultur antolaketan ere. Zoritxarrez, akats administratibo bat tarteko ezin izan da Arkuperen kudeaketa lizitaziora atera. Hala ere, herriko kulturaren dinamizazioan parte hartzea eta protagonista izatera animatu nahi ditugu, horrelako herri ekimenak behar beharrezkoak ditugulako.

Gure errekek zain ditzagun, denok

Mikel Gartzia
Eskoriatza

Lerro hauetatik Eskoriatzako Udalean ingurumen kontuez arduratzen direnen lana txalotu nahi dut Erreka Eguna dela-eta erakutsi duten jarreragatik.

Eguraldi txarra dela-eta birritan aldatu behar izan dute aurten Erreka Eguna; azkenean, aurreko ostiralean egin zuten.

Gogoeta egiteko gonbita ere egin nahi dut. Urteroko ekintza da errekatik zaborra batzearena. Bada, kontu handiagoz ibiliko bagina eta zaborra zakarrontzira botako bagenu, ez genituzke katiuskak jantzi beharko eta erreka jaitsi.

Hortaz, mezu bi: ingurunearekin adeitsuagoak izan gaitzeala, Bolibar eta bereziki Deba errekek dagoeneko nahikoa sufritu dutelako eta, hortaz, mimo handiz zaintzea merezi dutelako; bestetik, aurrekoa betetzen ez dugun bitartean, urtero halako ekimenetan parte har dezagun.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Atera etekina txartelari!

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuaren prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Saillkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Abantailaz betetako kluba!



Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.

Deskontu bereziak



BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)

- Laser depilazioa: hanka osoa + izterondo
- **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA

- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.



BERGARA/ARRASATE

- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).



ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)

- **-%2** gasolina degian erregeia erositak.
- **-%2** dendako produktuak.



ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkidearentzat)

- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
- Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01



CLINICA DENTAL BERGARA

CLINICA DENTAL BERGARA
BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)

- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.



DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.



ARRASATE/OÑATI

- Sukalde osoa erositak, etxetresna elektriko bat opari.



DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



DONOSTIA

- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



ARETXABALETA

- **-%15** zerbitzu guztietan.



BERGARA

- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: kluba@goiena.com

Bergaran izan da Isabel Muela eta aprobetxatu egin dugu elkarriketa egiteko. Pozik ikusi dugu, inoizko daturik onenak izan dituelako turismoak gurean. "14 hila-bete jarraian daroagu etengabe hazten", dio, eta hori, batik bat, turismoa kudeatzeko eredu aldatu ketagatik dela dio. *On line* bidez-

ko sustapen kanpainak egin dituztela dio, turismo helmugen bila dabilzanak erakartzeko.

Isabel Muela > Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendaria

"Euskal turismoaren inoizko urterik onena da aurtengoa eta %13 hazi da"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Debagoieneko bost laguni diploma eta 22ri zurtagiria eman zieten eguaztenean Bergarako udaletxean, kalitate turistikoarekin duten konpromisoagatik. Ekitaldian izan zen Isabel Muela (Bilbo, 1965) Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendaria. 2009ko maiatza ezker dago karguan.

Unerik gozoenak bizi ditugu turismoari dagokionez Euskadin?

Bai. 14 hilabete jarraian daroagu etengabe hazten. Iazko datuekin alderatuz, aurtengo urtarrietik abuztura bitartean, %13ko igoera izan du turismoak gurean eta lo egitera geratu direnak kontuan hartuta, %12ko igoera. Hortaz, euskal turismoaren inoizko urterik onena da aurtengoa. Urtarrietik abuztura bitartean milioi eta erdi turista etorri da Euskadira, eta udako hiru hilabeteetan, 712.000. Orain arte 2007a izan da udarik onena eta harekiko %10eko hazkundera izan dugu aurtengoa. Eta datu gehiago: aurtengo abuztuaren 266.000 bisitari etorri dira gurean. Inoizko daturik onena.

Zergatik da hori?

Turismoa kudeatzeko eredu aldaketagatik, argi eta garbi. Promozio modu berriak erabiltzen ditugu orain. Turismoa egokitu egin da teknologia berrietara. Hortaz, turistak bilatzen dabilzan lekuetan egin dugu promozioa, Interneteko bilatzaileetan, batik bat. Batez ere, *on line* bidezko sustapen kanpainak egin ditugu. Bestalde, inoiz baino kazetari gehiago gonbidatu ditugu Euskadira, herrialde askotakoak, gainera. Horrek izan du eragina.

Ze Euskadi erakutsi diozue kazetari horiei?

Tradizioaren eta modernotasunaren arteko sinbiosia, kultura eta berrikuntza... Erakutsi diegu gure komunitate irekia, erakargarria, berritzailea, adeitsua, inork baino hobeto hartzen dituen kanpokoak. Eta, betiere, aurrean ipinita gure gastronomia eta enologia.

Nondik eta nora datoz bereziki turistak gurean?

Krisia arazo izanik ere, oportunitatea ere bada. Krisia dela eta, ikusi dugu turistek toki gutxiago aukeratzen dituztela oporretarako. Hortaz, gure inguruko herrialde eta autonomia erkidegoetara bideratu dugu eskain-

tza, batik bat, Kataluniara eta Madrilerara eta, *on line* bidezko sustapen kanpainetan, nazioarteko turistak erakartzen saiatu gara. Ondorioz, abuztuaren, esaterako, 100.000tik gora atzeritar etorri dira gurean, inoiz gaineratu bako datua. Hortaz, batik bat Kataluniatik eta Madrildik, baina baita Espainiako beste hainbat toketatik eta baita atzeritik ere etorri dira turistak inoiz baino gehiago.

Atzeritik, nondik?

Frantziatik, Alemaniatik, Erresuma Batutik eta orain Portugaldik ere bai. Horretan eragin zuzena dute hegaldiak. Izan ere, Lisboatik Loira hegaldi zuzenak daude eta hor egin ditugu sustapen kanpaina zehatzak. Orain Milanen gabilta egiten.

Zertara dator turista Euskadira?

Eguraldiak baldintzatzen ez duen jardura erakargarri piloa dago Euskadin. Kultura eskaintza, museoak –ez bakarrik Guggenheim, mundu mailako ikono bihurtu dena, baizik eta baita Txillida Leku eta Euskadin dauzkagun gainerako museo eta interpretazio guneak–, natura eta gastronomia. Eta, azkeneko bost hilabeteetatik hona egin dugun apustua Arabako Errioxa eta turismo enologikoa bultzatzeko erantzuna izaten ari da. Askok hazi da turismoa Araban. Santa Mariako katedralaz eta Gasteizko eraztun berdeaz gain, Arabako Errioxak erakarri du turista asko. Euskal kostaldea bisitatze-
ra datorren asko eta asko hurbiltzen da Arabako Errioxara.

Turistak ez datoz, hortaz, hiriburu edo toki bakarrera?

Hala da, eta nabarmendu nahiko nuke gure marketen planean jasota daukagunez, ez dugula nahi turistak gatibu edukitzea hiriburuetan, baizik eta lurralde historiko edo eskualde ezberdinetan egon daitezela.

Produktua saldu nahi duzue, helmuga turistiko baina gehiago?

Bai, hor dago aldaketa nagusia. Produktuan jarri nahi ditugu indarrak, eta hori saldu kanpoan. Industria turismoa, natura turismoa, kultura turismoa, gastronomia esperientziak... garatu nahi ditugu herrietan ere bai. Ez bakarrik hiriburuetan edo ohiko helmuga turistikoetan.



Isabel Muela, Bergarako udaletxean, eguaztenean.

ENEKO AZKARATE

INTERNET
"Turistak bilatzen dabilzan lekuetan egin dugu promozioa: bilatzaileetan"

NORTASUNA
"Komunitate irekia, erakargarria, berritzailea, adeitsua gurea saldu nahi dugu"

Ze eskain diezaiokete turistari Debagoienak?

Dena. Hiriburuetako turismoa osatu behar delako herri edo eskualdeetakoarekin. Herriek izan behar dute eskualde ikuspegia eta eskualdeek erki-
dego ikuspegia. Globalean pentsatu behar dugu, elkarlanean aritu, bata besteren aurkako lehiatan ibili barik. Osatu egin behar dugu gure eskaintza turistiko. Euskadi produktu edo marka turistiko moduan elkarlanean garatu behar dugu, bat izango bagina.

Turismoa bultzatzeko Bergarako Udalak onartu duen plana eta Errege Seminarioa gertutik ezagutzeko aukerarik izan duzu?

Eskutik goaz eta azaroan etorriko gara bertara Debagoieneko, eta zehatzago esanda, Bergarako turismo plana hobeto ezagutzera, ondarea, asmoak, helburuak... Marketin plana ez da Jaurlaritzaren plana, turismo agente eta erakunde guztion da.

Eraginik izan du turismoan ETA azkenaldian geldituta?

Askok igarri da. Batez ere desagertu direlako kaleetatik ETArekin aldeko apologia ikurrak paretetan, karteletan... Eta hona datozen turistek ikusten dute lasaitasun handiagoa dagoela kaleetan eta euren herrietara itzultzen direnean inguruko kontaktatzen diete. Euskadi trankilaren irudia eman dugu eta horrek eragina izan du turismoan.

Jaurlaritzak nahikoa baliabide eskaintzen dio turismoari?

Eusko Jaurlaritzak apustu irmoa egin du turismoaren alde. Aurrekontuetan dirua eta bitartekoak eskainiz. Lehendakari hau konprometituta dago turismoarekin. Hala ere, inoiz ez da nahikoa, kontuan izanda azkeneko 14 hilabeteetan goraka doan sektorea dela. Beste sektore batzuk krisiaren ondorioak pairatzen dabilzan neurrian, turismoa goraka doa eta negozio eredu berriak garatzen dabilta. Errendimendu handiko negozioen artean dago turismoa.

Konpromisoa kalitate turistikoarekin ziurtagiriak banatu dituzue Debagoieneko hainbat enpresa eta erakunderi. Garrantzitsua da haiek egiten duten lana?

Ezinbestekoa da sektorekoen esfortzua. Askok eta askok familia negozioak dira eta ordu piloa eskaini behar dizkiete ziurtagiria lortzeko. Aitortu egin behar zaie egiten duten esfortzua. Ez gara alferrik, kalitateari dagokionez, lehenengo autonomia erkidegoa.

Ze turistak zarenen nora joaten zara?

Esperientziak bizi izatea gustuko dut eta horren bila noa. Edozein eratako esperientziak: gastronomia, kultura, natura, lasaitasuna... Aitortzen dut, halere, New York ezinbesteko turismo helmuga dela. Eta Shanghai...

Presta zaitez udazkenerako



Markeliñe
umeendako arropak
BERGARA
Herrilagunak 6
943 76 05 24
Neurriak: Otik 16 urtera



JIFH
ARRASATE
Olarte kalea 9
943 79 06 82
Arropa denda



BC gazte eta ume
ARRASATE
Maalako Errebala 13
943 79 70 67
Gaztetxo eta umeentzako arropa



Jolas
BERGARA
Barrenkalea 27
943 76 46 48
Arropak eta osagarriak



Ilargi umeen denda
BERGARA
Ibargarai 14
943 08 29 65
Puerikultura,
haurren arropak (0-4 urte)
eta haurdunentzako arropak



Iratxo mertzeria
BERGARA
Telesforo Aranzadi 2
943 76 00 79
Lentzeria eta osagarriak

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Garaia gunea "denbora eta pazientzia" behar duela diote > **12**



> **OÑATI**
Aste bukaeran hasiko da herriko futbol txapelketa, 19 talderekin > **20**



> **ARETXABALETA**
Saiheskia eta cava zerbitzatuko ditu UDAk bihar, zapatua > **23**



> **ARAMAIO**
'Ezagutzen duzu zure eskualdea?' lehiaketa deitu du Zuiak > **26**

ELGETA > AZPIEGITURAK

Patronatuaren azpialdean jolastokia egin nahi da, eta goian aparkalekua

ABIAN

Idea lehiaketako arkitekto irabazleak hasi dira behin betiko proiektua idazten

GOTZAINDEGIA

Gurasoek ondo ikusten dute Udalaren asmoa; Gotzaindegiaren erantzuna falta da

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Domingo Iturbe patronatuaren etorkizuna argiago dago. Hala, Udalak deitutako ideia lehiaketak badu proiektu irabazlea eta urte bukaerarako behin betiko proiektua idatzita egon daiteke; gainera, joan den eguaztenean bertan, lehiaketa irabazi duten arkitektoak eta udal arduradunak eraikin barruan egon ziren. Oxel Erostarbe alkateak eraikin horretarako Udalak dituen asmoak azaltzen ditu: "Guk gura duguna da urteetan eskolak izan duen behar nagusiari, jolastoki estaliari irtenbidea ematea. Patronatuaren azpiko gune osoa eskolara bideratuko dugu, eta goialdean aparkaleku bat egokitu nahi genuke. Gura dugu ere Espaloiko pla-



Domingo Iturbe Patronatuaren eraikina zeharo zaharkituta eta kaltetuta dago.

ARGAZKIAK: LARRAITZ ZEBERIO

za eta goiko gunea elkartu, eta horrek ekarriko du momentu honetan eskola aurrean dauden eskailera arriskutsuak kentzea eta eskolaren irteera eskolako jolastokiarekin lotuta egotea. Eraikinean askotariko erabilerak elkartu gura ditugu, herriko taldeek izan ditzaketan beharrei

erantzuteko, 50-70 lagun batzarrak egiteko... Aterpe edo ostatu bat egiteko asmoa ere badugu, baina ikusi egin beharko da aurrekontua nora iristen den".

EGUN GUTXIKO KONTUA

Patronatuaren fundazioa hiru alde osatzen dute: Elgetako Uda-

lak, Gotzaindegiak eta Parrokia-ko gurasoek. Alkateak azken osoko bilkuran esan zuenez, "Parrokia-ko gurasoek begi onez ikusten dute Udalaren asmoa zein den, baina Gotzaindegiaren erantzunaren zain daude".

Erantzun horren zain dago Udala ere. Erostarbe "ziur" dago "egun gutxian akordioa lortuko" dutela Udalak eta Gotzaindegiak. "Gure hasierako asmoa zen Udala gunea birgaitu eta, trukean, jabetza publikoa izatea, baina legalki ez da samurra hori horrela egitea, eraikina eta inguruko lurra Patronatuari utzitako herentzia bat direlako. Hori ikusita, gure asmoa da ahalik eta epe luzeenerako akordioa lortzea eta erabilerak publikoak izatea urte horietan. Gura nuke gutxienez 50 urterako elgetarren beharrei erantzuneko erabilerak izatea gune horrek", esaten du alkateak.

MILIOI BAT EURO


Administrazio publikoen laguntza dagoeneko badauka Udalak; izan ere, dirulaguntzak jaso ditu proiektuak: Eusko Jaurlaritzak



Atea, kandaduearekin.



Teilatuaren detaile bat.



Kalteak fatxadan.

'Ikusi makusi' proiektuak irabazi du ideia lehiaketa

David Serrano Amatriainek (Iruñea) eta Maier Velez Olabarriak (Arrasate) irabazi dute Udalak deitutako ideia lehiaketa. Epaimahaiaren iritziz, "modu oso xumean eta baliabideak aurrez-tuz" konpondu dute ingurunea, eta zentro inguruan begiratoki bat sortu dute, "oso erakargarria".

Orain, proiektua idazten hasi behar dute, eta Udalak nahi du urte bukaerarako hori eginda egotea.



Ikusi makusi proiektuaren irudi bat.

LARRAITZ ZEBERIO

ESANAK

"Askotariko erabilerak batu gura ditugu, taldeendako, batzarrak egiteko..."

"Ziur nago Gotzaindegiarekin egun gutxian lortuko dugula akordioa"

Oxel Erostarbe > Alkatea

EKONOMIA > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

"Denbora eta pazientzia", Garaiak aurrera egiteko gakoak

Garaia Berrikuntza Gunearen gaztetasuna eta etorkizuna aldarrikatu dituzte Arrasaten sortutako parke teknologikoa defendatzeko

UBANE MADERA > ARRASATE

"Denbora laburra pasa da, batzuen esanetan asko izan arren, nire ustez debora askotxo pasatu beharko da halako sistema oreka eta finkatzeko eta sistema horrek aurrera egiteko. Garaia epe luzerako proiektua da. Hamar urte pasatu dira, baina bospasei urtean ibili gara obratan; eta azken hiru urteotan bakarrik izan ditugu azpiegiturak martxan, proiektua saltzeko: partzelak saldu, tokiak alokatzeko...".

Horixe da Andoni Gartzia, Garaia Berrikuntza Gunearen kudeatzaileak Garaia kudeaketaren gainean egunotan entzundako kritiken aurrean adiztera emandakoa.

Datu batzuk ere helarazi ditu: "Azken hiru urteetan 400 lanpostu sortu dira; inbertsioei dagokionez, guk 40 milioi euro baino gehiago inbertitu ditugu eta beste guztien artean 85-99 bat milioi euro hemen daude inbertitua: hainbat eraikinetan, zentro teknologikotan, unibertsitatea bera ere hemen kokatuta dago... Ikerlan ere bai, eta bailaran dauden baliabide asko hemen daude".

2008AN UTZITAKO "ZORRA"

Gartzia azpimarratu gura izan du, baita ere, orain Arrasateko Udalarari eskatu zaion 756.400 euroko diru ekarpena 2008an Garaia-ko lau bazkideei (Udalarari bera, Mondragon Taldeari, Gipuzkoako Diputazioari eta Sprilurri) eskatutako milioi bana euroko ekarpenetik Arrasateko Udalak

ordaindu barik utzitakoa dela, ze Garaia-aren parte diren gainerako hiru bazkideek 2008an bertan egin zuten-eta euren ekarpena: "Orain hartu dute erabakia guk

proposatutako formularekin: Udalak ez du diru fisikorik jarri behar, baizik eta tasa bidez, lizentzia urbanistikoa bidez... Garaia- tik ateratzen diren diru horiek berriro ere Garaia-ri bueltatuz".

MISIOA: ESKAINTZA ONAK EGITEA
Mondragon Taldeetik ateratako negozioak Garaia- ez kokatzearen arrazoien gainean, berriz,

zera adierazi du Gartzia: "Beste proiektu batzuk egin behar zirela? Bai, noski, baina nik ezin dut erabaki beste leku batzuetan egiten diren proiektuak hona etortzea. Gure misioa da eskaintza onak egitea".

Eta azkenik, Arrasateko Udalarera mehatxuka joan izanaren salaketaren harira, adierazi du hori ez dela euren "estiloa".



Garaia Berrikuntza Gunearen sarrerako eraikin beltzak, Garagartzarako bide bazterrean.

GOIENKARIA

GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAREN KONTRAKO IRITZIAK

Larregiko ekarpena eta kudeaketa txarra, udalbatzarrean salatuta

> ITZIAR LAMARAIN > ALDERDI POPULARRA

"Udalak Garaia- duen %6ri dagokion baino ekarpen handiagoa eskatzen dute, eta ekarpena fisikoa ez izan arren, Udalak ezingo du diru sarrerarik izan. Gainera, guztira 2.600.000 euroko ekarpena egingo dio Garaia-ri. Eta krisiaren aurretik ere Garaia-aren egoera ez zen oso ona. Edozein enpresatan erantzukizunak eskatzen dira. Hemen ez".

> JOXE ETXEBERRIA > ARALAR

"Nik defendatzen dut Udalaren partizipazioaren arabera kapital gehiketa. Beste enpresetan horrela finantzatzen dute. Gainera, mehatxuka etorri izan dira Garaia-ko ordezkariak udaletxera".

> JOSEBA UGALDE > ALTERNATIBA-ZUTIK

"Badira ia hamar urte Garaia- sortu zela, eta orduan esaten zuten Debagoieneko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzen lagunduko zuela; esaten zuten, baita ere, zortzi urtean han 20 ikerketa zentro eta 500 ikertzaile kokatuko zirela. Eta errealitatea hortik oso urruti dago: Garaia-ko eraikinak ia erabat hutsik daude, Mondragon Talde bereko proiektu berritzaileak Garaia- tik kanpo kokatu dira. Aurtengo jardunerako daude aurreikusita milioi euroko esplotazio galerak. Errealitate horrek Garaia- oso egoera okerrean uzten du orain, eta zalantzan etorkizunerako. Egoerak eskatzen du Garaia-aren promotore nagusiak, Mondragon Taldeak erantzukizunak har ditzala".

GERTAKARIAK > LAPURRETA ETA BORROKA

Lapurreta bat eta sei inputatu eta zaurituak eragin dituen liskarra, asteko gertakariak

Mojategiko kiroldegian, behintzat, eman diote buelta kable lapurretari eta badute argindarra

U.M. > ARRASATE

Azkenaldian Arrasaten ia astero izaten da gertakariren bat, bereziki lapurretekin lotutakoa; eta oraingo astean ere halaxe gertatu da.

Oraingo honetan, Mietz-Erreka elkarte gastronomikoan sartu dira lapurrak elkartearen atzeko leihotik, domeka gauetik astelehen goizera bitartean:

"Garbitzailea konturatu zen", kontatu dute. Eta a ze ezustekoa hartu zuen hark; izan ere, elkar- te gastronomikoa "garbi-garbi" aurkitu zuen: "Erosi berri dugun telebista, 3.000 eurotan baloratutako botila ardoak, motozerra, eta ahalegindu dira, baita ere, kafemakina eramaten, baina azken hori ez dute lortu; bestela esanda, balioa izan zezakeen edozer

eraman dute", azaldu dute elkar- tekoek. Salaketa ipini dutela ere jakinarazi dute; hain justu, Ertzaintzaren eskuetan dago ikerketa.

SEI INPUTATU BORROKA BATEAN

Baina ez da hori izan gertakari bakarra, borroka larria ere gertatu da-eta asteon Arrasaten.

Uribarri auzoko Maderas Acha lantegi ohian errumaniar jatorriko bi talderen arteko liskarra izan zen astelehenean. Ertzaintzaren txostenaren arabera, elkarri egur oholekin eraso egin eta hiru lagun larrialdietara eroan zituzten lesioekin. Poliziaren atestatuaren arabera sei lagun inputatu dituzte eta ikerketa lanetan dabilta orain.

Maderas Acha lantegi ohia errumaniar jatorriko zenbait familiaren bizilekua da.

oharrak

KINTOAK

> 1959an jaiotakoak Sarara

Azaroaren 13an egingo dute kinto ospakizuna 1959an jaiotakoek. Hitzordua 12:30erako egin dute, Montan, eta 14:30ean autobusa hartu eta Sara merenderora joango dira, bazkaltzera. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan, urriaren 27a baino lehen: 3035 0001 57 0010119477.

KINTOAK

> 1967koek, afaria

1967an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an Arrasaten. Izena emateko: 943 79 65 56 (Mirari) edo 943 77 07 66 (Maria). Komeni da ahalik eta lasterren ematea izena.

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

Jendaurreko lanean gutxienekoak

Seguru noiz edo noiz suertatu izan zaizula denda, taberna edota bestelako aurrez aurreko arreta jasoko duzun lekuren batera joan eta aurpegi txar edota erantzun desatseginekin topo egitea.

Ziur baten baino gehiagotan toki horretatik irten zarela aurrean duzun pertsona lotsagabearen jarrera horrekin nazkatuta.

Ni neu, behintzat, bai.

Beti pentsatu izan dut jendaurrean lan egitera animatzen den pertsonak gutxiene-

"Bulego publikoetakoek kontu handiagoa izan beharko lukete espresatzean"

ko errespetuzko portaera eduki beharko zukeela bezeroekiko.

Eta zer esanik ez bulego publikoetan beharrean ari direnek; azken horiek kontu handiagoa eduki beharko lukete espresatzen diren moduarekin.

Bada, gure inguruko funtzionario askok -gehiagik!- gazteei zein helduei berba egiterakoan erabiltzen duten tonu eskasak eta erakusten duten sentsibiltate urriak kezkatu egiten nau.

Denok izaten dugu egun txar bat, jakina, baina artatzen zaituen horrek behin eta berriz jarrera bera edukitzea... Zerbait gaizki dabilen seinale! Akaso, oinarriko protokolo arauak ikasi egin beharko genituzke.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Irailaren 11n Herriko Plaza dantzan jarri zuten egungo dantzariak eta dantzari ohiek. Azken zita Uarkapen izango da. GOIENKARIA

ELKARTEAK > TXIKITXU-ARROSTAITZ

Urteurreneko azken jaia, hilaren 23an

Uarkapen batuko dira dantza taldeen 40 eta 20 urteak ospatzeko; herri osoa gonbidatu dute

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Oinak dantzan deitu duten ekimenean, Txikitxu eta Arrostitz dantza taldeek aurten 40 eta 20 urte beteko dituztela ospatzeko

hainbat ekitaldi egin dituzte. Bada, azken jaia urriaren 23an egingo dute, Uarkapen. Dantza erakustaldi batekin -nola, bestela- ospatuko dute egun bere-

zia: 18:00etan hasiko da eta Txikitxu-Arrostitzeko dantzari eta txistulariez gain, gaiteroek, Arrasate Musikaleko kideek, Udalaxe taldeko txistulariek eta Erraldoi eta Kilikien Konpar-tsak hartuko dute parte.

AMAITZEKO, HERRI AFARIA
Erakustaldiaren ostean herri afaria egingo dute pilotalekuan bertan. Marga Merkader dantza taldeko arduradunak adierazi du herri osoa dagoela gonbidatuta, erakustaldirako zein afarirako. Txartelak 25 eurotan daude salgai eguaztena ezker Basati eta Kajoi tabernetan.

POBREZIAREN ASTEA

Ekonomia aldatzea aldarrikatu dute

Arrasate Zero
Pobrezia taldeak dio "alternatiba" baten "beharra" dagoela

J.B. > ARRASATE
Domekan, hilak 17, Pobrezia- ren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Hala, pobrezia-ri eragindako egoera latzak gogora ekartzeko ekitaldiak antolatu ditu Arrasate Zero Pobrezia plataformak. Atzo *Utopia* izeneko dokumentala erakutsi zuten Kulturaten, baina Arrasatetik kanpo ere egiten dute lan. Bihar, esaterako, *Desazkundera* izeneko tailerren kontsumitzeko beste era bat erakutsiko dute Eskoriatzan; Ibarrundi muse- oan, 10:00etatik 14:00etara.

EGUNGO EKONOMIA, ERRUDUN
Plataformako kideek uste dute pobrezia- ren sortzailea "egungo sistema ekonomiko- koa" dela, eta "alternatiba" baten alde egiteko "beharra" aldarrikatu dute.

> ABAROA

Nafarroako abiadura zirkuitua bisitatuko dute urriaren 20an

Abaroako erretiratu elkarte- ak irteera antolatu du urria- ren 20rako. Iratxera (Nafa- rroa) joango dira eta, beste- ak beste, Urantziako abiadura handiko zirkuitua bisitatuko dute. Eguneko lehen geldial- dia Iratxe hotelean egingo dute mokadutxo hartzeko. Gero Urantzia aldera joango dira eta zirkuitua bisitatu ostean merienda egingo dute Iruñeko Andia hotelean. Erre- tiratu guztiak oparitxo bat jasoko dute.

> ALDARRIKAPENA

"Jai egun arrotzen" aurrean eskolak izan ziren, I Aren eskutik

Ikasle Abertzaleek aldarrika- penerako eguna deitu zuten Espainian jaiegun nazionala den Pilarko Ama Birjinaren egunerako. Diotenez, euren- dako "jai egun arrotza" da eta horregatik eskolak antolatu zituzten gaztetxean. 11:00etan hasi eta 14:00ak arte bi esko- la izan ziren: herrien askape- nen borroka eta euskara eta Euskal Herriaren gainekoa. Josu Zugasti arrasatearrak gidatu zuen azken eskola.

Guraso Eskola



Seme-alaben heziketa prozesuan sortzen zaizkizuen kezkak eta zailtasunak argitu, bideratu eta konpartitzeko.

2-16 urte bitarteko
seme-alabak dituzten gurasoentzako

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Edukiak:

- Adin tarte bakoitzari dagozkion aldaketa ebolutiboak.
- Etapa bakoitzeko arazo ohikoak.
- Nola disfrutatu dezakegu etapa bakoitzaz
- Lan praktikoa. Egoera konkretuak aztertu eta antsietate egoerak erlatibizatzea.
- Berdintasunean hezteak. Harreman afektiboak. Indarkeria sexista.
- Sexualitatea

Egutegia:



Azaroa hasieran hasiko gara, astean behin ordu eta erdiko saio bat eginez, guztira 6 saio. Orduetako gehiengoak aukeraturakoa izango da. (14:45-16:15 edo 18:30-20:00)

2-5 urte - asteartean
6-11 urte - asteazkenetan
12-16 urte - ostegunetan

Dinamizatzaileak:

Hazten Psikologia, Urtxintxa Eskola eta Udal Sexologia Zerbitzua.

Lekua:

Kulturaten.

Izen ematea:

Urriak 22a baino lehen, Gizarte Zerbitzuetan edo BAZen.
Tel.: 943 25 20 07

e-posta: prebentzio@arrasate-mondragon.net



AKE Squash taldeak sortutako azken txapelketa ibarreko jokalariei zuzendutakoa izan zen; eskuman, Laura Saez, Iruñean Espainiako txapelkun izan den jokalaria.

GOIENKARIA

SQUASHA > EUSKADIKO LIGA TXAPELKETA

"Lana izango dugu ordutegia betetzen, jende asko apuntatu da"

Gaur, egubakoitza, arratsaldean hasita jokatu dute Musakolako kantxetan Euskadiko liga txapelketa; 41 lagunek eman dute izena

XABIER URTZELAI > ARRASATE

AKE Squash taldeko ordezkariak buru-belarri ibiliko dira gaur eta bihar Arrasaten egingo duten Euskadiko ligako txapelketa antolatzen: "Kiroldegiko ordezkariak eskatu diegu gaurko ordutegia ordu erdiz luzatzeko, 22:30ak arte, jende askok eman du-eta txapelketan izena. Eraba-

teko arrakasta izan du txapelketak, ia atsedetik hartu barik jarraian jokatu dituzte partidu guztiak", adierazi digu taldeko ordezkari Iñaki Uribe txapelketa.

Euskadiko liga txapelketak bederatzi jardunaldi ditu eta azkenurreko saioa izango da asteburukoa: "Guztira, 41 lagu-

nek eman dute izena, eta Kantabriatik ere etorriko dira jokalariek. Hala, gaur 18:00etan hasita sailkapen fase bat jokatu dute, eta hor sailkatzen direnak ranking orokorrean aurrean dabiltzanekin batera nahastuko ditugu, ondoren partiduetako ordu-tegiak zehazteko".

BIHAR, GOIZEAN HASITA

Gaur ahal dituzten partidu gehienak jokatu dituzte eta bihar 09:00etan hasita jarraituko du txapelketak: "Asmoa da bazkalordua baino lehen sailkapen fase-

ko partidu guztiak erabakita uztea. Ondoren, bazkaltzera joango gara denok eta 17:15ean jokatu dituzte txapelketako finalak.

Hala, 17:15ean hasita jokatu dituzte kontsolazio partiduak eta final handia 18:00etan hasiko dute.

IKUSLEENDAKO OPARIA

AKE Squash taldeak ikusleak gonbidatu nahi ditu txapelketa jarraituz. Eta gonbidapena sari batekin ere joango da: "Ikusleen artean squasheko erraketa bat zozketatuko dugu".

KONTUAN HARTZEKO

Laura Saez, Espainiako txapelkun

Joan den asteburuan Iruñeko San Juan elkarteko kantxetan jokatu zuten Espainiako bigarren mailako squash txapelketa, bai emakumezko eta bai gizonezkoetan, eta AKE Squash taldeko ordezkari bat gorenera iritsi zen.

AKE Squash taldeko Laura Saez eskoriatzarra -goiko argazkian eskuman- partidu guztiak irabazita iritsi zen finalerdietara. Eta azken txanpa horretan ere aurrera egin zuen, finaleraino. Azken partidu erabakigarrian Iruñeko Rosa de Andres mendean hartuta eskuratu zuen Saezek estatu mailan lortzen duen lehen garaikurra -lehenengo parte-hartzean.

ESANAK

"Musakolako kiroldegia apur bat beranduago ixteko eskaera egin dugu; partidu mordoak jokatu behar ditugu"

Iñaki Uribe txapelketa > AKE Squash taldeko ordezkaria

"Ikusleak gonbidatu nahi ditugu txapelketa ikustera, eta haien artean erraketa bat zozketatuko dugu"

ARETO FUTBOLA

Asteburuan hasiko dute Zaldibarko txapelketa

X.U. > ARRASATE

Ordu gutxi barru Zaldibarko pilotalekuan zelai erdiko sakea egingo dute, abian egongo da Zaldibarko 49. aldia. Hala, eguazten iluntzean taldeen izenak hartzen ibili ostean, dagoeneko www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com helbidean izango dituzue lehenengo jardunaldiko partiduak ikusgai, baita kalean egongo diren karteletan ere.

Datorren astetik aurrera, berriz, Arrasateko kirolen orri honetan izango duzue asteburuko jardunaldia, ordutegia eta sailkapenak. Bestalde, antolatzaileek aurten telefono zenbaki bat jarri dute jokalariek izan ditzaketan zalantzak argitzeko: 634 447 975.

> ERRUGBIA

Kanpanzar ART taldeak Getxo hartuko du bihar

Joan den asteko atsedenaldiraren ostean, Kanpanzar ART taldeak bihar, zapatua, jokatu du Mojategin, 16:00etan, Getxoren kontra. Emakumezkoen Arrasate/Durango taldeak Getxon jokatu du (18:00). Gazteek eta kadeteek, azkenik, etxean jokatu dute bihar eguerdian.

> ESKUBALOIA

Ford Mugarrik etxetik kanpo jokatu du berriro

Joan den astean Gasteiztik esku hutsik itzuli ziren Edu Orgazen mutilak, eta oraingo asteburuan harrapakin hobe lortzeko egingo dute Romora (Bizkaia) bidaia, bihar. Orgazen mutilek 18:30ean jokatu dute liga-ko hirugarren jardunaldia, orain ere etxetik kanpora.

arbolapeta

arrasate

beinke

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

DANTZA > IKUSKIZUNA

'Momentari', bizitzaren detale txikiez gozatzeko

Nats Nus talde kataluniarraren eskutik dantza ikuskizuna izango da domekan Amaian (17:00)

J.B. > ARRASATE

Eskarmentu handikoa da Nats Nus dantza talde kataluniarra. 1987an Toni Mira dantzari eta koreografoaren eskutik sortua, bestelako lengoia eszenikoak erabili izanagatik bereiztu izan dira. Horrez gain, obretan ikusentzunezkoak eta hizketak txertatu izanak ere zeresana eman die euren lanei. Bada, oraingotan, *Momentari* ikuskizunarekin datoz Arrasatera; domekan izango da, Amaia antzokian (17:00).

Familia giroan gozatzeko ikuskizuna da *Momentari*. Hau da, hurrek gustura jarraitzeko

modukoa eta gurasoen sormena freskatzeko balioko duena.

AMAIERA BAKO SORMENA

Sormen handiz egindakoa eta sormena garatzeko gonbita da ikuskizuna. Tari izeneko pertsonaia bitxi batek gidatuko du ikuslea ordubetera helduko ez den bidaian. Obrak zoriona dakarten une txikien bilduma erakutsiko digu, eta, horretarako, Amaia antzokiko agertoki atzealdean pantaila bat egongo da. *Momentari*-k dantza ikuskizun onenaren Feten aipamena jaso zuen iaz.



Momentari dantza ikuskizuneko une bat.

GOIENKARIA

> MUSIKA

Des-kontrol eta Never Surrender taldeak Berlinera joatera gonbidatu dituzte, abenduaren 11n jotzeko

Gaur egun Euskal Herriko punk-oi! musikaren erreferenteetako bi diren Des-kontrol eta Never Surrender taldeak Berlinera joango dira abenduko bigarren aste bukaeran: Berlingo Clash aretoan joko dute, abenduaren 11n. Euren musika zuzenean erakusteko asmoz joango dira Alemaniara. Clash aretoko ardura-dunak antolatuko dituzte kontzertua. Izan ere, aspalditik ezagutzen dute elkar, eta Slamtilt! talde berlindarreko baxu-jotzailea ere bada. Slamtilt! taldeak ere joko du arrasatearrekin batera:

Aste bukaerako irteera egingo dute: egubakoitzean heldu, zapatuan jo eta domekan itzuli.

Cool Circus > Musika taldea

"Abeslari berri bat hartzeak hutsetik hastea ekarriko luke, eta ez dugu horretarako gogorik"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Zirkua behin betiko itxiko da, Cool Circus talde arrasatearrari lau ikuskizun geratzen zaizkio. Urriaren 31n, Abadiñoako saioaren ostean, *karpa* jaso eta betiko utziko gaituzte. Julio Hernandez (Arrasate, 1981) bateria-jotzailearekin egon gara agurraren arrazoiez berbetan.

Gaur Lelenarock jaialdian eskainiko duzuen kontzertuazuen azkena izango da Arrasaten. Zergatik utzi behar diozue jotzeari?

Ez da erraza azaltzeko. Hasieratik arazoak izan ditugu elkar-tu eta entseatzeko; kide batzuk Arrasatetik kanpo bizi dira eta nork bere bizimodua darama.

Hala ere, azken arrazoia eta garrantzitsuena da abeslaria, lan kontuengatik, Euskal Herrietik kanpora bizi izatera joango dela.

Ez duzue abeslaria ordezkatzeko pentsatu?

Orain bertan ez dugu konfiantzazko pertsonarik ezagutzen *Txarli* ordezkatzeko. Gainera, ez dugu gogorik abeslari berri bat bilatzen hasteko. Izan ere, abeslaria izan ohi da talde bateko erreferentea. Hau da, gitarra-jotzaile bat ordezkatzeko ez da horren zaila, baina abeslari berri bat hartzeak hutsetik hastea ekarriko luke. Alde horretatik begiratuta, taldearen ibilbidea hemen amaitzea erabaki dugu.

Urria izango da zuen agurraren hilabetea. Zenbat kontzertu emango dituzue agur esateko?

Bat-batean etorri da kontua eta ez dugu denborarik izan gano-rakzo agurririk prestatzeko. Hala, lau kontzertu lotu ditugu: gaur Taupa tabernaren kanpoaldean joko dugu, urriaren 16an Urretxuko gaztelekuan, urriaren 22an Altsasuko Gernika tabernan eta, azkenik, hilaren 31n Abadiñoako gaztetxean. Azken kontzertua Bitter Honey taldearekin izango da. Oso harreman ona dugu eurekin eta talde berezia da gureta-



Cool Circus, egungo boskotea: Iñigo, Yagomoon, Txarli, Jul eta Erras. GORKA MORRAS

LELENAROCK JAIALDIA

Herriko rocka erakusteko lau proposamen

Lelenarock jaialdia egingo da gaur eta bihar Taupa tabernaren kanpoaldean. Arrasateko lau taldek joko dute eta rock doinuak izango dira nagusi lau era ezberdinetan aurkeztuta: gaur Los Cretinos eta Cool Circus-ek joko dute. Los Cretinos-ek garage-rocka eta punka uztartzen ditu eta Cool Circus-en, aldiz, hard rockak hartzen du pisu handien. Bihar, bestalde, Los Galerna taldearen surfa eta Bitter Honey-ren rock gozoa izango dira protagonistak. Arratsaldean izango dira kontzertu guztiak, 18:00etan hasita. Eta, noski, ez da ezer ordaindu beharko kontzertuez gozatzeko.

ko: talde ezin aproposagoa da Cool Circusen amaiera festan parte hartzeko.

Zuen herrian emango duzuen gaurko azken saiorako ezer berezirik prestatu duzue?

Kantu gehiago jotzea pentsatu dugu, baina ezer berezirik ez. Noski, betiko ikuskizuna ez da faltako; dena ematera irtengo gara. Gainera, San Juan jaietako arantzaxoa ere kendu gura dugu, zaparrada batengatik hiru kantu bakarrik jo genituen-eta.

"Azkena Bitter Honey taldearekin joko dugu; bereziak dira guretako, agurrerako aproposak"

Zerbait gaineratu nahi?

Jendea animatu gura dugu azken kontzertuetara etortzeko, bereziki lagunei. Ea behingoz etortzen diren!

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

Krisia gai hartuta egingo dute San Joxepen kultura hamabostaldia

Astelehenean, hilaren 18an, hasi eta 30era bitartean egingo du hamabostaldia erretiratuen elkarteak

Krisia zentzurik zabalenean aztertuko dute: ekonomikoa, kulturarena, balioena...

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkarteak XIV. hamabostaldi kulturala antolatu du. Astelehenean, hilaren 18an, abiatuko da, 18:30ean, eta hilaren 30era arte askotariko hitzaldi, ekitaldi, lehiaketa eta irteerataz gozatu ahal izango dute San Joxepe elkartearen egoitzara joaten direnek.

'KRISIA, ZE KRISI?'

Krisia izango da aurtengo hamabostaldiaren ardatz nagusia: krisia zentzurik zabalenean, Carlos Arrondo San Joxepe elkartearen lehendakariak azaldu duen moduan: "Krisi kontzeptua esparru askotara zabal daiteke. Azken boladan, batik bat, ekonomikoaz berba egiten bada ere, zabal daiteke etikara, balioetara, kulturara... Hori horrela, *Krisia, ze krisi?* izenburua eman diogu kultura hamabostaldiari, eta horren bueltan jarduteko hiru hitzaldi antolatu ditugu".

ESANAK

"Krisi kontzeptua esparru askotara zabal daiteke: etikara, balioetara... Hori landuko dugu hamabostaldian"

Carlos Arrondo > San Joxepeko presidentea

Lehenengo hitzaldia hilaren 18an izango da eta hamabostaldia zabaltzeko balioko du. Ohi bezala, irekiera ekitaldian (18:30), elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak eta Udaleko ordezkariak egongo dira. Irekiera hitzaldiari dagokionez, Jenaro Lekuona abadeak egingo du. Hain justu, *Poztasuna nola lortu bizitzan* izeneko hitzaldia egingo du.

Krisiarekin lotutako lehenengo hitzaldiari dagokionez, martitzenean izango da, 19:00etan, Miguel Altunan. Arturo Garcia Etika irakasleak egingo du, *Ekonomia eta lan-krisia* gaiaren gainean. Bigarrena Jose Maria Setien Donostiako gotzain emerituak egingo du, hilaren 21ean, eta kultura eta balioen krisiaz berba egingo du.

Krisiarekin lotutako hirugarren saioa mahai-ingurua izango da. Arturo Garcia eta Jose Maria Setienek hartuko dute parte eta *Krisia... humanizatorako aukera* gaia landuko dute. Idazkaritza Sozialeko zuzendari Patxi Meabe moderatzaile dutela.

IZENEMATEAK ZABALIK

San Joxepetik gogora ekarri nahi diete interesatuei irteera kulturalerako eta hilaren 30ean hamabostaldiari amaiera emango dion bazkariako izena eman behar dela idazkaritzan.

Bazkariari dagokionez, Zabala jatetxean egingo dute eta joan-etorrirako urbanoa egongo dela azpimarratu dute zuzendaritza-kideek.

DATUA

14

EKITALDI

Hamabostaldi kulturalaren barruan 14 ekitaldi egongo dira, ia bat eguneko. Besteak beste, hitzaldiak, antzerkia, jolasak, erakusketa, bazkaria...

Egitaraua

18, astelehena

18:30 Hamabostaldiaren hasiera, kartelaren aurkezpena eta hitzaldia. Jenaro Lekuona abadeak *Poztasuna nola lortu bizitzan* izango du hizpide San Joxepe elkartearen.

19, martitzena

19:00 Hitzaldia: Arturo Garcia etikako irakasleak *Ekonomia eta lan-krisia* izango du hizpide Miguel Altunako areto nagusian.

20, eguaztena

16:00 Irteera Arantzazuko Gomiztegi baserrira. Autobuseko eserleku kopurua mugatua denez, komeni da txartela lehenbailehen hartzea, elkarteko bulegoan. Autobusa Ibargaraiko geltokitik irtengo da.

21, eguena

19:00 Hitzaldia: Jose Maria Setien Donostiako gotzain emerituak *Kultura eta balioen krisia* izango du berbagai Miguel Altunan.


22, egubakoitza

16:30 Antzerkia: Oñatiko Pake Leku erretiratuen Ikusi Makusi taldeak Asun Artzuagaren *El jardín de la alegría* izeneko antzezlan egingo du. Sierbetako elizan izango da.

18:00 Erakusketa: hilaren 24ra arte, elkarteko kideek egindako eskulan, margo, argazki, zeramika eta egurrezko artisautez lanak egongo dira ikusgai San Joxepeko egoitzan. Orduetgia da: egubakoitzetan 18:00-20:30 eta zapatu eta domeketan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

25, astelehena

17:30 Herriko Lehen Hezkuntzako ikasleen lehiaketa historiko-kulturalerako sari ematea San Joxepe elkartearen.



Hamabostaldiko kartela.

26, martitzena

19:00 Mahai-ingurua: Arturo Garcia eta Jose Maria Setienek *Krisia... humanizatorako aukera* delako gaia izango dute hizpide. Moderatzaile lanak Patxi Meabe Idazkaritza Sozialeko zuzendariak egingo ditu. Miguel Altunan izango da.

27, eguaztena

17:30 Irteera Gasteizera. Bisita gidatua egingo dute Santa Maria katedralerako lanak ikusteko.

28, eguena

17:30 Jaia: dantzaldia eta ogitartekoak San Joxepen.

29, egubakoitza

16:00 Belaunaldien arteko xake txapelketa San Joxepen.
16:00 Herri jolasak: bola jokoak, toka, igela... San Joxepen.
19:30 San Joxepe abesbatzaren eta Aretxabaletako Basotxo abesbatzaren emanaldia Santa Marina parrokan.

30, zapatua

14:30 Herri bazkaria, hamabostaldi kulturala amaitzeko. Zabala jatetxean. Opariak eta dantzaldia ere egongo dira. 14:00etan urbanoa abiatuko da igerileku ondotik eta 19:00etan itzuliko da.

GAZTEAK

Ur jolasak bihar, zapatua, Agorrosinen

M.B. > BERGARA

Kirol Zerbitzuak antolatu du ekimena eta 17:00etatik 19:00etara izango da. Adinaren arabera bi mailatan ibiliko dira umeak igerilekuan: 8 urtera artekoak igerileku txikian ibiliko dira eta 8 urtetik 14 urtera artekoak, berriz, igerileku handian. Ur-topaketa horietan parte hartzen dutenek askotariko jolasak egin ahal izango dituzte: jolas gidatuak egongo dira, uretako saskibaloia, salto lehiaketak, harrapaketa jokoak... Eta, horrez gain, batera hainbat puzgarri ere egongo dira.

Kontuan hartzekoa da igerileku handiko lau kale bide-ratuko dituztela ur jolasetara.

GAZTEAK

DJ jaialdia gazteentzat bihar Zabalotegin

M.B. > BERGARA

Jon Urbieta disko-jartzaileak jarriko du musika bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan Udalak antolatutako DJ jaialdian.

18:30etik 21:30era izango da jaialdia eta 12 eta 14 urte arteko neska-mutikoendako da. Dantza egin eta ondo pasatzeko aukera izango dute han gaztetxoek.

Oraingoaz, urte bukaera arteko egutegia dago zehaztuta, baina Udaletik aurreratu dute jarraipena izango duela ekimenak datorren urtean. Hain zuzen ere, aurtengo hurrengo jaialdiak urriaren 30ean, azaroaren 13an eta 27an eta abenduaren 11n izango dira.



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

AUZOAK > ELOSUA

Azken urteetako feria jendetsuena egin zuten Elosuan

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Pozik dago Ainhoa Beristain, Elosuko auzo-alkatea, aurtengo feriak izandako erantzunarekin: "Behe-lainoa eta lanbroa egin bazuen ere, azkeneko urteetako jendetsuena izan da; primerako giroa egon da. Oso pozik gaude izandako erantzunarekin eta eskerrak eman nahi dizkiegu etorri ziren guztiei eta, nola ez,

laguntzen jardun zuten guztiei", esan du Beristainek. Saltzaileak ere pozik joan ziren martitzenean Elosuko feriatik. Plazan 40 bat jaki postu jarri zituzten, eta, Beristainek gehitu duenez, "asko saldu zuten; salmenta leku ona dela diote". Elkartean eta tabernan ere asko saldu zutela gehitu du auzo-alkateak: "13:30erako ia janari barik geunden".



Talao eta ogia erosten.

TXOMIN MADINA



Umeek pozik ikusten dituzte animaliak.

T.M.



Jaki postuak plazan jarri zituzten; irudiko txerriki postua, esaterako.

T.M.

oharrak

IKASTAROA

> **Egur taila ikastaroa azaroan hasiko da**

Izenematea zabalik dago taila eskolak Zabalotegi 11 behean duen egoitzan, astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:00 ordutegian.

DEIALDIA

> **Obra eta Zerbitzuetako pioi lan poltsa osatuko dute**

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako pioi espezialisten lan-poltsa osatzera doa Udala lehiaketa-oposiziobidez. Bete beharreko baldintzak dira, besteak beste: 16 urte izatea, eskola ziurtagiria edo pareko titulua eta B motako gida baimena. Eskariak aurkezteko epea urriaren 25ean bukatuko da. Oinarriak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta www.bergara.net helbidean.

BERTSO AFARIA

> **Artatse elkarteko bertso afarirako txartelak salgai**

Urriaren 23an, zapatuan, izango da urtero Artatsen egiten duten bertso afaria, eta txartelak salgai jarri dituzte Kortazar eta Arrano tabernetan, 20 eurotan -16 euro ikasleek eta langabezia daudenek-. Bertso afaria 21:00etan izango da eta Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariak parte hartuko dute.

POLITIKA > EUSKAL PRESOK

Jose Luis Elkoro aske utzi zuten atzo eguerdian

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Jose Luis Elkoro etxean dago. Atzo eguerdian utzi zuen bergararrak Martuteneko espetxea. Senitartekoak zain zituen espetxe kanpoan eta haien laguntzarekin egin zuen etxerako bidea. "Aita ondo ikusi dugu. Fisikoki eta psikologikoki indartsu dago, eta oso pozik gaude", esan zigun Paulo Elkoro haren semeak. 16:30 aldera heldu ziren Bergarara eta ordu-rako zain zituen hainbat herritar, atari aurrean. Horiek guztiak agurtu eta etxean sartu zen.



Jose Luis Elkoro etxeko atarian herritarren ongietorria jasotzen.

MIRIAN BITERI

2007TIK KARTZELAN

Jose Luis Elkoro 18/98 sumario-agatik atxilotu zuen Guardia Zibila 2007ko abenduaren 5ean Bergaran. Dueñasko (Palentzia) espetxera eraman zuten, eta han

egon zen abuztuaren 6an Martuteneko espetxera eroan zuten arte. Espetxean egon den denboran haren aldeko plataforma sortu dute herrian eta aska dezaten eskatuz ekimen ugari egin dute.

ARKUPE
AHOLKULARITZA

Negoio berrien hasieran erabateko aholkularitza

**Fiskalitatea
Kontabilitatea
Laborala
Inbertsioen aholkularia**

BERGARA
Labegaraieta industrialdea
Telleria, 6 bis, 2. bulegoa

ARRASATE
Garibai etorbidea 4

Tel.: 943 76 26 09 / 943 79 94 72

Faxa: 943 76 38 53

arkupe@arkupe.net - www.arkupe.net

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea

Eguneko menua A
7,50 €

Eguneko menua B
8,50 €

☎ **943 25 06 77**

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ATLETISMOA > ANTIXINTXIKA LASTERKETA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

Aitor Rementeria: "Iazko marka onari eustea da gura duguna"

Iaz 504 lagunek hartu zuten parte Antxintxiketan Triatloi Taldeak antolatutako lasterketan; azaroaren 6an marka horri eutsi nahi diote

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den asteburuan Arrasate-Oñati proban egon ziren ibarreko korrikalariak -eta animatzen diren gainontzeko guztiak- azaroaren 6an dute hurrengo hitzordua, Antxintxika lasterketan (Soraluze-Bergara).

Iaz aurreikuspen guztiak gainditu egin ziren, eta 504 lagun irten ziren Soraluzetik, 10 kilometroko lasterketari aurre egiteko gertu. Eta, zenbateko horri eustea da antolatzaileen helburua: "Saso honetan jende asko dabil korrika, ikusi bestela joan den astean Arrasate-Oñatin zenbat jende egon zen. Esango nuke aurreko urteotako parte-hartze kopurua bikoiztu egin zutela, eta Behobia-Donostia proba gertu dagoenez, uste dugu iazko zenbatekoari eustea posible

delat", adierazi du Antxintxika Triatloi Taldeko ordezkari Aitor Rementeriak.

HAINBAT ALDAKETA

Lasterketari dagokionez, azaroaren 6ko probak hainbat aldaketa izango ditu: "Hasteko, irteera Soraluzeko plazan egin beharrean gorago egingo dugu, ikastola parean. Izan ere, 500 lagun irteke plaza ondoko kaleak estuegiak dira, eta piboteekin norbait min har dezake. Gainera, hasi eta berehala aldapa gora bat dago, eta hori ere kendu egin nahi izan dugu, lasterketa lauagoa egiteko, azkarragoa".

Irteeran bakarrik ez, ibilbidean zehar ere hainbat aldaketa egongo dira: "Iaz baino tarte txikiagoa egingo dugu bidegorritik. Soraluzetik Osintxura iris-



Iazko lasterketako une baten, korrikalariak azken metroetan.

J.A.

ten garenean, bidegorritik jarraitu beharrean Osintxuko harrizko zubia gurutzatu eta Osintxu erditik jarraituko dugu. Ondoren, Soraluce enpresa parean bidego-

rrira sartuko gara berriro ere, eta Mekolaldeko zubi berrian errepidera irtengo gara berriro. Aldaketa horiek egin ditugu ibilbidea lauagoa izan dadin eta gurpildun aulkian joango direnek zailtasun gutxiago izan ditzaten".

IZENEMATEA ZABALIK

Dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Bergaran Lazkano oinetako dendan eta Goiena aseguruaren bulegoan eman daiteke izena, eta Arrasaten Goiena aseguruaren bulegoan. Horrekin batera www.antxintxika.org webgunean. Kontuan izan behar da bakarka edo koadrilaka ere eman daitekeela izena.

ESANAK

"Ibilbideko aldapa gorak saihestu nahi izan ditugu, lasterketa azkarragoa egiteko asmoz"

Aitor Rementeria > Antolatzailea

Gurpildun aulkian dabilzanak lasterketan lehiatzen

Antxintxikako lasterketan lehenengo aldiz hartuko dute parte gurpildun aulkian lehiatzen direnek. Federazioarekin elkarlanean antolatu dute euren lasterketa: "Antxintxikako aurreko probatik gura genuen gurpildun aulkian dabilzanendako ere proba antolatu, baina zailtasun handiak egoten dira. Orain, Federazioaren laguntza izan dugu, eta berezia izango da. Hamar lagun espero ditugu irteera puntuan".



Atleta bat gurpildun aulkian iazko Behobia-Donostian.

GOIENKARIA



Soraluze BKEko jokalariek Labegaraietan, artxiboko irudian.

GOIENKARIA

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Lehenengo puntuen bila, Labegaraieta kiroldegian

X.U. > BERGARA

Soraluce BKE taldeko ordezkariak Hondarribia izango dute bihar aurrean (18:00, Labegaraieta). Josetxo Muniategiren ustez, euren mailako taldea: "Ikusi ditut jokatzeko, eta ez dut uste aurrean ibiliko direnik. Gure moduan, erdiko postuengatik borrokan ibiliko da, atzealdera ez joateko borrokan".

Hala, Bergarakoak denboraldiko lehen bi puntuen bila kan txaratuko dira bihar: "Realaren moduan, gu ere hasi gara esaten finalak ditugula aurrean [Barre]. Kategoria honetan dagoen alde da bost minutu txar izanez gero hainbat gol sartzen dizkigutela eta gero ez dagoela horri buelta emateko modurik. Ezin dugu horren irregularrak izan".

TXIRRINDULARITZA

Lamikiz, hirugarren Europako txapelketan

X.U. > BERGARA

Bergarako txirrindulari Koldo Lamikiz-Gorlan beterano mailan askotan izan da garaille- Mallorcan da egunotan, beterano mailako Europako txirrindularitza txapelketan esku hartzen.

Egunotan hainbat lasterketa egin dituzte Balearretan, modalitate ezberdinetan, eta astelehenean egin zuten Masters kopan Bergarako txirrindulari taldeko ordezkaria hirugarren sailkatu zen, Fred de Kinkelder eta Joop de Ribbers holandarren atzetik. Bi horiek batera iritsi ziren helmugara (1.11.57) eta 28 segundora iritsi zen Lamikiz. Denboraldi biribila Bergarakoarena.

> FUTBOLA

Euskal ligako gazteek etxean jokatu dute Santurtziren kontra

Ohorezko erregional mailako taldeak etxetik kanpora jokatu du, Pasaiaren kontra, Don Bosco futbol zelaian (zapatua, 16:30).

Gazte mailan lehiatzen diren Bergarak, berriz, etxean jokatu du Santurtziren kontra. Norgehiagoka bihar izango da Agorrosinen (16:30).

> SASKIBALOIA

Soraluce BKE taldeak Irunera egingo du bidaiaria domekan

Joan den astean atsedendia izan ostean, David Urbina-ren mutilek Azpeitiko kiroldegian jokatu dute domeka arratsaldean, 17:00etan, Errotaundiren kontra.

Orain arte denboraldi hasiera oso ona egin dute, jokatu dute bi partidua ira-bazi egin dituzte-eta.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 94 39 18

MUSIKA > ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

Organoa eta biolina batuko dituzte bihar, zapatua, San Pedro parrokian

Josep Maria Mas organo-jotzaileak eta Josep Maria Manresa biolin-jotzaileak egingo dute emanaldia

M.B. > BERGARA

Organoa eta biolina batuko dira datorren zapatuan San Pedro parrokian egiten diharduten organo erromantikoaren zikloan. Ohi bezala, 20:00etan izango da emanaldia eta bi musikari kataluniarrek parte hartuko dute: Josep Maria Mas organo-

jotzaileak eta Josep Maria Manresa biolin-jotzaileak.

Mas organo katedraduna da Liceuko Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan, Bartzelonan. Era berean, organista titularra da Reusko Sant Pere elizan eta zuzendari artistikoa eliza horretan urtero antolatzen diren nazioarteko organo zikloetan. Hainbat CD grabatu ditu.

Josep Maria Manresa Montblanceko Udaleko Musika Eskolako zuzendaria eta biolin irakaslea da. Europako zenbait jaialditan hartu du parte hainbat orkestra eta ganbera taldeekin, besteak beste.



Ume zein nagusiek txotxongiloak manipulatzeko aukera izango dute erakusketan.

GOIENKARIA

ZINEMA > ZINEKLUBA

'Hierro 3' filma domekan gaztetxeko zineklubean

M.B. > BERGARA

Urrian gaude eta dagoeneko abian da gaztetxeak antolatzen duen zinekluba.

Antolatzaileek iaizko dinamika berarekin jarraitzeko asmoa dutela aurreratu dute, eta, hori horrela, domeketan film bat ikusteko aukera egongo da, 18:00etan, gaztetxean, doan.

Etzi, Kim Ki-duk zuzendari hegokorearraren *Hierro 3* filma emango dute: Tae-su txiroa da eta etxeak okupatzen ditu

haien jabeak kanpoan dauden bitartean. Sun-hwa modelo ohia da eta senarrak jo egiten du. Patuak biak elkartuko ditu.

TALDE IREKIA DA

Gaztetxetik azpimarratu dute zineklubeko lantaldea irekia dela eta interesa duten guztiek har dezaketela parte bertan. Horretarako, egubakoitz arratsaldeetan gaztetxean egiten duten batzarrera joatea besterik ez dago.

> ANTZERKIA

Umeendako 'Mamu txikiak' kale antzerkia egongo da gaur San Martin plazan, 18:00etan

Oihulari Klown taldeak egingo du kale antzerki hori. Lanaren gaia da umeek mamuei dieten beldurra. Hori horrela, antzezlanak rolak aldatuko ditu, eta mamuak eurak izango dira umeen beldur - Patxistein, Burubiltxo, Piztitxu eta Bikoitz-. Batik bat, 2 eta 6 urte arteko umeendako lana da.

> ZINEMA

'Rompedientes' eta 'Agora' film ezagunak emango dituzte domekan Zabalotegi aretoan

Domekan, umeendako saioan (17:00), Michael Lembeck zuzendariaren *Rompedientes* filma emango dute Zabalotegi aretoan. 7 urtetik gorako umeendako komedia fantastikoa da.

19:30ean, berriz, Alejandro Amenabarren abenturazko *Agora* filma emango dute -13 urtetik gorakoendako da.

> MUSIKA

Udal Musika Bandak hileroko kontzertua egingo du domekan Udal Pilotalekuan, 12:30ean

Udal Musika Bandak urriko kontzertua egingo du domekan, 12:30ean, Udal Pilotalekuan. Sei obraz osatutako emanaldia egingo du musika bandak. *Minerva*, *Bizkaitik bizkaira*, *Ballet Egip-tien*, *Virginia* eta *Balada triste de trompeta* piezak joko dituzte, hain justu ere.

TXOTXONGILOAK > ERAKUSKETA

Txotxongiloak biluztu egingo dira Aroztegi aretoan

'Fantasia mekanikoa' izeneko erakusketa egongo da ikusgai gaur hasi eta hilaren 24ra arte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Taun Taun taldearen eskutik eta nazioarteko X. txotxongilo mostraren barruan, *Fantasia mekanikoa* delako erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

Erakusketa horretan barrena 20 txotxongilo erakutsiko dituzte. Eta ez hori bakarrik, ikusleek ukitu ere egin ahal izango dituzte, txotxongilook manipulatzen ahal izango dituzte, hain justu ere.

Herensuge, dinosauro, eltxo, robot zein begi edo esku soilei bizia eman ahalo diete ikusleek Diego Damian Gilardi argentinarraren erakusketa horretan.

Gilardi aditua da zinema, telebista eta antzerkirako panpinak egiten eta erakusketa horrekin egin nahi izan duena da ikusleei normalean ikusi ezin izaten dutena erakutsi: pertsonaia askori bizia ematen dien prozesua, barru mekanikoa, hain zuzen ere. Gainera, erakusketa osatzen

duten 20 txotxongiloekin batera 20 diseinu orri ere egongo dira.

Erakusketa ikusgai egongo da hilaren 24ra arte, martitzene-tik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

TXOTXONGILO MOSTRA

Erakusketa hori Taun-Taun taldeak bi urtean behin antolatzen duen nazioarteko txotxongilo mostraren testuinguruan antolatu dute. Mostra hilaren 22tik 24ra izango da eta datorren astean aurkeztuko dute.



laz, *Gertuago* izeneko erakusketa egin zuen Aroztegi aretoan.

GOIENKARIA

PINTURA > ERAKUSKETA

Laia Bedosen lanak ikusgai Soraluzeke Oreka Art aretoan

Gaur hasi eta hilaren 31ra arte 'Hemen!' bildumako lanak erakutsiko ditu

M.B. > BERGARA

Laia Bedos Bergaran bizi den Blanesko (Katalunia) artistak erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Soraluzeke Oreka Art aretoan.

ZINTZOTASUNARI OMENALDIA

Hemen! du izenburua artista gaztearen erakusketak. "Erreferentzia egiten diot orainari eta gaur egun bizi naizen den lekuari, Euskal Herriari", esan du Laia Bedosek. Eta gehitzen du: "Ikusgai jarri ditut *hemen* dagoena erakusteko egin ditudan azkeneko koadroak". Bukatzeko dio: "*Hemen!* erakusketa da zintzotasunari eta bizi izateari omenaldia".

Soraluzen ikusgai jarri dituen lanak abstraktuak dira; abstraktuak, artista ez delako saiatu inguratzen gaituen errealitatea imitatzen. Kolorean, konposizioan, testuran...oinarritu da ikusten ez dena -baina bai sentitua- adierazteko. Haren margoetan, emozioen eta bizi egoeraren gainean ikertzen du. Haren esanetan, "margotzea da adierazteko, ulertzeko eta elkarbanatzeko beharra. Lasaitasuna eta bizi izateko gogoa bilatzen duen barruko mundu bat margotzen dut. Margoa osasuna da".

Erakusketaren ordutegia hauxe da: astelehene-tik egubakoitzera 18:30etik 20:30era eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

KIROLA > FUTBOLA

Aste bukaeran hasiko dute beteteranoek futbol txapelketa

B taldeko lau partidu jokatu dituzte bihar Azkoagainen

2010-11 denboraldian 19 talde lehiatuko dira, iaz Joxelyk lortutako txapelaren bila

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aste bukaeran hasiko dute herriko futbol txapelketako 2010-11 denboraldia. 19 talde lehiatuko dira, maiatzera arte, iaz Joxelyk (beheko argazkian) lortutako txapelaren bila.

Bihar eta etzi, B taldeko lehenengo jardunaldiko partiduak jokatu dituzte (ikus ondoko taula) eta urriaren 22-23ko aste bukaeran A taldeak hasiko du denboraldia. Urriaren 30 eta 31ko aste bukaeran, berriz, ez dute partidurik jokatu, azaroaren 1a, Domu Santu eguna, astelehena delako.

EGUAZTENETAN BATZORDEA

Denboraldi berrian iaz baino talde bat gehiago lehiatuko da: Pake-tinaikos taldeak bihar jokatu du lehen partidua. Gainerako taldeak iazko berberak dira.

Beteranoen txapelketako antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte taldeak, zozketa bidez: A taldean hamar talde lehiatuko dira eta B taldean bederatziz. Hori horrela, bi astean behin talde batek atsedena hartu beharko du.

Zozketa bidez erabaki zuten baita ere zuzendaritza batzordean egongo diren taldeak. Bundeswehr, Jai Ari, Paketinaikos, Dollygans, Kalañataray eta

DATUA

475

JOKALARI

Horiek dira, gutxi gorabehera, herriko futbol txapelketako 19 taldeetan parte hartuko duten jokalariek. Talde bakoitzean gehienez 25 jokalarik lehiatuko dira.

Ankarteko taldeetako kide bana eguazteneko bilduko dira aste bukaerako kartelak egiteko. Aloña Mendiren egoitzan biltzen

dira, 19:30ean. Sasquatch eta Joxely taldeak ordezkioak izango dira.

BI FASE

Aldaketa barik, beteteranoen txapelketa bi fasetan jokatu dute: lehenengoan, talde guztiak elkarren kontra lehiatuko dira. Multzo bakoitzeko lau talde onenak bigarren faserako sailkatuko dira, eta elkarren artean jokatu dute finalerdietarako txartelak eskuratzeko. Aldiz, bosgarren lekutik atzera sailkatutakoek kopa txapelketa jokatu dute bigarren fasean.

SAN MIGELETAKO TXAPELKETA

Bestalde, denboraldia berotzen hasteko, beteteranoetako hainbat taldek zarpiko futbol txapelketa jokatu zuten San Migel jaietan. Finala irailaren 25an jokatu zuten Txarrixak eta Bundeswehr taldeek, eta azken horiek 6-2 irabazi zuten norgehiagoka. Finalerdietan, The Gibel Boys eta Joxely taldeak menderatu zituzten, hurrenez hurren.

Lehenengo bi jardunaldiak

B TALDEA

URRIAK 16

13:00 Txarrixak-Jai Ari / Jabi Azpiazu

14:30 Zorrobero-Paketinaikos / Marku

16:00 Etxaizat-Kalañataray / Moli

17:30 Lozorromo-Sasquatch / Lazkano

Atsedena: Albok

A TALDEA

DATORREN ASTE BUKAERA

Bundeswehr-Gaur Bai

Txuskos-The Gibel Boys

Indar 85-Dollygans

Nandrolona-Ankarteko

Xaguxar-Joxely



Joxely taldeko jokalariek, 2009-10 denboraldiko finala irabazi eta sariak jaso ondoren.

GOIENKARIA

Joxelyk irabazi zuen beteteranoen iazko finala (1-0) Dollygans taldea menderatu ostean

Maiatzaren 8an jokatu zituzten herriko futbol txapelketako final handiak Azkoagainen. Ligako txapela Joxely taldeak jantzi zuen, finalean Dollygans menderatu ostean. Partidua oso

parekatua izan zen, eta gola azken minutuetan sartu zuen Iñaki Bikuña. Hirugarren lekuan Zorrobero sailkatu zen eta laugarrenean Sasquatch. Bestalde, kopako txapelketa Gaur

Bai izan zen, Indar 85 taldea menderatuta. Dollygans taldeko Joseba Albizuk jaso zuen gol gehien sartu duenari Bere saria eta Ankarteko taldeko Josu Aranburu izan zen atezain onena.

IKASTETXEAK

Eskola kiroleko partiduak, bihartik

Askotariko kirolak landuko dituzte ekainaren 18ra arteko asteburuetan

M.B. > OÑATI

Bihar hasiko dituzte eskola kiroleko aste bukaerako partiduak. Herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako hiru garren mailatik seigarren mailara arteko neska-mutikoei askotariko kirolak landuko dituzte. Zapaturo elkartuko dira kiroldegiko kantxa urdinean eta berdean. Besteak beste, zarpiko futbola, areto futbola, eskubaloia eta saskibaloia egingo dituzte.

Errekalde herri Eekolako, Txantxiku ikastolako eta Elkar Heziko umeak nahastu eta taldeak osatu dituzte. Gurasoak dira entrenatzaile eta arduradunak.

Aste Santuaren ondoren udaberriko txapelketa egingo dute, eta ekainaren 18an sari banaketa ekitaldia.

oharrak

DEIALDIA

> 1975eko kintoek bazkaria egingo dute azaroan

Bost urteren ondoren, 1975eko kintoak azaroaren 20an batuko dira bazkaltzeko. Interesatuak azaroaren 8a baino lehen eman behar dute izena: 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005370051042550 zenbakian. Bazkaria Soraluze hotelean egingo dute.

DEIALDIA

> Eskulan ikastaroetarako izenematea bihar arte

Interesatuak kultura etxean eman behar dute izena. Bost ikastaro egingo dituzte: hari, patchwork eta puntu lanak; zeramikak, eskulanak, bitxigintza; eta pintura.

ZINEMA

> 'A Prophet' zineklubean eta 'Babel' topalekuan

Zinezaleek bi aukera dituzte datozen egunetan: eguenean, zineklubean, Jacques Audiarden *A Prophet* pelikula emango dute kultura etxeko aretoan, 20:00etan. Tahar Rahim, Niels Arestrup eta Adel Bencharif dira protagonistak.

Bestalde, hilaren 31n Alejandro Gonzalez Iñárrituren *Babel* emango dute topalekuan 17:00etan.

Coro de Voces Graves de Pamplona abesbatzak Arzuagak harmonizatutako hiru pieza abestuko ditu 19:30eko elizkizuna bukatu ondoren


MIREIA BIKUÑA > OÑATI

*Bi anaia artista, gazte zenduak omenaldiaren bigarren ekimena bihar egingo dute agustindarren elizan. 19:30ean elizkizuna egingo dute Jose Mari eta Migel Angel Arzuaga anaien omenez. Besteak beste, Aita Madinak idatzitako *Ildakoen meza*, *Jose Mari Arzuagaren oroiz* requiem-meza abestuko du Oñati abesbatzak.*

Elizkizunaren bukaeran kontzertua egingo du Coro de Voces Graves de Pamplona abesbatzak. Arzuagak harmonizatutako *Oi bart*, *Zeruetako* eta *Txoriñoa* abestuko dituzte, besteak beste. Gainera, Aita Madinak Irrintzi zortzikotearendako konposatutako izen bereko kantua abestuko dute.

CD-A SALGAI

Bestalde, Arzuagaren omenaldiaren antolatzaileek CD berezia grabatu dute. Hain justu ere, Irrintzi zortzikoteak 1963an Barzelonan grabatutako hiru diskoak eta urte berean Oñati abesbatzak grabatutako *Habaneras* diskoa batera grabatu dituzte.



Jose Mari Arzuaga, Oñatiko organoa jotzen.

GOIENKARIA

MUSIKA > OMENALDIA

Jose Mari Arzuaga gogoratzeko meza eta kontzertua egingo dituzte bihar agustindarretan

CDan sartu dituzte baita ere Arzuagak Aita Madinari esker ona adierazteko egindako berbal-ditxoak eta Aita Madinak berak New Yorkeko irrati batean Irrin-

tzi zortzikoteari buruz esandako hitzak. CDa salgai jarriko dute biharko omenaldiaren hasieran eta bukaeran, bost euroren truke.

ARANTZAZUKO SEMINARIOAN

Jose Mari Arzuaga 1932ko apirilaren 27an jaio zen. 10 urterekin Arantzazuko seminarioan sartu zen, eta musikako ikasgaian

nabarmendu zen. Harmonia jotzen ikasi zuen bere kabuz, eta 1952an hasi zen organoarekin. Urtebete geroago seminarioa utzi, etxera itzuli eta parrokiako koruan hasi zen, hasieran abeslari moduan eta ondoren zuzendari lanetan. Gainera, Kontabilitate ikasketak egin zituen eta Hijos de Juan de Garay enpresan lan egin zuen administratzaile moduan.

IRRINTZI ZORTZIKOTEA

Jose Mari Arzuagak parrokiako koruko kideekin sortu zuen Irrintzi zortzikotea 1960ko hamarkadan eta hainbat sari irabazi zituen. Lehena 1962an lortu zuten: *Concurso Vasco-Navarro de ochotes* lehiaketako lehen saria jaso zuten. 1964an Euskal Herriko txapelketako lehen saria irabazi zuten Bilbon, eta, urtebete geroago, 1965ean, sari hura berretsi zuten Euskal Herriko, Zaragozako eta Frantziako 34 zortzikoterekin lehiatu ondoren. Ondoren, hiru disko grabatu zituzten Barzelonan.

ANAIAREN ERAKUSKETA

Bi anaia artista, gazte zenduak egitasmoaren lehen ekimena Migel Angel Arzuagaren omenezko margolan erakusketa izan zen. Irailaren 17tik 26ra jarri zituzten ikusgai Oñatiko paisaiapintorearen lanak. Herritarren erantzuna oso ona izan zen eta 962 lagun pasa ziren kultura etxeko erakusketa gelatik Arzuagaren lanak ikusteko.

Imanol Ulazia > Makina-erreminta institutuko aholkularia

"Ekimena garatzeko proiektua lantzen dihardugu Elkar Hezin"

M.B. > OÑATI

Norberaren ekimenaren eta autonomiaren garapena sustatzeko berrikuntza proiektu baten murgilduta dago Elkar Hezi ikastetxea. Foru Aldundiak finantzaturako egitasmoa da eta Elgoibarko makina-erreminta institutuaren koordinaziopean egingo dute. Imanol Ulazia eman dizkigu azalpenak.

Zer lantzen diharduzue Elkar Hezi ikastetxean?

Curriculumean ezinbesteko moduan definitutako zortzi oinarriko gaitasunetarikoa bat da nork bere ekimenaren eta autonomiaren garapena. Gai horren inguruan bibliografia asko daukagu eskura. Azken garaiotan, gainera, ugaritu egin dira gai jakin baten ardazturiko ekimenaren gaineko proiektutxoak. Baina dauden bibliografiak zati-katuak dira, ez dira osoak. Orain arte, behintzat, ez da diseinatu eta are gutxiago esperimentatu, curriculumean era integratuan txertaturik, konpetentzia hori sustatzeko eta sistematikoki lantzeko proposamen pedagogiko-didaktikorik. Eta horixe oinarri duen Hezkuntza Berritzatzeko



Imanol Ulazia.

M.B.

Guztira, bederatzi ikastetxetan diharduzue.

Bai, hala da. Elkar Hezirekin batera Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Metodologia eta Giza Jokaera Zientzien Sailean eta EAEko beste zortzi ikastetxetan dihardute, Elgoibarko makina-erremintaren institutuaren koordinaziopean. Horren harira, Elkar Hezi da 0-18 urte bitarteko ikasleak dituen ikastetxe bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz laguntzen du proiektua.

Nola planteatu duzue proiektua Elkar Hezin?

Dagokion prestakuntza jaso ostean, irakasleek ikasleekin batera ikasturte osoan zehar zapi ekintza plan aplikatu behar dituzte irakaste-ikaste prozesuaren barruan. Aplikazioaz gain, dagozkien neurketak eta ebaluazioak egin behar dituzte. Ikasturtean lau ebaluazio egingo ditugu. Bi talde egin dituzte: batean, metodologia berriarekin egingo dute lan; eta bestean, orain arte bezala. Bi taldeen arteko eboluzioa ikusiko dugu ikasturte bukaeran.

"Eboluzioa ikusteko lau ebaluazio egingo dituzte ikasturtean"

Proiektua lantzen dihardugu Elkar Hezi ikastetxean. Norberaren bizitzan, pertsona edo gizarteko kide gisa, lan arloan eta, jakina, geroko ikasketetako ibilbide egokirako ezinbestekoak dira ekimena eta garapena lantzea.

> IRTEERA

Saseta-Kapildui-Azazeta: Gasteizko mendien hegoaldean zeharkaldia egingo dute Aloñakoek

Aloña Mendiko mendi taldeak 16 kilometroko zeharkaldia egingo du domekan. Hain justu ere, Saseta-Kapildui-Azazeta arteko bidea egingo dute. Gasteizko hegoaldeko mendiak ezagutzeko autobusa 08:00etan irtengo da parrokiarengandik.

Irteera Saseta herritik hasiko dute. Okinatik pasa ondoren, Siloko bidegurutzetik Kapilduiko tontorrera hartuko dute. Handik iparralderantz joango dira eta, Galartza tontorra igo ondoren, mendebaldera hartuta Azazetara helduko dira.

> DEIALDIA

Ilartegi elkarteak eta Ulma Fundazioak behaketa astronomikoa antolatu dute gaurko

Ilartegi elkarteak eta Ulma Fundazioak antolatutako behaketa astronomikoa egingo dute gaur Torrealdean. Herritar guztiei 20:00etan plazan agertzeko dei egin diete. Taldea osatu ondoren Torrealde aldera hartuko dute. Besteak beste, planisferio bat nola erabiltzen den erakutsiko dute Ilartegi taldekoek. Gainera, ilargiko kraterak, Jupiter eta Uranio ikusi ahaliko dira teleskopioarekin. Behaketa astronomikoa irailerako iragarri zuten antolatzaileek, baina eguraldiagatik atzeratu egin behar izan zuten.

> DEIALDIA

Primi Erostarbe pandero-jotzailea omenduko dute hilaren 30ean egingo den II. trikiti jaialdian

Oñatiko Lizargarate Trikitizaleen Elkarteak II. trikiti jaialdia antolatu du hilaren 30erako. Jaialdia Santa Ana antzokian egingo dute, 18:30ean. Ekitaldi horretan, Araotzeko pandero-jotzaile Primi Erostarbe (1907-1995) omenduko dute. Gainera, belaunaldi ezberdinetako sei talde igoko dira oholtza gainera. Hain justu ere, musika eskolako triki-pandero taldea; Ospas eta Janire; Izer aita-emeak eta Alabier; Landa aita-emeak; Joseba Tapia eta Eztanda anaia-arrebak; eta Laja aita-emeak eta Oriotarrak.

Jose Ramon Intxauspe > Intxorta 1937 kultura elkarteko kidea

"Egia jaso eta herriko memoria osatu gura izan dugu 'Malko gorriak' ikus-entzunezkoan"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

36ko gerra Aretxabaletan zelan bizi izan zen aztertzen dabil azken urteotan Eusko Ikaskuntzak emandako laguntzari esker. Lan hori bukatu barik dauka oraindik, baina bien bitartean Intxorta 1937 kultura elkar-tearekin ikus-entzunezkoa egin dute. Eguenean aurkeztuko dute Arkupe (19:30), eta salgai jarri gero.

Zelan sortu zen Malko gorriak DVDa egiteko ideia?

Intxorta 1937 kultura elkartearen urteak dabil lanean herriz herri memoria historikoa berreskuratzen guran, eta azkeneko proiektuetako bat da hau. Aretxabaletan bizi izandakoaren informazio asko daukagu eta ikus-entzunezkoan jasotzea erabaki dugu.

Zer jasotzen du DVD horrek?

II. Errepublikatik gerra zibilaren bukaera arteko tartea. 35 minutuan zortzi gai landu ditugu: Errepublikaren gorazarrea; 1934ko urriko iraultza; 1936an zelakoa zen Aretxabaleta; gerra hasiera eta defentsa taldearen sorrera; 1936ko irailaren 24ko okupazioa Aretxabaletan; frontearen egonkortzea -Kurtzetatik errepublikanoek egindako bonbardaketa-; frankisten ofentsiba eta Murugain galtzea; eta bukatzeko, frankisten errepresioa.

Gertaera batzuk antzeztuta daude, ezta?

Bai; Untzillako erasoak, esaterako. Elgetan, trintxeretan grabatu dira pasarte batzuk eta Bedoñan eta Arrasateko Iturriotz kalean ere bai. Izan ere, preso hartutakoak Arrasatera eroaten zituzten eta handik Ondarretara.



36ko gerraren gaineko ikerketa egiten dabilen Jose Ramon Intxauspe.

M.A.

"Duela urtebete Ferrolgo artxibo militarrean egon nintzen aretxabaletarrei egindako gerra kontseiluak eskuratzen"

Aretxabaletarren laguntzarik izan duzue?

Bai, horixe. Orduko testigu bakarra daukagu herrian: Lucio Oteitza, Dragones batailoiko kidea. Harekin eta beste batzuekin egon gara: Jose Maria Horcaxada, milizianoa; Lorentxo Peña, Jose Luis Uribealgo eta Miren Gartziaetxabe, fusilatuen senideak; Begoña Etxebarrieta, gudari baten alaba; eta Pablo Urteaga eta Eduardo Altube, gerrako umeak.

Eta dokumentazio lan handia egongo da atzean, ezta?

Bai, urtetakoa. Euskal filmotekako irudiak, Udal Artxiboko dokumentuak eta beste artxibo batzuetakoak erabili ditugu; artxibo militarretakoak, esaterako. Orain dela urtebete Ferrol hirian izan nintzen aretxabaletarrei egindako gerra kontseiluak dokumentuak eskuratzen.

Ez da inor minduko gerrako kontu horiek argituta?

Ez dut uste; ez da, behintzat, gure asmoa. Egia jaso gura izan dugu, herriko memoria osatu; horregatik, gertatutakoak hotz-hotzean jaso ditugu, bai testigantza bidez, bai dokumentuek baieztatzen dutena. Uste dut egin beharreko lana dela, ezjakintasun handia dagoelako eta testiguak desagertzen doazelako. Ikerketa askoz sakonagoa egiten gabiltza guztia jasota gera dadin, eta udaberrirako gertu izan gura dugu.

ARKUPE > BA! MUGIMENDUA

Aretxabaletarren kultura proiektuaren egoeraren berri emango dute gaur plazan

Inaxio Garro alkateak, bestalde, bere iritzia eman du gutun baten bitartez

M.A. > ARETXABALETAKO

BerBa! ekitaldia egingo du Ba! aretxabaletarren kultura mugimenduak gaur Herriko Plazan (18:30). Azken bi urteotan Udalarekin izan dituen harremanen berri emango die herritarrei, eta aretxabaletarren kultura proiektuaren egungo egoera azaldu, Beñat Zamalloa Ba! mugimenduko koordinatzaileari elkarrizketa eginez.

Inaxio Garro alkateak, bere aldetik, gutun baten bidez zabaldu du bere ikuspuntua. GOIENKARIAren 7. orrian dago.

LEHIAKETA DEITZEKO ESKAERA

Prensaurrekoa eskaini zuen eguaztenean Ba! mugimendua, eta herriko 18 elkarteren babesa jaso. Bi eskaera egin zizkieten Udalari Gazte Ekimeneko ordezkariak irakurritako dokumentuan: Arkuperen

kudeaketa lehiaketa publikora deitzea eta aretxabaletarrek egindako lana aintzat hartu eta proposamenak, proiektuak eta ekimenak herritarrentzat duten garrantzia kontuan hartuta aztertzea.

Orain dela bi urte, Udalak Arkupe kudeatzeko lehiaketa deitu zuen. Aretxabaletako mugimendua bakarrik aurkeztu zen lehiaketara lehenengotan, baina atzera egin zuten gero: "Udalak inongo irizpide barik epaitzen zuelako, kultura astintzea baino egoitza zaintzea gura gozuelako eta plegutik harago hamaika eskakizun zituelako ezetzer behartuta", azaldu dute.

Bi urteotan hainbatetan elkartu dira Udala eta Ba! mugimenduko ordezkariak lehiaketa berriro deitzea adosteko: "Hamaikatxotan kultura etxea lehiaketara deituko duela hitz emanatik ez du bete", diote, eta Ama-Lur enpresak jarraituko du Arkupe kudeatzen: "Aretxabaletarren helburu, gogo eta ilusioei kasu egin barik eta ekonomikoki ondoen datorkion eran kudeatzen", gaineratu dute.



Ba! kultur mugimenduaren prentsaurrekoa elkartearen babesarekin.

M.A.



U.D.A. futbol taldearen aldeko HARAGI PINTXO DASTAKETA

Aretxabaletako Herriko plazan

Urriak 16 (zapatua)

19:00etan

Antolatzailea: IOSU HARATEGIA
Miturte, 1 · Aretxabaleta



Berme osoko okela



Aratz taldeko kideak Italiara iaz egindako bidaian.

ARATZ TALDEA

JENDARTEA > LEHIAKETA

Gorgonzolan (Italia) daude Aratzekoak filma aurkezten

'Are-Baleko sekretoak' bihar emango dute nazioarteko film laburren lehiaketan

M.A. > ARETXABALETA

Gorgonzola herrian egiten duten nazioarteko film laburren lehiaketara joan dira Aratz taldeko kideak. *Are-Baleko sekretoak* filma aurkeztuko dute bertan. Dagoeneko hirugarren aldiz daude Italiako lehiaketan.

Atzo irten ziren aretxabale-tarrak autobusean, 38 lagun, eta

dagoeneko Turinen dira. Hiria bisitatuko dute lehenengo eta ilunkeran (20:30) film laburren lehiaketako lehenengo jardunaldian izango dira; bederatzik film emango dituzte.

Bihar, ostera, Milan hiriko parajeak ezagutzera joko dute eta ilunkeran lehiaketako bigarren jardunaldia. Aratzekoak egindako *Are-Baleko sekretoak* emango dute orduantxe -Atzegik egindako Donostiako lehiaketan lehenengo saria jasotakoa-. Film guztiak eman ostean sari bana-keta ekitaldia egongo da. Domekan itzulerako bidaia egingo dute aretxabaletarrek.

JAIALDIA > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Saihets mokadutxoa ardo onduarekin edo cavarekin eskainiko du bihar UDAk plazan

Bi euro eta erdian eskuratu ahal izango dute herritarrek; gainera, Gabonetako Loteria jarriko du salgai



Iaz egindako jaialdian losu harategiko kideak saiheskia erretzen.

M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Denboraldi hasierako jaialdia egingo du bihar, hilak 16, Aretxabaleta Kirol Elkarteak Herriko Plazan (18:00-22:00). Iaz legez, Giokelak ekarritako saiheskia erre eta eskainiko die herritarrei, eta, oraingoan, ardoarekin batera Kataluniako cava dastatzeko aukera ere egongo da. Hori guztia, bi euro eta erdian; edari barik jateko aukera ere izango da.

Bartzelonako Duran upategiko cava ekarri du UDAk herritarrei eskaintzeko. Hala, kopatxoa probatu ondoren erosi gura izanez gero 6 eurotan jarriko dute

salgai botila. "Aparteko cava" dela jakinarazi dute jaialdiaren antolatzaileek, eta "adituek ere" hala izendatu dutela.

Cava beharrea ardoa gura-go dutenek Arabako Errioxako

Luis Alegre upategiko ondua hartzeko aukera izango dute okela mokadutxoarekin batera.

Iaz legez, Gabonetako Loteria aterata du UDAk eta bihar salgai izango dute plazan.

GAZTEAK > AISIALDIA

Ikastaroak eta film laburren tailerra dituzte gazteek


Hilaren 23an Zarautzen egingo duten surf ikastarorako izenemate epea zabalik dago

M.A. > ARETXABALETA

Hasi du ikasturtea Atxagazte gaztelekuak eta lehen egunotan txokoa apaintzen ibili dira gazteak. Sorginak eta iratxoak marraztu dituzte hormetan.

Eguenetik domekara bitartean dago zabalik Arkupeko atzeko partean dagoen gazteleku eta eguen guztietan sukalde lanetan jarduten dute gazteek. Horrez gain, hainbat ekital-

di dituzte antolatuta urrirako: bihar eta etzi, DBHko lehen eta bigarren mailakoek irteera egingo dute; urriaren 21ean eta 22an, monoziklo ikastaroa izango da Haritz Inurritegi arrasatearra irakasle dutela; hilaren 23an, surf ikastaroa egingo dute Zarautzen -prezioa 12 euro-; eta hilaren 29an, 30ean eta 31n, film laburren tailerreko grabazioak egingo dituzte.



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA

Euskal Herriko lanbide kualifikazioen sistemari lotzen zaion katalogo modularra.



LANGILEEI ZUZENDUAK

Ikastaroak	Orduak	Aurreikusitako datak
Fabrikazio elektromekanikoa		
Planoen interpretatzea	50	2010 • Urria
Automatismo pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	2010 • Azaroa
Automatismo hidraulikoak	36	2011 • Otsaila
Automatismo elektriko kableatuak	45	2011 • Urtarrila
Torno konbentzionaleko mekanizatua	80	2010 • Azaroa
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizatua	80	2011 • Urtarrila
CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	40	2011 • Otsaila
CNC tornuaren mekanizazioa	50	2011 • Martxoa
Soldadura eta galdaragintza		
Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	2010 • Urria
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	80	2010 • Azaroa
Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	2011 • Urtarrila
Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	2011 • Otsaila
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	2011 • Otsaila
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	2011 • Martxoa
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	2011 • Maiatza
Soldadurako beste prozedura batzuk	35	2011 • Martxoa
KUALIFIKAZIO SISTEMATIK KANPO:		
Ibilgailuen elektromekanika		
Ibilgailuen aire egokitua. Mantenimendua, egiaztatzea eta konpontzea	21	2010 • Azaroa
Ibilgailuen eskema elektrikoaren interpretatzea. Osziloskopien erabilpena eta seinaleen interpretatzea	39	2011 • Martxoa

LANGABETUEI ZUZENDUAK

Txirbil harroketa konbentzional bidezko mekanizatua	445	Urria - Otsaila
Txirbil harroketa mekanizatua CNC bidez	430	Martxoa - Ekaina
Geriatría laguntzarako zaintzak	360	Iraila - Martxoa
Mantenimendu lanak ibilgailuetan	350	Azaroa - Martxoa
Giro naturaleko soldadura	455	Martxoa - Ekaina

ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 79 79 00 / 943 79 79 43
F. 943 77 09 55



Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

JENDARTEA > AISIALDIA

Antzerkia, perretxikoak, Mazmela eta mendi bizikletak, guztiak batuta

Gaur hasiko dira ekimenak, 19:00etan, Hortzmugaren 'Zirku iluna' antzerkiarekin; txotxongiloak, akrobaziak eta umorea izango dira horretan

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Ekimenez jositako asteburua dugu aurretik. Gaur, egubakoitza, hasiko dira horiek, Hortzmuga taldearen *Zirku iluna* kale antzerkiarekin. Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egingo den ekitaldi hori 19:00etan hasiko da Herriko Plazan.

Zirkua oinarri duen ikuskizunak gaur egungo gizartea salatu eta emozio eta pasioetan eragin gura du, hausnarketarako bidea zabaldu. Antzezlanaren adin guztietarako modukoa da. Zirku zahar bateko azken langileek zirku horren historia kontatuko dute euren esperientzietan oinarrituta. Bidaia sinboliko eta zirraragarria izango da eta txotxongilo-

Hortzemuga taldeak *Zirku iluna* antzezlanaren eginkizunak du.

GOIENKARIA

ak, zirkuko akrobaziak eta umorea uztartuko ditu.

PERRETXIKOAK ETA MAZMELA

Bestalde, azken urteotako ohiturari jarraituz, bihar, zapatua, Luis

Ezeiza herri eskolako umeak eta gurasoak perretxikoak batzera joango dira. 09:00etarako jarri dute hitzordua, Herriko Plazan. Han bertan erabakiko dute bilaketa non egin. Bazkaldu ostean,

goizean inguruko mendietan batutako perretxikoen sailkapena egingo dute ikastetxeko jantokian. Azkenik, domeka eguerdian erakusketa jarriko dute plazan, 12:00etatik 14:00etara. Irauten

duen bitartean, umeendako marrazketa txapelketa eta askak izango dira.

Bestalde, Arizmendi ikastola-ko Jose Aranako eta Almengo guneek Ezkurtxo eguna egingo dute bihar umeendako. Aurten, Mazmela elizatea bisitatuko dute, eta han jolasak, ipuinak eta txokolate beroa izango dute umeek. 15:30erako jarri dute hitzordua Jose Aranako atean.

39 ETA 26,5 KILOMETRO

Domekan, azkenik, mendi bizikleta martxa egingo du Eskoriatzako Udalak, Areka BTTren laguntzarekin. Irteera plazan izango da, 09:00etan. Bi ibilbide daude: luzeak 39 kilometro ditu eta motzak 26,5 km. Izenematea plazan hasiko da 08:15ean. Federatuek 10 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, 15.

Urtero bezala, jan eta edanaren postua egongo da: bi ibilaldiendako leku berean egongo da, Gure Ametsan. Horrez gain, eta ohi bezala, proba amaitutakoan Aretxabaletako Imanol harategiak prestatutako odoloste, txorizo egozi eta beste jaki batzuek egindako pintxoak izango dira plazan.

> OSPAKIZUNA

Omenaldia egingo diete egoitzako mojei urriaren 24an

Jakina denez, Mesedeetako mojak herrian 98 urte egin ondoren herritik joan dira. Urtetan egindako lanaren errekonozimendu moduan, irailaren 24an ospakizuna egin zieten egoitzan. Hori, baina, ez da omenaldi bakarria izango, urriaren 24an herritarren agurra jasoko dute-eta. 12:30ean meza izango dute eta 14:00etan herri bazkaria. Interesatuek 20 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 0441037094 kontu zenbakian.

KIROLA > EKIMEN BERRIA

Patin Gaua egingo dute gaur bidegorrian, lehen aldiz

M.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Patin Gaua egingo dute herrian. Ibilbidetarako bidegorria erabiliko da, bide erraza, patin gainean ibiltzen dakien edozeinek egiteko modukoa. 22:00etan elkartuko dira patinzaleak Herriko Plazan eta bidegorrian behera ordubete inguruko joan-etorria egin ondoren, 23:30etan amaituko da jaia Herriko Plazan, parte-hartzaile guztiendako txokolate-janarekin.

Azken urteetan patinen gainean ibiltzen ikasteko ikastaro bat baino gehiago egin da Eskoriatzan eta ekimen horren helburua da ikastaro horietan parte hartu dutenak edo betidanik patinetan ibiltzen dakitenak elkartzea. Gainera, bidegorria, antzinako trenbidea, patinekin ibiltzeko oso egokia da, eta, egoera onean dagoenez, ibilbide erraza prestatu dute. Udaletik ekimenean parte hartzeko gonbita egin dute.

oharrak

UMEAK

> **Mahai jolasak gaur ludotekan**
Gaur Tortolis ludotekara joaten diren umeek mahai jolasekin ibiltzeko aukera izango dute. 18:00etan hasiko da lehiaketa.

GAZTEAK

> **Film laburrak sortuko dituzte**
Film laburrak egingo dituzte bihar eta etzi gazteek gaztelekuan, 18:00etan.

KIROLA

> **Kirol hitzorduak asteburuan**
Norgehiagoka bakarria dago asteburuan: saskibaloiko senior mailako neskena, hain justu. Esko-

riatzarrek Oiarso taldekoak hartuko dituzte bihar, 18:00etan.

POBREZIA ZERO PLATAFORMA

> **Tailerra bihar Ibarraundin**
Arrasateko Zero Pobrezia plataformak antolatuta, Desazkunde tailerra izango da bihar, 10:00etatik 14:00etara, Ibarraundin.

ZUZENKETA

> **Los Galerna taldearen argazkia**
Hilaren 8an, Los Galerna taldearen kontzertuaren berri eman genizuen. Argazkiaren egilea GOIENKARIA zela jarri genuen. Hori ez da horrela. Unai Kabitak ateratakoa da.

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

KIROLA > AKE

Zuzendaritza berria hasi da dagoeneko lanean

Tomas Agirre izango da AKE taldeko presidente berria; zuzendaritzan 15 lagun daude lanean

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

AKE taldeak zuzendaritza berria dauka iraila ezker. Azkeneko urteetan lanean ibili den taldeak elkarte lagatzeko asmoa zuela ikusita, hainbat herritarrek hartu dute elkartearen ardura. Abuztuan hasi ziren lehenengo harremanak egiten.

"Taldea desagertzekotan zegoen. Lau jokalarik eta bi guraso elkartu ginen eta federaziora deitu genuen fitzak noiz arte egin ahal genituen galdetzeko", adierazi dute zuzendaritza berriko kideek. Deialdia zabaldu, eta 15 laguneko zuzendaritza taldea osatu dute: Tomas Agirre da presidentea. Gainerako kideak dira: Gaizka Asensio, Patxi Kortabarría, Marisol Altube, Amaia Azkarate, Pako Cabrera, Begoña

Egaña, Pablo Olalde, Patxi Godoy, Lorenzo Iturbe, Gurutz Mada-riaga, Jesus Zubikarai, Andres Arbulu, Nerea Ruiz eta Jesus Gardoki.

Zuzendaritza taldeak izan zuen lehenengo lana entrenatzaile bilatzea izan zen: Juanina Garai. Zuzendaritza pozik dago entrenatzaileak egindakoarekin, eta gaineratu dute taldean oso giro ona nabaritzen dutela, mutiak oso pozik daudela.

HELBURUA, HARROBIA EGITEA

Euren helburu nagusia taldea mantendu eta aurrera egitea da. "Orain dela zazpi urte, esaterako, bost talde zeuden Antzuolan", diote. Hortaz, maila txiki-kin lanean hasi eta etorkizunean lehen zuten egoerara itzuli



Tomas Agirre presidentea eta atzean gainerako kideak; Nerea Ruiz eta Jesus Gardoki falta dira.

A.E.

DATUA

37
JOKALARI

Antzuola futbol taldeak 37 jokalarik ditu gaur egun: 23 jokalarik ohorezko preferente mailan dihardute eta 14k infatil mailan -zortziko futbola.

gura dute. "Orain, erregional mailako taldea atera dugu, eta infatiletan talde bat osatzeko beste jokalarik ez dugunez, zortziko futbol taldea atera dugu. Asmoa da datorren urtean kadete mailako taldea ateratzea", diote zuzendaritzako kideek.

EGOERA EKONOMIA EZ DA ONA

Taldea hartu dutenean konturatu dira egoera ekonomikoa ez dela ona; ondorioz, dirua jarri behar izan dute hainbat zor ordaintzeko. Elkartek dituen diru sarrerak dira: bazkideen kuotak, tabernako dirua, zozketak, babesleak eta dirulaguntzak. Antzuolak etxean jokatzen duen txartelak zozketatzen dituzte, bai zelaian eta baita kalean ere. Hauze zozketatzen dute: okela, ardoa, afaria... Gainera, dagoeneko salgai dute aurtengo Gabone-tako Loteria ere.

Eztalako partiduetara zale asko joaten direla diote. Hala, eskerrak eman gura dizkiete eta, bide batez, bihar Oriokoren aurka jokatuko duten partidua ikustera animatu (16:15ean).

AKE

Bazkide berriak egiteko kanpaina

Zuzendaritza taldeak bazkide berriak egiteko kanpaina jarri du martxan. Herriko tabernetan horretarako propio jarri dituzten paperak bete daitezke; eta partidu egunetan Eztalan bertan bazkide egiteko aukera egongo da. Urteko kuota da 29 euro.

Horrela erabakiz gero, sarrera ordaindu beharko litzatekeen bazkideek ez lukete ordaindu beharrik izango. Hori da bazkide izatearen abantaila bat. Garrantzitsuen, baina, elkarteari ematen zaion laguntza ekonomikoa da. Gaur egun, 200 bazkide inguru ditu Antzuolako elkartek.

Erretiratuen meriendan 80 lagun batu ziren

Martitzenean egin zuten merienda erretiratuek; eta, ondoren, kina jokoa. 80 lagun elkartu ziren Torresoroan. Horrez gain, eguaztenean Zumarragako erretiratuen antzerki taldearen antzezlan ikusteko aukera izan zuten herritarrek. Atzo, Errioxara bisita egin zuten: Guardian bazkaldu eta Logroñon pasa zuten eguna. 60 lagun joan ziren.



A.E.

KIROLA > OLALDE ELKARTEA

Pala txapelketako lehia gaur: Olalde-Endaiarrak

A.E. > ANTZUOLA

Herriko pilotariek Gipuzkoako pala txapelketa hasi berri dute. Bada, aste bukaeran etxean jokatzea egokituko zaie; hain zuten, iparraldeko Endaiarrak aurka jokatuko dute, gaur, 18:00etan hasita.

Pala motza modalitatean jokatzen dabilza Olaldeko pilotariak. Bikotea osatzen dute Iker Manso aurrelariak eta Jon Alberdi atzelariak. Gainera,

Mikel Garbilea eta Gorka Iturbe ere entrenatzen ibiltzen dira eta entrenatzailea da Balendin Zabalo.

BI TALDETA BANATUTA

Txapelketako parte-hartzaileak bi multzotan banatu dituzte. Antzuola A taldean dago: Urnietan, Txost, Altxatarrak eta Endaiarrak dira gainerako taldeak. Urnietaren aurka galdu egin zuten Antzuolak.

oharrak

LEHIAKETA

> **Abian da Antzuolako XVI. argazki lehiaketa**

Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da -udaletxean-. Aurtengoa XVI. edizioa izango da eta Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake lehiaketan.

ZERBITZUA

> **KZguneko tutoretzak urriko martitzenetan izango dira**

Urriko martitzen goizetan egongo da tutorea KZgunean. Hain zuten, hilaren 19an eta 26an egongo da, 09:00etatik 13:00etara, liburutegiko ordutegian.

DEIALDIA

> **Oraindik aukera dago pilotalekua eta Eztala erreserbatzeko**

Pilotalekuko edo Eztalako ordu erreserba egiteko jo udal-terera edo idatzi kutura@antzuola.net helbidera.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Aramaioren eta Zuiako Koadrilako beste herrien gaineko galdera-erantzunetan oinarrituta dago lehiaketa.

E.M.

KULTURA > ZUIAKO KOADRILA

Eskualdearen ezagutzaren inguruko lehiaketa abian da

Bikoteka azaroaren 7tik aurrera jokatu da, domekero; 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak 12 urtetik gorako gaztetxoei eta helduei zuzendutako *Ezagutzen duzu zure eskualdea?* lehiaketa jarri du abian. Egitasmo horren bitartez, eskualdeko sei udalerriek (Arrazua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuiak eta Aramaio) parte hartzen duten eskualde-koherzio proiektuari bultzada eman nahi zaio.

Lehiaketa Zuiako Koadrilari buruzko galdera-erantzunetan oinarrituta dago. Horrela, Gor-

beia Inguruetako Eskualdearen identitatea indartu eta ezagutzera ematea da antolatzaileen asmoa. Bikoteka jokatu da lehiaketa eta lehiakideetako bat gutxienez Zuiako Koadrilan erroldatua izatea beharrezkoa da. Bi kategoria bereiziko dituzte: 16 urtera artekoa eta hortik gorakoena.

Kanporaketak azaroaren 7an hasiko dira, eta parte-hartzaile kopuruak eskatzen duen beste kanporaketa jokatu dira domeka goizetan. Finala abenduaren

18an jokatu da, Zigoitian, 18:00etan. Finalistek Koadrilako produktu sorta bat jasoko dute eta irabazleek Port Aventura sarrera eta hoteleko gau bat edo aukeran, hoteleko gaua bainuetxeko zirkuituarekin edo multiabentura jarduerarekin.

IZENEMATEA, 22RA ARTE

Urriaren 22an, bukatuko da izena emateko epea. Aramaioko udaletxean badago horretarako aukera. Izena ematerakoan, bikote bakoitzak *Zuiako Koadrilako galdera-erantzunen joko*a jasoko du CD-ROM formatuan. Bertan batu dituzte lehiaketan zehar erantzun beharreko galderak.



ANA MARTIARENA

Pintura lehiaketako lanak Sastiñan

Jose Reyes Ieioarrak eraman du aurten Aramaioko pintura lehiaketa. 55 lagun izan ziren lehiaketa martitzenean; bigarren saria eta hirugarrena Carlos Espiga bilbotarrak eta Jose Miguel Arranz erandiotarrak eraman zuten, hurrenez hurren, eta Maider Aldai izan zen herriko onena. 16 urtetik beherakoen artean, berriz, Maria Villalba aramaioarra izan zen irabazlea, Portugaleteko Ainhoa Cobos eta Mariana Gartziairen aurretik. Lehiaketako koadroak Sastiñan daude ikusgai urriaren 22ra arte.

> KULTURA

'Larru haizetara' antzezlanaren gaur kultura etxean eta kontzertua etzi eguerdian San Martin elizan

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, gaur, barikua, Ez Dok Hiru Biko Teatro konpainiaren eskutik *Larru haizetara* antzezlanaren izango da kultura etxean, 22:00etan. Sarrerak 2 eurotan salduko dituzte. Bestalde, OCABeko Kameratak musika emanaldia egingo du domekan San Martin elizan, 12:00etan. Shostakovich, Guridi, Gershwin eta Bernsteinen lanak eskainiko dituzte.

> JENDARTEA

Alaiak erretiratuen elkarteak urriaren 25ean Gernikako azokara joateko irteera antolatu du

Ohikoa denez, urriaren 25ean Gernikako azokara joateko irteera antolatu du Alaiak erretiratuen elkarteak. Irteera 09:00etan egingo dute frontoetik eta Gernikako ganadu, barazki eta fruta azokan ibili eta gero Lekeitiora joango dira bazkaltzera.

Irteeran parte hartzeko interesa dutenek astelehena dute izena emateko azken eguna, urriak 18. Hain zuzen, 30 euroko diru sarrera egin behar da Euskadiko Kutxan. Alaiak elkarteko zuzendaritzak argitu duenez, txangora joaten ez direnei ez zaie dirua itzuliko, salbuespen justifikatuak ez badira.



Gernikako azokako irudi bat.

> ARGAZKILARITZA

Udalaren eta Zuiako Koadrilaren argazki lehiaketetan parte hartzeko azken egunak

Udalak antolatutako argazki lehiaketarako lanak urriaren 30era arte jasoko dituzte. Urtaro bakoitzeko irudi onena 100 euroekin sarituko dute eta sari nagusia 200 euro da. Bestalde, *Zuiako Koadrilari begirada bat* lehiaketako epea hilaren 20ra arte dago zabalik. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, beste bi sari izango dira eta Aramaioko irudi onenarentzat 75 euro eta trofeoa.

UDALA > HIRIGINTZA

Aramaioko Plan Orokorriari hasierako onarpena eman dio udalbatzak

Alegazioak aurkezteko epea abenduaren 13ra arte dago zabalik eta plana azaltzeko batzarra izango da eguaztenean

BILERA IREKIA EGUAZTENEAN

Aurretik, baina, Plan Orokorriaren dokumentuari buruzko azalpenak emateko informazio bilerak deitu du Udalak. Eguaztenean, urriaren 20an, izango da bilera, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. Udaleko ordezkariekin batera izango dira Plan Orokorra idatzi dutenak eta txosten juridikoa eta teknikoa egin dituzten teknikariak. Edozelan ere, gai horrekin interesatutako guztiei parte hartzeko dei egin die Udalak.

Astelehenean Udalaren webgunean Plan Orokorriaren dokumentua jarriko dutela agindu dute Udaleko ordezkariak. Beraz, www.aramaio.org helbidera jo dezakezue informazioa eskuratzeko.

E.M. > ARAMAIO

Aramaioko udalerriko hirigintzako Plan Orokorriari hasierako onarpena eman zion udalbatzak joan den barikuan, urriaren 8an. Orain, alegazioak aurkezteko epea hasiko da; hain zuzen ere, 45 eguneko epean jendaurrean egongo da ikusgai eta alegazioak aurkezteko azken eguna abenduaren 13a izango da.

JENDARTEA > SOLIDARITATEA

Boluntario taldea sortu nahi dute nagusiei laguntzeko

Nagusien egoitzetan dauden nagusiei edo bakarrik bizi direnei laguntza ematea da asmoa

Boluntario taldean parte hartu gura duenak urriaren 30a baino lehen eman behar du izena

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Boluntario talde bat sortzea da Udaleko Gizarte Zerbitzuen asmoa. Beharrak dituzten herritarrei laguntzeko boluntarioak izango lirake. Udako oporren aurretik hasi ziren lehenengo bilerak egiten Gizarte Zerbitzuetako langileak, erretiratuak eta Caritaskoak; eta badirudi egitasmoa forma hartzen dabilela. Herritar asko dago inguruko herrietako nagusien egoitzetan

bizi dena; beste batzuk eguneko egoitzara joaten dira; eta etxean bakarrik bizi direnak ere asko dira. Bada, haiei laguntzeko asmoz sortu gura dute boluntario taldea.

Gipuzkoan bada horrelako zerbitzua ematen duen elkarte bat: Nagusilan. Bada, Udaleko teknikariek haiekin bilerak egin dituzte nola lan egiten duten eta euren dinamika zein den ezagutzeko eta ikasteko.

HELBURUA, JENDEARI LAGUNTZEA

Helburua da beharrak dituzten herritarrei laguntzea. "Jendeari laguntzea, solidarioa izatea... Gizarte Zerbitzuetatik bakarrik ezin da laguntza hori guztia eman, herritarren laguntza behar dugu jende horrengana gerturatzeko", dio Ainara Gabilondok, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak. Bide berri bat zabaldu nahi dute, herritarren arteko elkartasuna ahalbideratu duen bidea.

GUTUNAK BIDLAKO DITUZTE

Hala, deialdia zabaldu dute herritarren artean. Datozen egunotan 50 eta 80 urte bitarteko herritarrei gutun bat bidaliko diete etxera. Proiektuan parte hartu gura dutenek bidalitako orria bete eta udaletxera, erretiratuaren elkarte-

ra edo Caritasera eraman behar dute. Izena emateko azken eguna urriaren 30a da.

"Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko", dio Gabilondok. Boluntarioek egin behar dute lanak dira: pertsona hori bisitatzea joan, nagusi horrekin paseo bat eman... "Pertsonak duten beharren arabera erabakiko da zer egin", dio Gabilondok.

BEHARRAK AZTERTUKO DITUZTE

Nagusilan araututa dago eta badi-tu astean zehar egin beharreko gutxieneko bisita batzuk. Elgetan, baina, baliteke arautegi hori bideragarria ez izatea. Hortaz, beharrak aztertu ostean erabakiko dute zelan lan egin.

> DEIALDIA

Kutxak astronomiari buruzko ikastaroa antolatu du

Kutxak antolatutako astronomia ikastaroa egingo dute kultura etxean. Urriaren 19an hasiko da ikastaroa, eta urriaren 28an amaitu. Aste-an bi egunetan emango dituzte eskolak, martitzen eta eguenetan, 18:30etik 20:30era. Hamar orduko iraupena izango du eta euskaraz izango da. Oraindik aukera dago izena emateko; 30 euro ordaindu behar da horretarako. Parte hartzeko www.kutxasocial.net helbidean eman behar da izena.

> LEHIAKETA

Eguaztena da argazkiak aurkezteko azken eguna

Martxan dago udazkenari buruzko argazki digitalen lehiaketa. Lanak urriaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira, kultura@elgeta.net helbide elektronikora bidalita. Epaimahaia argazki onenak aukeratu eta herriko tabernetan jarriko ditu datorren domekan, urriak 24. Gainera, perretxiko erakusketa eta Elgetako tabernen arteko pintxo lehiaketa ere izango da. Sari politak egongo dira.

> OZKARBI

Urriaren 24an mendi irteera egingo dute Orixol ingurura

Ozkarbi mendi taldeak irteera antolatu du datorren urriaren 24rako, domeka. Oletatik irten eta Orixol aldera egingo dute; handik, Zabalaurdi, eta berriro itzuliko dira Oletara. 4 edo 5 orduko iraupena izango du ibilaldiak. Irteeran parte hartu gura duenak urriaren 22a baino lehen eman behar du izena udaletxean edo mendi taldeko e-postan: ozkarbi.menditaldea@gmail.com. 5 euro ordaindu behar da egunetan bertan.

JENDARTEA > KUDEATUZ PROGRAMA

Udalaren zerbitzuak baloratzeko inkestak banatu dituzte

Kudeatuz programaren bitartez Udalaren eta udal zerbitzuen inguruko iritzia jaso gura da

A.E. > ELGETA

Asteon banatu dituzte, etxeetan, Udalaren zerbitzuak baloratzeko galdetegiak. Herritarrek etxean jasoko duten inkesta oso sinplea da, oinarritzkoa.

Inkesta horren bitartez Udalak eta Diputazioak sinatu berri duten Kudeatuz programa martxan jarriko dute. Programa horren helburua da herritarren parte-hartzea sustatzea; eta, bereziki, Udalaren eta udal zerbitzuen inguruan herritarrek duten iritzia jasotzea.

TELEFONOZ ERE EGINGO DUTE

Galdetegi hori urria eta azarora bitartean telefonoz egingo den inkesta handiaren osagarria da. Telefonoz 200 elkarrizketa inguru egingo dira; eta idatzizko galdetegi horren bitartez aukera eman nahi zaie herritar guztiei euren iritzia emateko. Horretarako, orrian badago tarte zuri bat iradokizunak egiteko.

UDALETXEAN UTZI INKESTA

Inkesta itzultzeko, etxeetara bidali den frankeatutako gutun-aza-



Elgetako plaza herritarrekin.

GOIENKARIA

la erabil daiteke, edo bestela udaletxera eroan eta herritarren gutunontzian sartu. Galdera orri gehiago behar izanez gero, udaletxean daude eskuragarri-hirigunetik urrun dauden etxeetara ez da banatu galdetegirik.

HAUSNARKETA PROZESUA

Hilaren 21ean, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa duen hausnarketa prozesuaren aurkezpen ekitaldia egingo dute. Udalak jakin gura du elgetarrek nolako herria nahi duten 2020an.

LEINTZ GATZAGA > EHIZA

Motel hasi da ehiza denboraldia

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Martitzenean, hilak 12, eman zitzaion hasiera ofiziala ehiza denboraldiari eta Gatzagako parajeetan ere tiro hotsak entzuten dira egunotan. Tiro hotsak bai, baina haize hotza dabil eta hegazti gutxi pasatu dela diote ehiztariak.

Herriko ehiztariak 18 postu dituzte Gure Ametsa jatetxetik gora eta txandakatu egiten dira postu horietan. Gipuzkoako Ehiza Federazioak, osterara, 70 bat postu ditu eginak eta horietan egoteko zozketa egiten dute egubakoitz guztietan Aretxabaletako Aretz tabernan.

Iazko denboraldia oso txarra izan zen eta aurtengoak emango duenaren zain daude ehiztariak. Lehen egunotan eguraldiak ez du askorik lagundu eta lau bat uso banda bakarrik pasatu direla jakinarazi dute. Birigarroak ere ibili dira, baina oso altu datoze-lan diote: "Datorren asterako ira-

garri dute eguraldi epelagoa eta horren zain gaude", diosku herriko ehiztari batek.

POSTUEN GARBIKETA

Aldundiak, berriz, aurkeztu ditu ehiza denboraldian bete beharreko arauak, eta ehiza postuak garbitzearen gaineko kontzientziazte kanpaina egingo duela iragarri. Bestalde, oilagorren ehizaren gaineko informazioa jasotzeko sistema jarriko du abian aurten, Ehiza Federazioarekin batera.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



Aloñako aurrelari Arrola eta Mondrako atzelari Castillejo, Arrasatekoen area ertzean, derbian.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Zauriak sendatu nahi dituen Aloña hartuko du Mondrak

Joan den asteko 0-5koa ahazteko asmoz joango dira Oñatikoak Mojategira bihar (16:30)

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bihar, zapatua, derbia jokatu dute Mondrak eta Aloña Mendik. Bi taldeen artean puntu bateko aldea baino ez dago, baina egia da joan den asteko jardunaldiak gorputzaldi erabat ezberdina utzi diela batzuei eta besteei. Horregatik izango balitz, biharko derbia Mondrarendako izango litzateke, seguru. Baina horiek kontuak baino ez dira, kroniketako lerroak betetzeko balio dutenak.

Mondrako aurrelari Jon Muruamendiaratzek ondo daki Aloñak joan den astean jasotako jipoiak bi irakurketa izan ditza-keela: "Taldea amorratu egiten da horrelako emaitza baten ostean, eta horregatik ibili behar dugu argi, Aloñakoak garaipen gosez etorriko direlako Mojategira, gauzak ondo egiteko inoiz baino gogo handiagoarekin".

Hala, Aloñako aurrelari Roberto Idigorasek gauza bera

onartu digu: "Real Unionen kontra gertatutakoa aztertu egin behar dugu lehenengo, eta hori gainditu ondoren. Eta hori ahazteko modurik onena Mondraren kontrako derbia irabaztea da. Gu etxetik kanpora nahiko ondo ari gara, baina Mondra serio dabil defentsa lanean".

ARETXABALETA ETXEAN

Mondraren batera Aretxabaleta ere etxean jokatu du, domekan, Berioeren kontra. Eta joan den astean Idiazabali irabazi zion Bergarak (2-1) Pasaia- ra egingo du bidaia.

MENDIKO BIZIKLETA

Eskoriatzako 21. martxa egingo dute domekan

X.U. > ESKORIATZA

Domekan, hilak 17, egingo dute Debagoieneko zirkuituko laugarren martxa Eskoriatzan (09:00). Udalaren laguntzarekin, Areka BTTko lagunek bi ibilbide prestatu dituzte domekarako.

LUZEA ETA MOTZA

Ibilbide luzeak 39 kilometro izango ditu, eta, azken urteotan moduan, gorputzaldi nahiko onean dagoen jendearendako prestatutako ibilbidea izango da. Baina ez dituzte baztertu bizikletan horrenbeste ez dabiltzanak, eta ibilbide motzagoa ere prestatu dute, 26,5 kilometro dituen, eta luzeak baino malda txikiagoa duena. Antolatzaileak 08:15etik egongo dira izenak hartzen (federatuek 10 euro; besteek 15).



Bergaran egindako martxaren ostean dator Eskoriatzako, domekan.

GOIENKARIA

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehen maila

Levante-Reala
Domeka. 17:00. Valentzia.

Gazteen liga nazionala

Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Berazubi.

Gazteen euskal liga

Bergara-Peña Ath. Santurtzi
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Ohorezko erregional maila

Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Pasajes-Bergara
Zapatua. 16:30. Don Bosco.
Aretxabaleta-Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.

Erregional preferentia

Mutriku-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Mutriku.

Antzuola-Orioko
Zapatua. 16:15. Estala
Lazkao-Mondra
Zapatua. 17:30. Arizti Handi.

Lehen erregionala

Bergara B-Urki
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Aretxabaleta-Eibartarra
Zapatua. 16:00. Ibarra.

Ohorezko gazteak

Mondra-Zarautz
Zapatua. 16:30. Mojategi
Aloña Mendi-Urola
Domeka. 16:00. Azkoagain.

Lehen mailako gazteak

Bergara B (Atsedena).
Eibartarra-Aretxabaleta B
Domeka. 18:00. Unbe.
Arizmendi UDA B-Eibartarra.
Domeka. 16:00. Almen.

Ohorezko kadeteak

Beasain-Bergara
Zapatua. 12:00. Beasain.
Aretxabaleta-Amaikak Bat
Domeka. 12:00. Ibarra.

Kadeteen lehen maila

Bergara B (atsedena)
Arizmendi UDA-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Almen.
Aloña Mendi-Ilintxa
Domeka. 11:30. Azkoagain.
Aretxabaleta-Arrasate
Domeka. 10:00. Ibarra.

Ohorezko infantilak

Aloña Mendi (Atsedena)
Bergara-Elgoibar
Domeka. 15:45. Ipintza.
Lagun Onak-Arrasate
Zapatua. 10:45. Azpeitia.
Aretx. Arizmendi-A. Ondarroa
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Infantil partaidetza

LEK-Mutriku
Zapatua. 10:45. Mojategi.
Aurrera-Aretxabaleta
Domeka. 11:00. Zaldupe.
Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Infantil txikiak

Arrasate-Eibar
Domeka. 11:00. Mojategi.
Bergara B-Ordizia B
Domeka. 11:30. Ipintza.

Alebinak

Ilintxa-Aloña Mendi
Domeka. 12:30. Legazpi.
Amaikak Bat-Aretxabaleta
Domeka. 11:00. Legazpi.
Bergara-Arrasate
Domeka. 09:30. Legazpi.

Emakumezkoen liga

Lagun Onak-Arizmendi
Zapatua. 19:15. Azpeitia.
Mutriku-Mondra
Zapatua. 15:30. San Miguel.

Emakumezkoak, gazteak

Añoaga-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Rezola.
Arizmendi-Oiartzun
Zapatua. 12:00. Almen.
Bergara-Euskalduna
Domeka. 17:30. Ipintza.

Emak. kadeteak F11

Mondra-Bergara
Zapatua. 12:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Mutriku
Domeka. 09:30. Mojategi.
Ilintxa-Arizmendi
Zapatua. 09:30. Bikuña.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa

Tolosala-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Tolosa.

Bigarren maila

2king-uak-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Mutriku.

Hirugarren maila

Hirukide Barrantol-Aloña
Zapatua. 18:00. Tolosa.

Gazteak

Hirukide-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Tolosa.

SASKIBALOA

Lehenengo nazional maila

Askartza-Sustrai Aloña M.
Zapatua. 18:00. Leioa.

Senior gizonezkoak

Santo Tomas-MU
Zapatua. 20:00. Donostia.

Seniorrak, bigarren maila

Errotaundi-Soraluce BKE
Domeka. 17:00. Azpeitia.

Senior emakumezkoak

Sustrai Aloña Mendi-Easo
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Senior emakumezkoak
Eskoriatza-Oiarso
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Gazte gizon. partaidetza

Easo94-MU B
Domeka. 12:00. Oiartzun.
Soraluce BKE-Inter Lizardi
Zapatua. 12:15. Bergara.
Gamon-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Errenteria.

Gazte emaku. partaidetza

Aloña Mendi-Erroibide
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa

Soraluce BKE-Hondarribia
Zapatua. 18:00. Labegarai.
Romo-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Getxo.

Gipuzkoako txapelketa

Arrasate-Egia reloj.
Domeka. 11:30. Arrasate.

Gipuzkoako bigarren mail.

BKL-Izarraitz Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Beasain.

Gipuzkoako gazteak, gizo.

Leizaran-Bergara
Domeka. 11:30. Andoain.
Aloña Mendi-Katilu
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako gazteak, emak.

Bergara-Soraluce-Egia Bera
Zapatua. 16:30. Labegarai.
Aloña Mendi-Ereintza
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Kadete gizonezkoak

Talleres Chapime-Soraluce B
Domeka. 10:00. Arrasate.
Irungo-Berezo Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Irun.

MENDIKO BIZIKLETA

Eskoriatzako martxa

Domeka. 09:00. Eskoriatza.

ERRUGBIA

Senior Euskal liga

Kanpanzar ART-Getxo
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Senior emakumezkoak

Getxo-Arrasate/Durango
Zapatua. 18:00. Getxo.

XAKEA

Arrasate Hiria

Bigarren jardunaldia.
Egubakoitza, 19:00.

SQUASHA

Euskadiko liga txap.

Egubakoitza. 18:30ean
hasita, Musakolan.



Arrasateko seniorrek Getxo hartuko dute bihar

Igor Isasik zuzentzen duen taldea ligako lehen garaipenaren bila zelaraituko da bihar, zapatuan, Mojategira (16:00).

■ ELKARRIZKETA: NURIA SANCHEZ / ZIRT-ZART ILE-APAINDEGIKO UGAZABA

"Keratina ilea leuntzeko tratamendu berritzailea da"

MIREIA BIKUÑA

Zirt-Zart ile-apaindegian zerbitzu berriak ematen hasi dira: ilea leuntzeko aproposak diren produktuak eta tratamenduak eskaintzen dituzte. Gainera, manikurak egiten hasi dira, eta hiru astean hondatzen ez den azazkaletako esmaltea erabiltzen hasi dira. Zerbitzu berriez egin dugu berba ile-apaindegiko ugazaba Nuria Sanchezekin.

Hainbat zerbitzu berri dituzue. Horetako bat da keratina tratamendu berria. Zertan datza?

Ilea leuntzeko tratamendu apurtzailea da. Debagoieneko bizilagun gehienok ilea kizkurtuta daukagu hezetasun handia dagoelako gurean. Tratamendu horrekin ilea leundu egiten da.

Ile-apaindegian bertan egiten dugu: keratina apur bat ematen diogu bezeroari ilean, eta etxera joaten da. 72 ordu egon beharko du produktuarekin, ilea garbitu edo busti barik. Ondoren, xanpu berezi batekin ilea garbituko du, eta listo.

Tratamendu bakar nahikoa da ilea betiko leuntzeko?

Ez, tratamendu bakoitzak hiru eta bost hilabeteko iraupena du, ilea zenbat aldiz garbitzen den arabera. Epe hori pasata berriro ere egin beharko da tratamendua, baina oso eraginkorra da.

Bezeroek nola erantzun dute produktu berriaren aurrean?

Ilea leuntzeko keratina miraria da. Orain dela gutxi hasi gara produktu horrekin, baina bezeroak hasi dira tratamendua erabiltzen. Emaitzak ikusi ondoren oso gustura geratzen dira.

Urre likidoa ere erabiltzen hasi zarete.

Arganeko olio ere erabiltzen dugu, bai. Askok *urre likido* moduan ezagutzen dute, eta ilea saneatzeko, garbitzeko erabil daiteke. Adibidez, Indiako emakumeek Arganeko olio erabiltzen dute ilea saneatzeko.

Ikusten duzuen moduan, ile-apaindegiko produktuetan ere aurrerapauso garrantzitsuak ematen dituzte, eta guk gure bezeroei eskaintzen dizkiegu.

Eta debagoiendarrek erabiltzen dituzte produktu berritzaile horiek?

"Indiako emakumeek Arganeko olio erabiltzen dute ilea saneatzeko"

"Hiru astean hondatzen ez den esmaltea erabiltzen dugu manikuran"

Bai. Beti esan izan dugu oso tradizionalak garela, baina iturrari dagokionez nahiko ausartak gara produktu eta tratamendu berriak probatzeko orduan.

Ni neu produktu eta joera berriak probatzearen aldekoa naiz eta hori transmititzen diet nire bezeroei.

Gainera, produktu ekologikoekin hasi zarete lanean.

Bai, hala da. Kontserbagarriak eta sulfatorik ez duen produktu-sorta berria erabiltzen dugu bi ile-apaindegietan. Hala, bezeroen ilea gutxiago kaltetzen dugu, eta baita ingurumena ere.

Azazkalak margotzen dituztenendako esmalte berezia duzue.

Azazkalak margotu eta hiru astean hondatzen ez den esmaltea dugu. Gainera, manikurak egiten hasi gara. Azazkalak indartzeko kaltzioa erabiltzen dugu. Ondoren, manikura egiten dugu: betiko manikura edo *frantziarra* delakoa. Geroz eta jende gehiagok zaintzen ditu azazkalak. Batzuk ile-apaindegira etortzen dira bakar-bakarrik manikura egitera.

Bi ile-apaindegi dituzue.

Arrasaten Otalora Lizentziaduna kalean gaude eta Aretxabaletan Gorbeia kalean. Orain dela 19 urte zabaldu genuen Aretxabaletako ile-apaindegia. Ohiko zerbitzuak eta zerbitzu berriak ematen ditugu, eta gure ateak zabalik daude bezero guztiendako.



Nuria Sanchez, Aretxabaletako ile-apaindegian.

EDURNE GOROSABEL

LISO LEUNA SEXY

www.keratincomplex.es

KERATIN COMPLEX
smoothing therapy

AGUR LEUNTZE KIMIKOARI
ILEA LEUN EZAZU KERATINA EMANDA

ZIRT-ZART ILEAPAINDEGIA

Otalora 14 Gorbea 2 behea
943 71 20 15 943 77 09 44
(Arrasate) (Aretxabaleta)

Inoiz nahi izan duzu ile erabilerrazagoa eduki? Finagoa? Leunagoa? Distiratsua? Keratin Complex Smoothing Therapy by COPPOLA da erantzuna.

Leuntzeko sistema iraultzaile honek kutikula barruan keratina sorrarazten du, kizkurdurak eta kiribildurak ezabatzen ditu eta ilea leun eta distiratsu uzten du. Emaitzek hiru eta bost hilabete artean irauten dute, ile motaren arabera.

Gure bezeroek diote Keratin Complexek bizitza "aldatu" diela. Ilea gaztetu eta indartu egiten du, eta ukimenera distiratsu eta leun geratzen da.

"Keratin Complexek nire bizitza aldatu du! Denbora erdian orrazten dut ilea. Emaitzak sinestezinak dira"

Salon Client — New York, NY

Beste ile apaindegi batzuetako zerbitzuekin konparatuz, zure ilea osasuntsuago egongo da gero eta tratamendu gehiago jasota.

- Leunago.
- Distiratsua.
- Erabilgarriago.
- Orrazteko errazago.

Terapia honek ilearen folikulua keratinarekin estaltzen du, leuntzeko, konpontzeko eta babesteko, eta ez die uzten sartzen toxinei, hala nola kutsadurari, keari eta izpi ultramoreei.

Keratin Complex hain da delikatu, edozein ile motatan eman ahal da, baita prozesu kimikoak jasan dituzten ileetan ere (koloredunak, dekoloratuak, metxadunak...).

Terapia hau baimendutako ile-apaindegietan bakarrik egin daiteke.



KERATIN COMPLEX
smoothing therapy

1. KONTZERTUA

urriak

22

EGUBAKOITZA

22:30

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUA //
SALGAI DAUDE:
1 > GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

BLACK RIVER
OÑATI

DESPREZIO
ARRASATE-BERGARA

LORD WITCH
BERGARA

LA-TOX
BERGARA



www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEAK





> **OLENTZERO**
'Olentzero & Company'-rako sarrerak salgai daude > 32



> **KONTZERTUA**
Gas eta Belgikako The Experimental Tropic Blues Band taldeak Oñatin > 33

> **IÑAKI CERQUEIRA**
Oñatikoa da eta 32 urte ditu. DJ Kirrin moduan ezagutu genuen arren, musika estudioa dauka eta managerra da orain > 34



Datorren barikuan hasiko da Danbakaren laugarren edizioa

SARRERAK

Sarrerak salgai daude 5 eurotan; Gazte Kutxarekin erosita, berriz, 3 eurotan

BABESLEAK

Kutxa eta Mondragon Unibertsitatea dira Danbakako babesle nagusiak

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE

Guztia prest dago IV. Danbaka musika lehiaketako lehenengo kontzerturako. Atzo, eguena, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egindako prentsaurrekoan aditza eman zuten Danbakaren parte hartuko duten hogeitazaleek noiz joko duten zuzeneko emaldia.

DISKOA ETA BIDEOKLIPA

Aurtengo edizioan bi sari egongo dira: alde batetik, Kutxak talde onenaren saria emango du; disko bat grabatzea; eta beste alde batetik, Mondragon Unibertsitateak Debagoieneko talde onenaren saria emango du; bideoklip bat grabatzea.

Baina kontzertuekin gozatzea joaten diren ikus-entzuleen artean zozketatzeko ere badaude sariak: lehenengo kontzertuan, ESAITen eskutik ESAITeko materiala zozketatuko dute: zira, txapela eta kamiseta; bigarren eta laugarren kontzertuetan, Danbakako materiala banatuko dute: kamisetak eta DVDak; hirugarrenean eta bosgarrenean, Ganesha Tattoo-ren eskutik tatuaje bonuak zozketatuko dituzte; eta finalean, Laino Skate Park-en eskutik skate materiala eta urtebeteko sarrera Laino Skate Park-era zozketatuko dituzte.

KUTXA ETA MU BABESLE

Egueneko prentsaurrekoa babesleekin egin zen eta bertan izan ziren Iker Barandiaran, Danbakako koordinatzailea; Iñaki Altuna, Kutxa Gizarte Marketineko zuzen-



Danbakako koordinatzailea, Espaloiko arduraduna eta Kutxa eta MUKo ordezkariak Danbakako irudi berriekin.

A.T.

Kontzertuak

ELGETAKO ESPALOA ANTZOKIAN, 22:30EAN

URRIAK 22	AZAROAK 5	AZAROAK 19	AZAROAK 26	ABENDUAK 17
Black River (Oñati)	El Trio Calavera (Oñati)	Doctors Klub (Abadiño-Durango)	Xarma (Ondarroa)	Dark Code (Bergara)
Desprezio (Soraluze-Bergara)	Rock Privado (Oñati-Donostia)	Rombos Negros (Bergara)	Txusters (Eibar)	Kubers (Soraluze)
Lord Witch (Bergara)	Front Malabar (Arrasate)	Karpovian Project (Mutriku)	Seafóid (Eibar)	Asfiksia (Oñati)
La-Tox (Bergara)	Ymotek (Abadiño)	Ez! (Oñati)	Scam (Aretxabaleta)	Industria Dolor (Arrasate)

daria; Jaione Gartzia, Elgetako Kutxako zuzendaria; Susana Azpilikueta, Mondragon Unibertsitateko komunikazio arduraduna; eta Gorka Arizmendiarieta, Espaloia Kafe Antzokiko arduraduna.

Danbakako laguntzaile nagusiak Kutxa eta Mondragon Unibertsitatea dira. MUK gazte ekin-

tzaille eta sortzaileengan sinisten duelako laguntzen du Danbaka. Kutxak, berriz, proiektu gazte eta freskoa indartu nahi du.

Babesle txikiago batzuk ere baditu Danbakak: Gaurko Sein taldea, Ganesha Tattoo, Laino Skate Park, Shot, Gaztelupeko Hotsak eta Elgetako Udala.

Danbaka zabaltzen den beste eskualdeetako, Debabarreneko eta Durangaldeko herri aldizkariak ere laguntzen dute. Hauek dira: Debabarreneko Eibarko *Eta Kitto!*, Elgoibarko *Barren* eta Soraluzeko *Pil-Pilean*; Durangaldeko *Anboto*; eta Ermuko *Drogeteniturri*.

Antolatzaileak Goiena eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokia dira eta atrezzoaz eta argiztapenez, berriz, Jabi Ulia arduratu da.

SARRERAK 5 EUROTAN

Sarrerak erosteko hiru modu daude: Goienako edozein egoitzatan eta Elgetako Espaloian eros daitezke; edo, bestela, telefonoz ere badago aukera, 943 25 05 05 zenbakira deituta.

Sarrerak 5 eurotan salduko dira, baina Gazte Kutxarekin erosiz gero 3 euro balioko dute.

Gainera, kontzertu guztiak -finala barne- ikusteko bonu berezi batzuk ere egongo dira. Bonu horiek 22 eurotan salduko dira. Gazte Kutxarekin erosita, berriz, 12 euro ordaindu behar da.

ESANAK

"Danbakak laugarren edizioa du eta dagoeneko bailarako musikazaleok tatuatuta daukagu Danbaka eta musika"

Iker Barandiaran > Koordinatzailea

ESANAK

"Beti izango dugu asmoa eta gogoa Danbaka bezalako proiektu berri eta gazteetan inbertitzeko"

Iñaki Altuna > Kutxa

ESANAK

"Publiko gazteari zuzendutako ekimena da eta bat egiten du bertako kulturarekin duen konpromisoarekin"

Susana Azpilikueta > MU

KULTURA > MUSIKA

'Olentzero&Company' musikalerako sarrerak salgai daude 15 eta 18 eurotan

Euskarazko formatu handiko musikala abenduaren 11n eta 12an estreinatuko da Arrasaten, eta sarrerak 'www.kutxa.net'-en eros daitezke

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Olentzero&Company musikaleko sarrerak salgai daude dagoeneko. Atzo ezkerro eros daitezke www.kutxa.net webgunean 15 eta 18 eurotan. Musikala Arrasateko Amaia antzokian estreinatuko dute abenduaren 11n eta 12an, 17:00etan. Lehenengo emanaldia zuzenean grabatuko du Goiena Telebistak, eta ondoren DVDA salgai jarriko dute.

Sarreraren salmentaz, musikaren estreinaldiaz eta Pesarekin egin duten akordioaz egin zuten berba Oihan Vega zuzendariak eta Txemi Etxebarria musika zuzendariak eguaztenean.



Oihan Vega eta Txemi Etxebarria eguazteneko agerraldian.

M.B.

AUTOBUSERAKO TXARTELAK DOAN

Musikala ikusi gura dutenek sarrerak eros ditzakete Kutxaren webgunean: haurrendako sarrerak 15 eurotan eta helduenak 18 eurotan. Baina abenduaren 1a baino lehen erosten dutenek 15 euro ordaindu beharko dute.

Oihan Vegak esan zuen emandiko bikoitza egingo dutela: "Abenduaren 11n eta 12an egingo dugu musikala Amaia antzokian, 17:00etan". Eta, ahalik eta ikusle gehien erakartze aldera, akordioa egin dute Pesarekin: musikalerako sarrera erosten dutenek doan izango dute autobusa. "Musikalerako sarrera erosita, nork bere herriko musika eskolan jaso beharko du autobuserako txartela. Musika eskolan zigilua jarriko diote sarrerari eta txartelari", esan zuen Vegak.

Musikalera joateko autobusak Pesak indarrean dituenak izango dira. Hori horrela, jarlekuak mugatuak izango dira. "Kolore askotariko autobus txartelak banatzen dituzte, eta bertan agertzen diren ordua eta eguna errespetatu beharko dira, autobus geltokietan arazorik

egon ez dadin", esan zuten. Itzulerako bidaia nork bere kontura egin beharko du.

Txemi Etxebarriak esan zuen gogor dihardutela lanean: "Orain dela hiru urte sortu genituen musikaleko lehen notak. Orduko ametsa egia bihurtu da".

ESANAK

"Orain dela hiru urte sortu genituen musikaleko lehen notak. Orduko ametsa egia bihurtu da"

Txemi Etxebarria
> Musika zuzendaria

"Sarrera erosita, nork bere herriko musika eskolan jaso beharko du autobuseko txartela"

Oihan Vega > Zuzendaria

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00

HILEKO
3. ZAPATUAN

urriak 16

azaroak 20



Argazkia: Martin Diez Zurutuza

Antolatzailea:  ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Laguntzailea:  Ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.

MUSIKA > GAZTEMANIAK

Oñatiko heavy metala eta Belgikako rock azkarra

Gaztemanien eskutik, The Experimental Tropic Blues Band belgikarrek eta Gas oñatiarrek joko dute gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Foru Aldundiko Gazteria Sailak antolatzen duen Gaztemaniak musika egitarauaren barruan, Belgikako The Experimental Tropic Blues Band taldeak egingo du kontzertua gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan. Gaztemanien antolatutako kontzertu guztietan ohikoa den moduan, lehenengo, herriko talde batek berotuko du giroa; kasu honetan, Oñatiko Gas talde gaztea igoko da agertokira. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera 7 euro da.

'DEABRUZKO' HIRUKOTEA

Rocka, bluesa, punka... hori lantzen dute The Experimental Tropic Blues Bandekoek; hori guztia, erritmo bizian, azkarrean, eta probokazio eta exhibizionismo ukitu nabarmenarekin -inoiz arazoak izan dituzte agertoki gainean jarrera adierazgarriena izateagatik-, batez ere Dirty Wolf (Otso Zikina) gitarratzailearen eskutik. Taldea hark

eta Devil D'Infernok (bateria, perkusioa) osatu zuten 2000n, Liejan; Arte Argazkilaritza eskolan ezagutu zuten elkar, eta lehenengo kontzertua danbor bakarreko baxu batekin eta apurtutako banjo batekin egin zuten.

Snake Boogie, taldeko *sugea*, geroago sartu zen taldean -Dirty Wolf-ekin nerabegarotik ibili bazen ere Seasick noise-punk estiloko taldean-, baxua eta gitarra jotzeko. Lehenengo demoa 2001ean grabatu zuten, eta *Boogie Dynamite* izeneko EPa, 2004an. Lehenengo diskoa, *Hellelujah*, 2007ko urtarrilean kaleratu zuten, eta iaz, *Captain Boogie!* delako diskoa.

Adituen esanetan, bigarren diskoa aurrekoa baino hobea eta gogorragoa da, eta baita pertsonalagoa eta landuagoa ere, eta taldeak musikan buru-belarri aritzeko nahiari eutsi dio. Izan ere, disko horri esker kontuan hartu zituen Azkena Rock Jaialdiak 2010eko ediziorako. Bertan kriti-



The Experimental Tropic Blues Band, kontzertuan, Belgikan.

FREDERIC MINNE



Gas taldea.

GAS

ka bikainak jaso zituzten eta taburik gabeko rock-and-rollzaleek ezagutzeko aukera izan zuten.

Hemendik pare bat hilabetera, berri estudio lanean hasteko asmoa dute, hirugarren disko bat grabatzeko.

"GURE AURKEZPENA IZANGO DA"

Agertokira irteten lehenengoa, baina, Oñatiko talde oso gazte bat izango da: Gas. Heavy metala egiten dute, eta Su ta Gar eta Latzen dira euren eraginak. Kontzertu berezia izango da euren dako,

lehenengo aldiz joko dituztelako zuzeneko baten euren egindako abestiak. Iñigo Arrazola (gitarra eta ahotsa), Jon Lertxundi (gitarra), Ander Etxaniz (baxua) eta Gorka Mondragon (bateria) dira taldekideak, 17 urtekoa bat eta 18 urtekoak beste hirurak, eta esan digute "oso pozik" daudela kontzertua egiteko: "Gure aurkezpen moduko bat izango da, eta ilusio handiarekin gaude. Jendearen erreakzioa ikusiko dugu", esan digu Iñigo Arrazolak.

Orain arte, Oñatin egin dituzte kontzertu guztiak. Gaurkoaren ondoren, kanpoko lehen hitzordua dute: datorren egubakoitzean, Getarian. "Ea orain apur bat gehiago jotzen hasten garen", esaten du Arrazolak.

Hori gutxi balitz, euren lehenengo maketa ia grabatuta daukate: udan sartu ziren grabazio estudioan, Mutrikun, eta "laster" bukatuta izango dutela baieztatu digute. Datorren urtean aurkeztuko dute.

TXAPELKETA

Baseta eta Igartua, 3.ak dantza sueltoan

L.K. > BERGARA

Debagoieneko bi bikoteek emaitza onak erdietsi zituzten joan den domekan, urriak 10, Seguran jokatu zen 34. Euskal Herriko dantza suelto txapelketan. Mikel Igartua eta Ibane Baseta hirugarren sailkatu ziren, 115 punturekin, eta Aritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga bosgarren, 101 punturekin. Bi bikoteak bergararrak dira. Igartuak eta Basetak 400 euroko saria irabazi zuten.

TXAPELA, SESTAORA

Hamar bikote lehiatu ziren, eta txapelkunak Arkaitz Pascuas eta Nagore de las Cuevas sestaoarrak izan ziren, 121 punturekin.

ANTZERKIA

Yllanaren 'Zoo', adin guztietako ikusleentzat

L.K. > ELGETA

Yllana antzerki taldea, Debagoienean aski ezaguna, adin guztietako ikusleentzako moduko *Zoo* antzezlanarekin dator oraingoan. Aurretik Oñatin izan ziren lan horrekin; etzi, zapatua, Espaloian izango dira, 22:30ean.

OIHANEAN GALDUTA

Zoo antzezlaneko protagonistak esploratzaile zoro eta ausart batzuk dira. Oihanera joango dira, hiri handi bateko zoorako animalia exotiko bat harrapatu nahian. Euren kirtenkeriek abentura bisual bat abian jarriko dute, non ingurunea animalia erasokorrez betetako tranpa bihurtzen den.



Mochila 21 taldea.

GOIENKARIA

MUSIKA > MOCHILA 21

Down sindromedun gazteak eta 'El Drogas' kontzertuan

L.K. > ARETXABALETA

Euren herrian, Iruñean, eta kanpoan ere zeresan handia sortzen dabilta Mochila 21 taldea osatzen duten 12 musikari eta abeslari

gazteak. Down sindromea dute, eta talde hori osatu dute musikarekin gozatzeko eta ikus-entzuleak ere ondo pasarazteko eta, era berean, ingurukoekin beste modu

batera komunikatzeko. Jarduera horretan laguntasuna ematen dieten beste zazpi pertsona daukate, tartean luxuzko kolaboratzaileak: Barricadako Enrique Villarreal *El Drogas*, Mareako *Kutxi* eta *El Piñas* eta Tijuana in Blueko Mikel Barrenetxea. Debagoienean lehenengo aldiz izango dira bihar, zapatua, Aretxabaletako kultura etxeako Zaratia aretoan, 19:30ean. Sarrera 4 euro kobratuko dute.

Hainbat komunikabidek euren taldearen berri eman dute; TVEen bertan erreportajea egin zuten eurekin.

'WE WILL ROCK YOU'

Denetariko estiloak lantzen dituzte; hala, euren kontzertuak sorpresa atseginez beteta egoten dira: adibidez, emanaldi berean jo eta abestu izan dituzte Strauss konposatzaile klasikoaren *Horrela hitz egin zuen Zarathustrak*, Barricadaren *En blanco y negro* eta Queen-en *We will rock you* -dantza ere barne, azken horretan-; baita euren propio konposatutako *No somos distintos* (*Kutxi* Romero) eta *Mochila 21* (Enrique Villarreal) ere.

Iñaki Cerqueira > Managerra eta Wild Boa Records estudioko ugazaba

"Lehen soldatarekin erosi nuen DJ saioak egiteko beharrezko materiala"

Festetan musika ipintzen hasi zen 18 urterekin, DJ moduan; egun, Show Business eta Jukebox musi-

ka taldeen managerra da eta grabazio estudioa jarri du etxean. Oñatiko musika taldeekin egin

ditu grabazioak orain arte, baina beste eskaintza batzuk onartzeko prest dagoela esan digu.

Azkena Rock, BBK Live edo halakoren baten parte hartu gura-ko lukeela esan digu.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Iñaki Cerqueira da haren izena, baina gehienok DJ Kirrin moduan ezagutzen dute. Musika da haren zaletasuna. DJ lanak egiten hasi zen eta gaur egun managerra da. Zubillagan duen grabazio estudioan egon gara harekin.

DJ Kirrin moduan ezagutzen zaituzte askok. Nolatan heldu zinen mundu horretara?

Musikarako zaletasunak bulztatu ninduen. Musika ipintzea atsegin nuen, batez ere biniloak. 18 urterekin hasi nintzen eta lehen soldatarekin Technics platera eta mahaia erosi nituen; 90.000 pezeta gastatu nituen.

Ordutik hona, poliki-poliki, gaur egun dudan estudioa izatera heldu naiz.

DJ moduan emanaldi askotxo egin dituzu, baina aspaldian baztertuta duzu.

Bai, hala da. Emanaldi asko egin ditut, aretoetan, kirol hitzorduetan...Orain dela lau aste Cuenca egon nintzen. Baina egun, baztertuta daukat DJ lana.

Aldizka ezkontzaren batera joaten naiz, baina gauetako emanaldiak alde batera utzi ditut, oso nekagarriak dira-eta.

Dena den, musikan jarraitzen duzu. Musika taldeen managerra zara.

Oñatiko Show Business taldekoek bigarren diskoa grabatu zutenean laguntza eskatu zidaten. Grabazioarekin lagundu nien, eta baita diskoaren promozioarekin ere. Horrela hasi nintzen.

Zer egiten du manager batek?

Taldearendako zuzenekoak lotzen ditut. Musika aretoetara eta gaztetxeetara taldearen gaineko informazioa bidaltzen dut. Oro har, promozio lana egiten dut.

Egun, Show Businessekin batera, Arrasateko Jukebox taldearen managerra ere banaiz.

Eta zer moduz doa bi taldeak promozionatzeko lana?

Nahiko nukeena baino okerrago. Musika mundua oso geldi dago eta zuzenekoak topatzea oso zaila da guztiondako. Taldeak doan eskaini arren, ez ditut kontzertuak lotzen. Baina ez dut etsiko.

Dena den, manager lana urte askoko lana da. Kontaktuak ezinbestekoak dira halako lana egiteko. Esperientzia ere beharrezkoa da.



MIREIA BIKUÑA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 32 urte. **Ikasketak:** Soinu teknikari ikasketak eta hainbat ikastaro. **Zaletasunak:** Musika eta bizikletan ibiltzea. **Gomendatzeko moduko film bat:** Brian de Palmaren *Redacted*. **Liburu bat:** Orain dela gutxi hasi naiz irakurtzen, baina Javier

Paniaguaren *Breve historia del socialismo y el comunismo* aukeratuko nuke. **DJ bat:** Egun onena dena: *Accion Sanchez*, eta tekno munduan diharduen Oscar Mulero. **Musika talde bat:** Show Business. **Bidaiatzako leku bat:** Australia edo Kalifornia.

Golpe de Estado, Sospechosos, Los Cretinos, Drakes eta Show Business taldeak zure estudio-tik pasa dira.

Golpe de Estadoren maketa izan zen grabatu nuen lehena, eta azkena Show Business taldearen *Pozoindutako hitzak* diskoa. Bi grabazioen arteko aldea oso handia da. Musikan ere berrikuntza asko egon dira azken urteotan.

Non grabatu dituzu diskoak?

Azkenak musika eskolan grabatu ditugu. Ondoren, postproduzioa nire estudioan egiten dut: pistak garbitu, ekualizatu, editatu, behar ez direnak kendu, kantuak txukundu, masterra egin...

Gustura zaude Show Business-koen azken lanarekin?

Bai. Taldea ona denean, disko onak egin daitezke, eta Show Business musika ona egiten duen taldea da. Diskoak eta maketak grabatzen nabilenetik ikasitako guztiak *Pozoindutako hitzak* diskoan bildu ditut. Gauza batzuk hobeto egin zitezkeen, baina diskoa oso ona da.

Ze aretotan egingo zenuke DJ emanaldi bat?

Hori baino gusturago hau egingo nuke: Azkena aretoan edo BBK Live jaialdian soinu teknikari lanak egingo nituzke Show Business edo Jukeboxen zuzenekoaren baten. Izugarria izango litzateke!

Oñatin musika talde asko daude. Haiekin lan egiteko asmorik duzu?

Aspalditik proiektu bat daukat esku artean: Oñatiko musika talde guztiarekin disko bat grabatu nahiko nuke. Alegia, talde bakoitzaren kantu batekin diskoa osatu. Orain dela lau urte hasi nintzen, baina bertan behera utzi nuen.

Oñatin talde asko daude, 20tik gora edo, eta guztiak koordinatzea zaila da. Edozelan ere, bi urteren buruan egin nahiko nukeen lana da.

Hip-hop musika ere gustuko duzu.

Bai, atsegin dut, entzuteko, produzitzeko eta grabazioak egiteko. Kulturkab hip-hop taldea utzi nuenetik gogoia dut beste proiektu baten sartzeko. Talderen batek laguntza behar badu, informazio guztia dauka www.wildboarrecords.com-en.



Amaia Velez de Mendizabal eta **Iñigo Ibartzabal** bergararrak irailaren 11n ezkondu ziren. Zelai Zabalen eztei-bazkaria ospatu eta eztei-bidaian Kubara joan dira. Koadrilakoen eta familiakoen partetik, zorionak!



Sonia eta **Nuno** ezkondu ziren egun berean bataiatu zuten euren umea. Urriaren 9an izan zen, Arrasaten. Zorionak, hiru-kote, familiaren eta laguneren partetik.



Nikolas Erostarbe eta **Milagros Garitano** oñatiarrek urrezko ezteiak ospatu dituzte urriaren 12an. Bikotea 1960ko urrian ezkondu zen Bergarako San Prudentzio elizan, Elorregi auzoan. Familia osoaren partetik, zorionak eta muxu handi bat.




Bergarako **Nerea Larrañaga** eta **Gotzon Mendizabal** bihar ezkonduko dira Mariaren Lagundiko elizan; jarraian, Etxeberri jatetxean bazkalduko dute. Familia eta lagun guztion partetik ondo pasa eguna eta ondo ibili eztei-bidaian ere!




Eneritz Urbietta bergararra eta **Bixen Gartzia** bihar, urriaren 16an, ezkonduko dira Elorrioko parrokian. Ondoren, bazkaria Makatzeta jatetxean egingo dute. Zorionsuak izan familiakoen partetik eta asko disfrutatu, bai ezkontzan eta baita Argentina aldean ere.



Agustín Dominguezek eta **Maribi Carrillok** zilarrezko ezteiak bete zituzten urriaren 12an. Bihar, zapatua, ospatuko dute Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. Familiaren partetik, zorionak!



Rakel eta **Azibar** Oñatiko udaletxean ezkonduko dira urriaren 16an. Ezkon bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean egingo dute. Zorionak eta patxo handi bat, familiaren partetik.



Usoa Agirre antzuolarra eta **Joseba Goikoetxea** amezketarra hilaren 16an ezkonduko dira Albizturko elizan. Goienako lankide guztion partetik ondo-ondo pasa eztei bidaian eta oso zorionsua izan bizitzako etapa berrian! Muxu handi bat denon partetik!



María Fuente eta **Unai Aramendi** oñatiarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Oñatiko agustindarren elizan. Bazkaria Lierniko Mujika jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Maien Erriberara joango dira. Zorionak, bikote, etxeakoen eta koadrilakoen partetik.



Tomas Iturbe bergararra eta **Fermina Leturiaga** urrexolarra 1960ko urriaren 11n ezkondu ziren Bergaran. Urrezko ezteiak eta Ferminak berak urtebetetzea betetzen dituzten honetan, zorionak opa dizkiete seme-alaba, biloba eta etxeko guztiek.



Bergarako **gaittaotarrek** urrezko ezteiak ospatuko dituzte oraingo domekan. Izan ere, gaur, urriak 15, beteko dira 50 urte ezkondu zirela Garitano anai-arrebak. Hain justu ere, **Esteban Garitano** eta **Eugenia Untzila**; **María Luisa Garitano** (alarguna) eta **Estanislao Kortabarría**, eta **Julian Aginagalde** eta **Zelestina Garitano** (eskumako argazkia). Domekan, familia guztia batuko da Arantzazun, meza ostean, mahaiaren bueltan.



astea GOITBn

Egubakoitza, 15	Zapatua, 16	Domeka, 17	Astelehena, 18	Martitzena, 19	Eguaztena, 20	Eguena, 21
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Ipupomamua.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	11:00 Ipupomamua.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Onein.	11:30 28 Klip.	11:30 Berbetan.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.
14:45 Berriak.	12:00 Erloklip	12:30 Goiena	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur.	12:30 Goiena	Magazinea	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Iragana	15:15 Gipuzkoa
15:45 Erloklip.	Magazinea.	tertulia.	15:45 Zarauzko surf txapelketa.	15:50 Txakolin eguna.	gogoratuz.	kultura.
16:15 Herrietan bizi	13:30 Eltze beroa.	13:30 Ur eta lur.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	15:50 Onein.	15:45 Goiena
16:45 Berriak.	14:00 Animalia.	14:00 Onein.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:20 28 klip.	Magazinea,
17:15 Marrazki bizidunak.	14:30 Ipupomamua.	14:30 Goiena	16:45 Berriak.	17:10 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	tertulia.
18:00 Ipupomamua.	15:00 Marrazki bizidunak.	Magazinea.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:35 Harmailatik.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.
18:45 Berriak.	18:00 Ur eta lur.	15:30 Gipuzkoa	17:45 28 Klip.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Kantari.	18:30 Gipuzkoa	Kultura.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	17:45 Onein.
19:45 Goiena	Kultura.	16:00 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.
Magazinea.	19:00 Herriz-herriz.	18:15 Ipupomamua.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena	19:45 Goiena	19:15 Kantari.
20:45 Gipuzkoa	19:30 Animalia.	19:15 Goiena	19:45 Goiena	Magazinea.	Magazinea.	Magazinea.
kultura.	20:00 Goiena	Magazinea	19:45 Goiena	20:45 Goiena	20:45 Goiena	20:45 Ipupomamua.
21:15 Goiena	Magazinea.	tertulia.	20:45 Harmailatik.	Magazinea	Magazinea	21:15 Goiena
Magazinea.	21:00 Ikusmira.	20:15 Harmailatik.	21:30 Goiena	21:30 Goiena	21:45 Goiena	Magazinea.
22:15 Nire herria:	21:45 Goiena	20:45 Goiena	Magazinea.	Magazinea.	Magazinea.	22:15 Gipuzkoakultu-
Zaldibi.	Magazinea	Magazinea.	22:30 Harmailatik.	22:30 Harmailatik.	22:45 Goiena	ra.
22:45 Kirolerokak.	tertulia.	21:45 Gipuzkoa	23:00 Gipuzkoakultu-	gogoratuz.	Magazinea	22:45 Zarauzko surf
23:45 Goiena	kultura.	kultura.	ra.	23:00 28 Klip.	tertulia.	txapelketa.
Magazinea.	23:15 Harmailatik.	22:15 Mokolo gau	23:30 Goiena	23:30 Goiena	23:45 Txakolin	23:45 Goiena
00:45 Emisio	Zaldibi.	batez.	Magazinea.	Magazinea.	eguna.	Magazinea.
amaiera.	00:15 Emisio	00:15 Emisio	00:30 Emisio	00:30 Emisio	00:15 28 klip.	00:45 Emisio
	amaiera.	amaiera.	amaiera.	amaiera.	00:45 Emisio	amaiera.

OROIGARRIA

Eulogio Urrutia Makazaga

Alicia Urrutia gure lankidearen aita

Bergaran hil zen 2010eko urriaren 9an, 86 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.



Arizmendi


Arizmendi ikastolako lankideak Leintz bailaran, 2010eko urriaren 15ean.

ESKER ONA

Eulogio Urrutia Makazaga 'Bitxurtu'

Bergaran hil zen 2010eko urriaren 9an, 86 urte zituela.

Elkartasuna adierazi diguzuenoi, esker mila sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko urriaren 15ean.

ESKER ONA

Mari Carmen Larrañaga Azpiazu

Gasteizen hil zen 2010eko urriaren 11n, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko urriaren 15ean.

ESKER ONA

M. Pilar Murgiondo Guridi

2010eko urriaren 9an hil zen, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko urriaren 15ean.

ESKER ONA

Timoteo Idigoras Badiola

Arrasaten hil zen 2010eko urriaren 12an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko urriaren 15ean.

URTEURRENA

Manuel Gonzalez Sanchez

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrak sendikoen izenean.

URTEURRENA

Agustin Urrutia Zubizarreta

Zazpigarren urteurreneko meza domekan, urriaren 17an, 11:50ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian ospatuko da.

Emazteak, seme-alabek, familiak eta lagunek ez zaitugu ahazten.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrak sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Ramon Uribeetxebarria Zugasti

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 17an, 11:50ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian ospatuko da.

Zure irrifarra eta maitasuna, betirako gurekin gelditu dira. Sekula ez zaitugu ahaztuko.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrak sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mikel Odriozola Igartua

Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

Bosgarren urteurreneko meza domekan, urriaren 17an, 11:50ean, Oñatiko Urbiako ermitan.

Laster arte espainetan utzi gaituzu penetan orain gure ametsetan *bizirik zaude benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.*



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrak sendikoen izenean.

URTEURRENA

Rosarito Letamendi Zelaia

Laugarren urteurreneko meza, zapatuan, urriaren 16an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Beti topatzen zenuen barre egiteko arrazoien bat eta horrela gogoratuko zaitugu, irribarrez.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrak sendikoen izenean.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea




Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Urriak 15-21

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Ikuskizuna



ARRASATE

> Nats Nus talde katalanak 'Momentari' dantza ikuskizun saritua egingo du

Familia osoarendako ikuskizunean, Tari izeneko pertsonaiak zoriona dakarten une txikien bilduma erakutsiko digu. Antzezlanak dantza ikuskizun onenaren Feten aipamena jaso zuen. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.

Antzerkia



ARAMAIO

> Euskaldunon bizitza sexualaren gaineko antzezlan zoroa ikusgai

Patxo Telleria eta Mikel Martinez, Ez Dok Hiru Bikoteatroko kideak, *Larru haizetara* antzezlanarekin datoz gaur, egubakoitza, kultura etxera (22:00). Aitzakia euskaldunon "bizitza sexual... triste?" da; helburua, barre egitea.

Omenaldia



OÑATI

> Arzuaga anaien omenezko meza eta Iruñeko abesbatza baten emanaldia

Gazte hil ziren Arzuaga anaia oñatiarren aldeko meza izango da bihar, zapatua, agustindarren elizan (19:00). Segidan, Iruñeko Coro de Voces Graves gizonaen abesbatzak (argazkian) kontzertua egingo du.

dituzten bi argazkilariek irabaziko dituzte bi sariak: 150 eta 100 euro.

Gaztelekuko kuboan, egunero, 18:30etik 20:00etara.

ARAMAIO

> Aramaio margo lehiaketako lanak ikusteko aukera

Aramaio eta bere ingururen gaineko margo lehiaketako lanak erakusketan ipini dituzte. Urriaren 22ra izango da haiek ikusteko parada.

Sastiñan, urriaren 22ra arte.

OÑATI

> Ceuta eta Melillaren gaineko argazkien erakusketa

La frontera, mezcla etnre culturas delako argazki erakusketa ipiniko dute gaur, egubakoitza, kultur etxeko erakusketaretoan. Fidel Raso eta Koro Cantabrana argazkilariek ateratako erretratuek eta Tamara Crespok idatzitako testuek osatzen dute. Azaroaren 7ra arte izango da zabalik.

Aurretik, 18:30ean, hitzaldia egingo da, leku berean.

Egunero, 18:00etatik 20:00etara.

ARETXABALETA

> 'El Torbellino' aretxabaletarren gaineko erakusketa

Toreatzaile eta boxealari izandako *El Torbellino* ezizen ezaguna zen aretxabaletarren gaineko erakusketa dago Arkupen urri osoan.

Astelehenerdik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; domeketan eta jaiegunetan, itxita.

Antzerkia

ELGETA

> Yllana taldeak familia osoarendako 'Zoo' antzezlan egingo du

Yllana taldea bueltan dugu, oraingo honetan adin guztiarako ikusleendako moduko antzezlan batekin: *Zoo*. Bertan, esploratzaile zoro batzuk oihanean topatuko ditugu, animalia exotiko baten atzetik.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

BERGARA

> Umeendako antzezlan egingo du Oihulari Klownek

Mamu txikiak izeneko ume txikiei zuzendutako kale antzerkia egingo dute Oihulari Klown taldekoek. Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak lagundutako emanaldia da.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 18:00etan.

Musika

OÑATI

> The Experimental Tropic Blues Band eta Gas taldeak, zuzenean

Gaztemaniak egitarauaren barruan, Belgikako The Experimental Tropic Blues Band taldeak kontzertua egingo du. Aurretik, Oñatiko Gas taldeak joko du.

Sarrera 7 euro da.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

ARETXABALETA

> Mochila 21 taldeak kontzertua egingo du zapatuan

Down sindromea duten Iruñeko 12 gaztek osatzen dute Mochila 21 taldea. Perkusiozko instrumentuak eta haizezko instrumentu batzuk jotzen dituzte, eta abestu eta dantza ere egiten dute, luxuzko laguntzaileekin: *El Drogas*, eta

Marea edo Tijuana in Blue taldeetako kideak, besteak beste. Talde horren bidez, ondo pasatzea eta pasaraztea eta komunikatzea gura dute.

Bihar, zapatua, Arkupeko Zariaia aretoan, 19:30ean. Sarrera, 4 euro.

BERGARA

> Josep M. Mas eta Josep M. Manresaren kontzertua

Organo erromantikoaren zikloaren barruan, Josep M. Mas organo-jotzailearen eta Josep M. Manresa biolinistaren kontzertua izango da.

Bihar, zapatua, San Pedron, 20:00etan.

ARRASATE

> La Otra Cara del Rock taldeak kontzertua egingo du

Arrasateko La Otra Cara del Rock taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da.

Bihar, zapatua, Gure Lekun, 23:00etan.

ARAMAIO

> OCABeko kameratak kontzertua egingo du

Shostakovich, Guridi, Falla, Piazzola, Gershwin eta beste konposatzaile batzuen piezak joko dituzte taldeko akordeoi-jotzaileek eta perkusionistak.

Etzi, domeka, elizan, 12:00etan.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Cool Circus, Los Cretinos, Los Galerna eta Bitter Honey talde arrasatearren kontzertuak

Lelenarock musika jaialdia antolatu du Taupa tabernak Arrasateko lau musika taldeekin: gaur, egubakoitza, Cool Circus eta Los Cretinos taldeek joko dute eta bihar, zapatua, Los Galerna eta Bitter Honeyk (argazkian). Taupako terrazan aterpe-agertokia ipiniko dute, eta eguraldi txarrarekin ere ez da arazorik izango. Doan izango dira emanaldi guztiak.

Arrasateko rocka eta surf musika entzuteko aukera ederra!

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, 18:00etan; sarrera, doan.

Erakusketak

OÑATI

> Argazki lehiaketako lanak ikusteko eta bozkatzeko aukera

Gaztelekuko antolatutako Batetik bestera argazki lehiaketan jaso zituzten lanak erakusketan ipini dituzte. Bederatzi argazkilarik gaztek hartu zuten parte, eta denetara 27 lan ipini dituzte erakusketan. Urriaren 22ra arte dago zabalik. Bisitari bakoitzak bi argazkiren alde botatu ahal izango du, eta boto gehien

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ASTEBURU HONETAN, BESTEAK BESTE...

- SIMULAGAILUAK: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailea
- PLANETARIUM TXIKIA: 12:00tan eta 17:00etan
- ELEKTRIZITATE IKUSKIZUNA: 13:15ean eta 16:15ean
- SUAREN ZIENTZIA: 12:15ean



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Orduetgia
Astelehenerdik ostiralera 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

Elurrak estali gabeko marka

ERREKORRA 14 urterekin igo zuen Aconcagua; gailurra egin duen neska gazteena da Naiara Ezeiza

ATXO APELLANIZ GIDARI Juanito Oiartzabalek zuzendutako espedizioan Apellaniz izan zen Ezeizaren gidaria

ARRITXU BARRUSO > ESKORIATZA
Aconcagaura sekula igo den emakume gazteena da Ainara Ezeiza eskoriatzarra. 18 urte pasa dira ordutik hona, baina azken egunotan berriro ere haren abentura albiste da; Juanito Oiartzabalek *El Conquistador del Aconcagua* telebista saioan eskoriatzarraren errekorra aipatu zuenetik. "Kuriosoa da, horrenbeste urte pasa dira eta Oiartzabalek telebista saioan nire kasua aipatu eta jendea galdezka etorri zait. Lotsa apur bat ere ematen dit, egia esan".

HAMALAU URTEREKIN
Oiartzabalek zuzendutako talde batekin igo zuen Ezeizak Aconcagua, gurasoekin batera. Dena dela, Oiartzabalekin berarekin baino harreman handiagoa izan zuen Atxo Apellanizekin: "Hamazortzi pertsona ginen eta bi talde egin

ziren, gure gidaria Atxo Apellaniz izan zen. Oso pertsona berezia niretako; asko erakutsi zidan eta ziur nago harengatik izan ez balitz ez nuela gailurra egingo. Oso berezia izan zen niretako gailurra



'El mundo deportivo', 1992.

Atxorekin eta nire amarekin egi- tea. Ez dut sekula ahaztuko".

Eskoriatzarrak errekorra izaten jarraitzen du, baina ez dio horri garrantzirik ematen: "Esperientziarekin geratzen naiz, eta ez errekorrekin. Ez diot garrantzirik ematen, ez orain eta ezta 14 urte nituenean ere".

'REALITY'-A ETA ERREALITEA

Ezeizak kontatu digu ikusten duela Aconcaguako espedizioaren telebista saioa: "Espektakulua da, *show* bat, eta hori ez zait batere gustatzen. Mendia ez da txantxetako gauza eta Aconcagua ez da tontakeria. Dena dela, egia da jendea mendia eta horrelako espedizioak erakusteko modua dela".

Ezeizak berak garrantzirik ez eman arren, egia dena da errekorra berea dela; eta ez nolanhiko errekorra, gainera.



NAIARA EZEIZA 14 urterekin Aconcaguako gailurra egin zuen.

A.B.

ahobero

"Ezinezkoa da homosexuala izateaz harro egotea"

Carl Paladino > New Yorkeko gobernadore izateko hautagaia

Alderdi errepublikarreko hautagai kontserbadoreak ez ditu homosexualen harrotasun martxak ulertzen. Gaineratu du ez duela onartuko umeei sinestaztea homosexualitatea onargarria dela. Gustura geratuko zen Paladino. Horrela pentsatzen duen pertsona bat gobernadore izatera irits daiteke?

iturri onetik

Azaroaren 13an omenaldia egingo diete RIPEko 'Portu' eta 'Mahoma'-ri

Bi urtean behin omenaldi berezia egiten diete RIP taldeko kide izandako *Portu* eta *Mahoma*-ri. Bada, oraingo honetan Arrasateko gaztetxean izango da omenaldia, azaroaren 13an, hain justu ere. Antolatzaileek aurreratu dute Carrocerias, Piztu Punk, Gorroto eta Malos Tiempos taldeak igoko direla oholtza gainera; lehenengo bietan RIPEko *Jul* eta *Txerra*-k jotzen dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Hispanitatea

Pilarika egunean ospatzen dute espainiarrek beren aberri eguna, asteon izan da aurtengoa. Eta iruditu zait auzo-lotsa eragiteko moduan ospatu dutela. Nornahi nonahi ikusi dugu piperpotoarekin, eta telebista saio kutre horietako batean desfile modukoa ere antolatu zuten bandera artean. Zer ez ote zuketen esango gure telebistan beste horrenbeste egin izan balitz ikurrin artean?

Ze gurean abertzaletasuna uler daiteke helburu politiko batzuk urrun dauden heinean. Joan Fuster valentziarrak bezala, *nazionalismoa, juxtukoa* nahi nuke nik ere, ukazioari aurre egiteko bestekoa. Baina espainiarrek ez lukete behar horrelakorik, ez bada haiek ere ukazioa sentitzen ari direla. Horregatik ote udatik honako piperpotoaren berpizkundea?

ai, ene!



Gomazkoak diruditen arren, egiazkoak dira

Malgutasuna gauza bat da eta beste gauza bat da neska horiena. Bizkarrezurra horrenbeste okertzea ezin da ona izan.

www.sarda.es

Carrascal aroztegia

**SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK**

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Urbarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943790182
scarrasc_1@infonegocio.com

